


BARNE-MIGRAZIOAK ETA HORIEK ERMUARI EGIN ZIOTEN EKARPENAK (1950-1975)



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERGINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SALA
Gizarte Politikarako Sailburuordetza
Migrazio eta Asilo Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES
Viceconsejera de Políticas Sociales
Dirección de Migración y Asilo



AYUNTAMIENTO DE ERMUA
ERMUKO UDALA



1999-10-01 00:00:00



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Barne-migrazioak eta horiek ermuari egin zioten ekarpena (1950-1975)

Amaia Izaola Argüeso (koord.)



BERDINTASUN, JUSTITZIA
ETA GIZARTETAN POLITIKETAKO SALA
Departamento de Igualdad,
Justicia y Políticas Sociales
Viceconsejería de Políticas Sociales
Director de Migración y Asilo



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Lan hau Ermuko Udalak eskatuta sortzen da, herriko historia soziala ezagutzeak duen garrantziaz jabetuta, gizarte kohesioa sendotzeko. Ermuko Udalak bultzatu du, Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren lankidetzarekin.

Argitaratzaileak: Ayuntamiento de Ermua / Ermuko Udala

Diseinua eta Inpresioa: Gráficas Ingugom, S.L.

ISBN: 978-84-09-61316-8

Lege Gordailua: BI-619-2024



AURKIBIDEA

SARRERA <i>Imanol Zubero</i>	7
BARNE MIGRAZIOAK ETA HORIEK ERMUARI EGIN ZIOTEN EKARPENA (1950-1975) <i>Amaia Izaola, Imanol Zubero</i>	11
IMMIGRAZIOA ETA HEZKUNTZA ERMUAN (1950 -1980) <i>Ander Delgado</i>	93
EKINTZAILETZA ERMUAN ETA EIBARREN. ENPRESAK ETA ENPRESARIAK. <i>Eduardo J. Alonso Olea</i>	131



IMANOL ZUBERO

Politika Zientzietan eta Soziologian Doktorea
Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra
ORCID: 0000-0001-5699-337X
CIVERSITY – Ciudad y Diversidad Ikerketa talde-
ko ikertzaile nagusia da. <http://civersity.net>

Argitalpenak: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=134678>

Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarteko presidentea



AMAIA IZAOLA ARGÜESO

Soziologian doktorea (Euskal Herriko Unibertsitate). EHUko irakasle eta ikertzailea. Ikerketan egin duen ibilbidea talde sozialen beharren azterketa sozialari lotuta egon da, bereziki, bazterketa sozialeko egoeretan dauden taldeei dagokienean. Ikerketa-lan horren zati handi bat «CIVERSITY, ciudad y diversidad» taldearen baitan egiten du. <http://civersity.net>. ORCID kodea: 0000-0002-3432-9037.



EDUARDO J. ALONSO OLEA

Historia eta Geografian lizentziaduna (1988) eta Historia eta Geografian doktorea (1993), EHU. Egun, EHUko Historia Garaikidea Saileko irakasle titularra da.

Gerra Zibilera bitarteko Euskadiko Kontzertu Ekonomikoari buruzko doktore-tesia egin zuen, eta horri buruzko hainbat monografia eta artikulu argitaratu ditu. Halaber, administrazioaren historiari, enpresa-historiari eta enpresarien biografiei buruzko liburuak, artikuluak eta liburuetako kapituluak argitaratu ditu. Hainbat ikerketa-proiektu eta kontratutan parte hartu du

(MCIN-MINECO, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta abar).

Biography & Parliament Ikerketa talde finkatuko kide da. Historia Contemporánea aldizkariako editorea da, eta Kontzertu Ekonomikoaren eta Foru Ogasunen Dokumentazio- eta Ikerketa-zentroko zuzendariordea da.



ANDER DELGADO

Historia Garaikidean doktorea (EHU) eta Bilboko Hezkuntza Fakultateko Gizarte Zientzien Didaktika Saileko irakasle agregatua. Hasieran landu zuen ikerketa-lerroa XIX. eta XX. mendeetako Euskadiko landa-eremuko politizazioaren azterketa izan zen. Lerro horretan, hainbat liburu argitaratu ditu, baita artikulatuak ere, besteak beste, Ayer, European History Quarterly eta Journal of Social History aldizkarietan. Gaur egun, Ikastolak eta Euskadiko 1960. eta 1970. hamarkadetako berrikuntza pedagogikoko mugimendua aztertzen dihardu. Horrez gain, Euskadin garai demokratikoan izan zen testuinguru politikoari, curriculumari eta historia testuliburuei buruzko ikerketa-lerroa ari da garatzen. Hainbat lan argitaratu ditu History of Education, Journal of Educational Media, Memory, and Society eta antzeko aldizkarietan.

SARRERA

Imanol Zubero

1960 eta 1980 bitartean Ermuak 16 aldiz handitu zuen bere biztanleria eta % 700 hazi zen biztanle kopurua. Ezin dugu ziurtatu, baina iruditzen zaigu gizarte gutxik izan dutela halako eraldaketa demografikorik hain denbora txikian, bake-garaietan edo biztanleria-mugimendu masiboak eta nahitaezkoak egitera behartu duen hondamendi naturalik ezean behintzat. Egia da herri txikia zela, eta biztanle kopuru txikiarekin abiatu zela; beraz, zenbaki absolutuetan ez zen prozesu bereziki deigarria izan, ezta Espainian ere.

Garai hartan, XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan, kalkuluen arabera, 3.100.000 pertsona joan ziren landa-eremuetako probintzietatik Madrilgo, Bartzelonako eta Euskal Herriko industriaguneetara eta zerbitzuen sektorerara¹, eta ez zen nabarmena izan Galiziatik, Gaztelatik edo Extremaduratik Ermura iritsi ziren 15.000 pertsona haien etorrera. Baina tokiko historiaren ikuspegitik, biztanle-mugimendu izugarria izan zen, eta ezaugarri katastrofikoak zituen garai hartako soziologiarako. Halaxe planteatu zen 1973ko azterlan batean:

Mundu osoko milaka hiri-komunitateren helmuga komuna iza-

¹ Estatistikako Institutu Nazionala, *El Anuario Estadístico de España: 1945-1975*.
https://www.ine.es/expo_anuarios/1945-1975.html

nik, Ermuak hiri-bizikidetzako krisi handiari egin behar dio aurre eta suizidio komunitario bihur daiteke: eskola eta etxebizitza, trafikoa eta airea, aisialdia eta lana, hiri-komunitate batek jasan ditzakeen tolerantzia-mugak gaindi daitezke².

Baina gaur egun badakigu Ermua gai izan zela “hiri-bizikidetzako krisi” hari arrakastaz aurre egiteko eta gainditzeko. Hori guztia aztertu nahi izan dugu lan honetan, hauxe da, XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadatik hirurogeita hamarreko hamarkada artean izandako aurrekaririk gabeko migrazio-prozesu hark ekarri zuen krisi potentziala, Ermuko gizarte-sarean izan zituen ondorioak eta Ermuko gizarteak eta erakundeek nola erantzun zuten.

Ermuko migrazio-fenomenoaren ikuspegi orokorrarekin hasiko gara, ikuspegi soziologikotik begiratuta. Horretarako, hainbat iturritatik jasotako datuak biltzeaz gain, Ermuan bizi diren 32 pertsonaren ahotsa jaso nahi izan dugu, euren memoria eta esperientzia kontatu baitizkigute herritar horiek. Askotariko pertsonak dira, eta oso posizio sozial desberdinetatik bizi izan zuten berrogeita hamarreko hamarkadatik hirurogeita hamarreko hamarkada arteko immigrazio hura: batzuk Galiziatik, Extremaduratik edo Gaztelatik etorri ziren Ermura, beste batzuk bertakoak ziren; batzuek inguruko tailer ugarietako batean lan egin zuten, eta beste batzuek tailer eta fabrika haien zuzendaritzaz arduratu ziren. Bizipen ezberdinak izan dituzte, baina guztiek izan dituzte arazo komunak eta guztiek lagundu dute egungo Ermua eraikitzen. Eskerrik asko parte hartzeagatik.

Prozesu horietan guztietan hezkuntzak eta enpresek izan zuten funtsezko eginkizuna ere aztertu nahi izan dugu. Berrogeita hamarreko hamarkadatik hirurogeita hamarreko hamarkadara

² José Ignacio Ruiz-Olabuénaga (dir.), *Ermua, comunidad en eclipse*, Ermua, 1973, I. kap., 3. or.

artean Ermura iritsi ziren milaka pertsonen hezkuntza-erakunde batzuekin eta enpresa batzuekin egin zuten topo.

XX. mendeko hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan Gipuzkoara eta Bizkaira egindako migrazioak aztertzeke egin ditugun beste lan batzuen arrastoari jarraitu dio lan honek ere³. Oro har, urte haietan Espainiako beste erkidego batzuetatik Euskadira etorri ziren milaka pertsonen ekarpena oroitzeko eta aintzatesteke ariketa izan nahi dute, euren lanarekin eta konpromisoarekin biziki lagundu baitzuten gure herriaren garapen sozial, kultural eta ekonomikoan. Haiek gabe, Euskadi ez litzateke gaur egun dena izango.

Azkenik, aipatu behar da, egin aurretik, ikerketa honen aldeko irizpena eman zuela Euskal Herriko Unibertsitateke Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordeak, eta 2022ko ekainaren 23an egindako bileran onartu zuela (006/2022 akta).

³ Luis Castells et al., *Las migraciones internas y su aportación al desarrollo de Gipuzkoa (1950-1975)*, Ramón Rubial Fundazioa, 2018; Luis Castells et al., *Migraciones internas y su aportación al desarrollo de Bizkaia (1950-1980)*, Ramón Rubial Fundazioa, 2020. Ramón Rubial Fundazioaren webgunean irakurri eta deskargatu daitezke bi lan horiek: <http://www.ramonrubial.com/index2.asp>

*BARNE-MIGRAZIOAK ETA HORIEK
ERMUARI EGIN ZIOTEN EKARPENA
(1950-1975)*

Amaia Izaola, Imanol Zubero

CIVERSITY ikerketa-taldea – UPV/EHU

1. SARRERA

Aurreko lan batean aztertu dugun bezala¹, XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadak garapen ekonomiko handiko aldi berria ekarri zion Euskadiri, 1930az geroztik izandako atonia-aldiaren ondoren. Horrek Espainiako beste eskualde batzuetatik ehunka mila pertsona erakarri zituen gure erkidegora. Hogeita bost urtean Bizkaiak ia bikoiztu egin zuen bere biztanleria; izan ere, 1950ean 651.000 biztanle inguru bazituen, 1,1 milioi ziren 1975ean. Hala, 1950 eta 1975 artean, Euskal Autonomia Erki-degoak 590.509 biztanle gehiago zituen hona etorri ziren etor-kin haiei esker. Biztanleriaren hazkunde naturalaren (jaiotza kopurua/heriotza kopurua) ia berdina izan zen hazkunde hura, eta, beraz, migrazioaren ondorio izan zen garai hartan Bizkaiko hazkunde demografikoaren % 50 baino gehiago.

Baina uholde demografiko hura ez zen modu uniformean banatu euskal lurralde osoan. Immigrazio ekonomikoa eta laborala izan-ik, industria-egitura indartsuagoa zuten euskal herrietan pila-tu ziren milioi erditik gora ziren pertsona haiek. Eta herri horien guztien artean Ermua nabarmentzen da.

Giza komunitatea eta bizi ziren lurraldea erabat eraldatu zuen fenomeno bati buruz hitz egin nahi izan dugu ondorengo orrial-deetan: “haustura handi” hartaz, José Manuel Azconak *Historia general de la Villa de Ermua*² lanean deitzen dion bezala. Haustu-

¹ Luis Castells et al., *Migraciones internas y su aportación al desarrollo de Bizkaia (1950-1980)*, Ramón Rubial Fundazioa, 2020, 195. or. <http://www.ramonrubial.com/images/MigracionesBizkaia.pdf>

² José Manuel Azcona, *Historia general de la Villa de Ermua: del Paleolítico al asesinato de Miguel Ángel Blanco*, Ermuko Udala, 2003, 557. or.

ra handia izan zen, bai, baina ez zen horretan geratu, baizik eta eboluzionatu egin zuen, eta batasun berri eta handia ekarri zuen. Ermukoa, ikusiko dugun bezala, XX. mendeko aldaketa-prozesu garrantzitsuenak arrakastaz bideratzen jakin duen herri baten historia da, dudarik gabe: bat-bateko hazkunde demografiko neurrigabea, kontrolik gabeko urbanizazioa eta industrializazio azkarra.

Gurea ez da, inola ere, errealitate horri egin zaion lehen hurbilketa. Aipatutako Azconaren *Historia general* lana bezala, badira beste ikerketa batzuk ere, hainbat garai historikotan eta ikuspegi desberdinetatik hura gogora ekarri nahi izan dutenak. Gure lanean zehar, ikerketa horiek aipatuko ditugu, eta egileei zinez eskertzen diegu ikerketa horietan bildutako ezagutza guztia, ezinbestekoa baita gure ikerketa garatzeko.

2. ERMUAK IZANDAKO ERALDAKETA DEMOGRAFIKOA ETA URBANOA

1973an, Jose Ignacio Ruiz-Olabuénaga soziologoak zuzendutako azterlan batek ohartarazi zuen "suizidio komunitario bihur daitekeen hiri-bizikidetzako krisiari"³ egin behar ziola aurre Ermuak. Krisi horren oinarrian immigrazio-prozesua zegoen, herriaren demografia eraldatu baitzuen XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan:

"Hasiera-hasieratik, immigrazio bizkor eta etengabearen lurrikarak bat-batean astindu duen giza bizikidetzatzat hartu da Ermuko bizitza, funtsean eraldatu baitu bertako komunitate-bizitza",⁴ ohartarazi zen azterlan horretan.

Egia esan, Ignacio Ballester Rosek⁵ bildutako datu demografikoen arabera, 1900 eta 1981 bitartean Ermua izan zen biztanle-kopuruaren hazkunderik handiena izan zuen euskal herria. Urte horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria 3,5 aldiz handitu zen, eta Ermukoa 26 aldiz, 698 biztanle izatetik 18.705 biztanle izatera pasa baitzen (1. taula). Bilakaera demografiko hori alderatzen badugu gertu duen Eibarko bilakaerarekin, Eibar 6.583 biztanle izatetik 36.494 biztanle izatera pasa zen denboraldi berean, hau da, biztanleria 5,5 aldiz handitu zen.

³ José Ignacio Ruiz-Olabuénaga (dir.), *Ermua, comunidad en eclipse*, Ermua, 1973, I. kap., 3. or.

⁴ Ruiz-Olabuénaga, *op. cit.*, I. kap., 5. or.

⁵ Ignacio Ballester Ros, "La evolución de la población del País Vasco en el periodo 1900-1981", *Revista de Estudios de la Vida Local*, 217. zk., 1983, 143-158. or.

1. taula. 1900 eta 1981 artean biztanle-kopuruaren hazkunde handiena izan zuten EAEko hamar udalerriak

UDALERRIAK	IZATEZKO BIZTANLERIA ERROLDEN ARABERA		Kopuruak indizeak Oinarria 1900 = 100
	1900	1981	
Ermua	698	18.705	2.679,8
Basauri	2.056	51.996	2.529,0
Getxo	5.442	67.321	1.237,1
Leioa	1.846	22.382	1.212,4
Errenteria	4.081	45.789	1.122,0
Portugalete	5.182	57.534	1.110,3
Etxebarri	637	6.523	1.024,9
Galdakao	2.825	26.545	939,6
Legazpi	1.246	10.558	847,3
Hernani	3.672	30.272	824,4

Iturriak: Geuk egina, Ballester Rosen azterlana oinarri hartuta (1983)


Eraldaketa demografiko hori 1960 eta 1980 urteen artean gertatu zen bereziki, urte horietan Ermuko herriak 16 aldiz handitu baitzuen bere biztanleria eta % 700 hazi baitzen bere biztanle-kopurua (2. taula; 1. grafikoa).

2. taula. Ermuko biztanleriaren bilakaera (1900-2023)

Urtea	Guztira	Urtea	Guztira	Urtea	Guztira
1900	698	1992	17.885	2009	16.252
1910	871	1993	17.820	2010	16.196
1920	1.001	1994	17.769	2011	16.274
1930	1.046	1995	17.824	2012	16.278
1940	1.277	1996	17.346	2013	16.247
1950	1.725	1998	17.334	2014	16.109
1960	3.029	1999	17.262	2015	16.048
1970	14.563	2000	17.140	2016	16.028
1981	18.705	2001	17.011	2017	15.951
1986	18.604	2002	16.920	2018	15.890
1987	18.637	2003	16.735	2019	15.880
1988	18.771	2004	16.597	2020	15.847
1989	18.728	2005	16.449	2021	15.791
1990	18.634	2006	16.331	2022	15.589
1991	17.981	2007	16.262	2023	15.599

Iturria: Foro Ciudad. Demografía de Ermua⁶

1. grafikoa. Ermuko biztanleriaren bilakaera (1900-2023)



Iturria: Foro Ciudad. Demografía de Ermua

⁶ Foro Ciudad. Demografía de Ermua. <https://www.foro-ciudad.com/vizcaya/ermua/habitantes.html#EvolucionTabla>

Zalantzarik gabe, munta horretako eraldaketa demografikoak eragin ikaragarria izan zuen Ermuko gizarte-egituretan. Are gehiago kontuan hartzen badugu bat-bateko prozesua ez ezik, planifikatu gabea ere izan zela, eta sortu ahala eman behar izan zitzaioela erantzuna. Errealitate hori ezagutzeko, jada aipatu dugun José Ignacio Ruíz-Olabuénagak zuzendutako 1973ko azterlanaz gain, (“bero-beroan” egina, gertaerak izaten ari ziren unean bertan), interes handiko beste lan bat ere badugu, Itziar Sapsootham Arévalok 2018an⁷ egina, oraingo talaiatik.

Biztanleriaren hazkunde horren ezaugarrietako bat hamarkada horietan, batez ere 50eko hamarkadaren amaieran, izan zen immigrazio-mugimendu oso bizian oinarritua zegoen, 1970eko biztanleriaren osaerak erakusten duen bezala. Urte hartan, Ermuan erroldatutako biztanleen (2.390 biztanle) % 16 bakarrik ziren herrian jaioak, % 6,2 (922 biztanle) Bizkaiko beste herri batzuetan, eta % 77,8, hau da, 11.630 biztanle, probintziaz kanpo jaioak ziren⁸. 1986ko erroldako datuen arabera, Ermua zen etorkinen ehuneko handiena zuen 10.000 biztanletik gorako euskal herria, % 46,96⁹.

⁷ Itziar Sapsootham Arévalo, *Industria, demografía y urbanismo en Ermua: Análisis de la relación del boom demográfico y el desarrollo urbanístico entre 1955 y 1975*, Ermuko Udala, 2018. https://www.ermua.eus/sites/default/files/repositorio-archivos/Analisis_de_la_relacion_entre_el_boom_demografico_y_el_desarrollo_urbanistico__19551975_Opti_19_06_2018_16_18_06.pdf

⁸ Jesús Dorao Lanzagorta, *Estudios socio-económicos comarcales. Duranguesado*, Servicio de Estudios de la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao, Bilbo, 1973, 160. or.

⁹ Xabier Aierdi Urraza eta José Manuel Fernández Sobrado, “Inmigración e inserción urbana”, *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía*, 21. zk., 1993, 373-388. or.

3. EMIGRAZIOAREN ESPERIENTZIA

3.1. ETXEBIZITZA

Elkarrizketatutako pertsona askok esperientzia berdina bizi izan zuten: jatorrizko herrietatik atera ondoren, Eibar izan zuten lehen helmuga, baina azkenean Ermura joan ziren bizitzera, herri armagilean arazoak baitzeuden lurzoru urbanizagarria eskuratzeko¹⁰. 2016ko erreportaje batek ekartzen dizkigu gogora Eibarren 1956ko martxoaren 23an eta 1958ko otsailaren 23an gertatutako bi lan-istripu larriak. Lau eta bost langile hil ziren, hurrenez hurren, istripu haietan. Bi lur-jausiren ondorioz gertatu ziren bi ezbehar haiek. Lurpean geratu ziren etxebizitza berriak eraikitzeko lanetan ari ziren langileak, galiziar jatorrikoak guztiak. Erreportajearen adierazten den bezala, “kontuan izan behar da orografia zailean egin behar izan zela industria- eta hiri-garapena, eta harana estua izatean hirigintza eta arkitektura berezia gauzatu behar izan zen, bai industria-eraikinei bai bizitegiei dagokienez”¹¹.

Ermua ere halaxe eraiki behar izan zen, Ego ibaiaren haran estuko hegala aldatu zuten gora.

¹⁰ Horrexegatik, hain zuzen ere, Ermua “Eibarko logela-hiritzat” hartu zuten Ermuko eraldaketa-prozesuari buruzko lehen azterketa soziologikoek, Ruíz-Olabuénagak zuzendutakoak kasu (*op. cit.*, I. kap., 15. or.).

¹¹ Alberto Echaluze, “La inmigración llegada a Eibar contribuyó a la construcción de una ciudad mejor”, *El Diario Vasco*, 2016/04/03. <https://www.diariovasco.com/bajo-deba/201604/03/inmigracion-llegada-eibar-contribuyo-20160403004348-v.html>



Iturria: Ermuko argazki historikoak¹²

Hiru fenomeno horiek (industrializazioa, immigrazioa eta urbanizazioa) bat egiteak, hain denbora laburrean, hain azkar eta inolako plangintzarik gabe, ondorio iraunkorrak izan zituen espazioan. Honela deskribatu zituen ikertzaile batek:

Berehala nabaritu ziren migrazio-desplazamendu masibo, kontrolik gabeko eta arretarik gabeko haren emaitzak: bizitegi-beharrak eraikuntza intentsiboa egitera behartu zuen, berehala eraikitsera, planifikaziorik gabe. Horren erakusgarri ugari ditugu Euskal Herriko hirietan eta herrietan: Bilbo eta bere hiri-industria ingurunea, Leioa, Basauri, Ermua, Pasaia, Erreenteria, Eibar eta abar. Lurzorua eskuratzeko lehian zebiltzan tailerrak eta eraikinak eraikitzeko, berez urria baitzen Gipuzkoako haran horietan, eta modu linealean eta

¹² Ermuko argazki historikoak. <https://www.ermua.eus/es/galerias-imagenes/fotografias-historicas-ermua>

bertikalean hazi behar izan zuten hiriek. Txanpinoi-auzoak, tipologia monotonokoak eta ingurunera egokitu gabeak, deskonektatuak, azpiegitura aldetik eskasak eta behar-beharrezkoak ziren zerbitzuez hornituak kasurik onenean, horiek lekua hartzen joan ziren aurreko eraikinen, tailerren, biltegien, errepideen eta ibaien artean. Eta haranaren hondoan jada lekurik ez egotean, hegala eskalatzea eta glazisak okupatzea da irtenbidea. Sortutako espazioa promiskua da funtzionalki, kaotikoa hirigintza-mailan eta hondatua ingurumenari dagokionez. Industrializazioa dena emanda: urbanizazioa nonahi¹³.

Bizilekua aurkitzeko arazoak zirela eta, “apopilotzan” hasi ziren Eibarren zein Ermuan, haxe da, familiakoa ez den apopilo bat etxean hartzen diru-sari baten truke¹⁴.

Ni autobus batean etorri nintzen herritik, eta leher egitekoa zen hura. Hamasei ordu autobusez. Gaueko 10etan iritsi nintzen eta irekita zegoen taberna bakarra zen kinielak egiten zituzten tokia, Mundial izenekoa. Tabernakoak esan zigun ea non arraio egin behar genuen lo gaur. Arrate hotelera joan ginen lo egitera egun horretan. Eta biharamunean ostalertsu bilatu genuen eta hemen zegoen jatetxean gelditu ginen, Santa Cecilia [G1].

Jendea Ermuan bizi zen ostalertsaren etxean bizi zelako eta hamar edo hoge egon zitezkeen han. Gu pisu batean geunden eta hamasei ginen [G1].

¹³ Iñigo Agirre, “El fenómeno industrial en Euskadi”, *Lurralde*, 16. zk., 1993, 75-86. or. <http://www.ingeba.org/lurralde/lurranet/lur16/16agirre/16aguirre.htm>

¹⁴ Fernando Serrano, “El pupilaje en Eibar (1935-1975)”, *Euskonews*, 781. zk., 2023/11/25-2024/01/17. <https://www.euskonews.eus/zbk/781/el-pupilaje-en-eibar-1935-1975/ar-0781001004C/#>

Ostalertsarena aipatu duzunez, Leoncio eta biok joan ginen ostalertsak bila, eta Requejo zegoen, tailerrean lan egiten zuena hura ere. Izan ere, Leoncio iloba batekin etorri zen eta arrebarekin zegoen. Bila joan ginen eta litera batean lo egin behar izan genuen azkenean. Lau lagunek egin genuen lo gela batean. Eta bazkaltzen ari ginela, ardorik ez ote zegoen esan nuen, eta ostalertsak esan zuen berak ez zuela ardorik jartzen bazkaltzeko. Ba ardorik jartzen ez badit, ni banoa [G1].

17 urte nituenean etorri nintzen, eta nire hiru anaia zaharrenak hemen zeuden jada. Tailerrean ari ziren lanean, baina ostalertsarekin bizi ziren. Eta nik ere hamabost bat egun eman nituen ostalertsarekin, zerbitzatzerako joateko leku bat aurkitu zuten arte. Eta han egon nintzen ezkondu arte [G4].

Funtsezko erreferentzia da Alazne Astarloak, Oscar Arandak eta Francisco Javier Carrascosak ostalertsek Ermuan zuten zereginari buruz egindako ikerketa¹⁵. Emakumeen ezkutuko enpleguaren erakusgarri zen hura genero-joera handiko eredu ekonomiko hartan. Azterlan honen epilogoan adierazi den bezala, “ostalertsarik izan ez balitz, etxebizitza eta gutxieneko zerbitzuen falta izango zen langileentzat, eta horrek, zalantzarik gabe, zaildu egingo zuen Ermuko elkarbizitza”.

Nolanahi ere, “ostalertsarekin” bizitze hori premiazko irtenbidea izan zitekeen Euskadira lanera iritsi berri zirenentzat, behar zutena horixe baitzen ia bakarrik, lo egiteko leku bat, baina ez zen

¹⁵ Alazne Astarloa eta Francisco Javier Carrascosa, *El papel de las patronas en Ermua: la importancia del trabajo doméstico en el proceso productivo / Ostalertsen zeregina Ermuan: etxeko lanaren garrantzia ekoizpen prozesuaren barruan*, Ermuko Udala, 2000. Atariko azterketa hemen kontsulta daiteke: https://www.ermua.eus/sites/default/files/repositorio-archivos/PS0001_26_10_2009_11_03_11.pdf

hala familia osatzeko asmotan hasten zirenean¹⁶. Horregatik, elkarrizketatutako pertsona askorentzat ezkontza izan da etxebizitza propioa erosteko erabakia hartzeko unea, eta, Eibarren etxebizitza erosteko zailtasun handiak zeudenez, huraxe izan zen Ermuan bizitzen jartzeko unea ere:

Gertatzen zena zen kanpotik etorritako jende askok Eibarren lan egiten zuela, han ere lan asko baitzegoen, baina Ermuan bizi zirela merkeagoa zelako. Ermuko jende askok Eibarren egin dute beren lan-ibilbidea, eta Ermuan egiten zuten lo, errazagoa zelako, merkeagoa izan baita beti. Izan ere, hiru kilometrora daude, jendea oinez joaten zen [E4].

60an iritsi nintzen, azaroan, Eibarrera. Ermura, berriz, 68an, ezkondu nintzenean. Eibarren etxebizitzak garestiagoak zirenez, merkeago zeuden eta hona etorri ginen eroatera [E1].

Eibarren bizi izan nintzen lehenengo, eta ezkondu nintzenean Ermura etorri nintzen bizitzera [G1].

Eta hantxe egon nintzen ezkondu arte. Hori Eibarren izan zen, Eibarrera joan nintzen zuzenean. Ezkondu nintzenean hemen erosi genuen etxebizitza Ermuan eta hemen atzean dagoen kalera etorri nintzen bizitzera [G4].

¹⁶ Deigarria egin zaigu 2013ko albiste batean ohartarazpen bat aurkitzea esaten zuena nolabait ere apopilotza praktikak itzultzen ari zirela Ermura. Honela zioen: “Se trata de una situación que ya se daba en los años 50 y 60 en el municipio de Ermua y que está volviendo a ser una tónica debido a las situaciones económicas puntuales con las que se encuentran tanto las familias que requieren algún ingreso extra, como las personas que necesitan una habitación en la que convivir en estos momentos”. Ainhoa Lasuen, “Se alquila habitación”, *El Correo*, 2013/06/08. <https://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20130608/guipuzcoa/alquila-habitacion-20130608.html>

*Gero ni ezkondu nintzen eta Eibarren bizi izan nintzen.
Gero hona etorri nintzen bizitzera. Eta hementxe gau-
de: ezkonduta, seme-alabekin eta bilobekin [G5].*

Nolanahi ere, elkarriketatutako pertsona askok gogoan dute etxebizitzetan jende asko pilatuta bizi izanaren esperientzia, bi-
zitzeko baldintza ezegokiak zituzten etxebizitzetan:

*Oroituko zara, ni oroitzen naiz behintzat, pisuetan fa-
milia osoak bizi zirela. Adibidez, nire amaren etxean
haren anaia bat zegoen gurekin bizitzen, baita aitaren
anaia bat ere, ezkongabeak oraindik. Beti zeuden bi
edo hiru lagun gehiago. Eta pertsona haietatik ehune-
ko oso handi bat erroldatu gabe zegoen [G2].*

*Logela bakoitzean bi edo hiru egoten ginen, eta gero
sukaldea ere beste logela bat zen, han ez baitzen jana-
ria prestatzen. Jatetxera jaisten ginen bazkaltzera. Ho-
rregatik jendea bazegoen, baina etxebizitzak oso gutxi
ziren hemen. Jendea non sartzen ote zen galdetzen
zenion zeure buruari, jende pila handia egoten baitzen
leku berean [G1].*

*Hona Ermura etorri ginenean, etxetxo zahar batean bizi
ginen geltoki ondoan. Hiru familia bizi ginen elkarrekin,
denak solairu berean. Beno, nire ama zen beste bi ahi-
zparekin. Eta han egon ginen elkarrekin eraikitzen hasi
zen arte eta orduan nire osaba-izebak Ongaraira joan
ziren pisu berri batzuetara. Beste izeba, berriz, Burgo-
sera joan zen [G2].*

*Nire kasuan, hona iritsi ginenean, denak gela batean
sartu behar izan ginen, ezagutzen ez genituen beste
familia batzuekin [G5].*


Hona batez ere errentan etortzen ginen. Gogoan dut nire aita urtebete lehenago etorri zela. Eta zerbait aurkitu zuenean, orduan etorri ginen gainerakoak. Nik uste dut horrela egin zutela gehienek. Ama ekarri zuen eta gu ekarri gintuen. Beste familia batekin bizi izan ginen eta gero alokatu egin genuen [G4].

Gu teilatupeko solairu batean bizi ginen, oso handia, 300 metro izango zituen. Orain kristorena izango zen hura berrituta. Eta alde hartatik zetozen guztiak hara joaten ziren, leku bila zebiltzan bitartean han egoten ziren bizpahiru hilabetez. Eta beste batzuk eta beste batzuk etortzen ziren [G2].

Lehenbizi aita etorri zen, gero ahizpa zaharrena etorri zen eta gero ama eta beste seme-alabak ekarri gintuen, guztira sei baikara. Eibarrera iritsi ginen eta gela batean egon ginen gu ere, nire adiskide Juanek esan duen bezala. Orduan ez zegoen etxerik mundu guztiarentzat, emigrazioa zelako eta dena oso okupatua zegoelako. Etxe bat alokatzeko dirurik ere ez zegoen. Pisu batean bi familia egoten ginen, eta batzuetan baita hiru ere. Familia bakoitzak logela bat zuen sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Egia esan, ez zen batere atsegina izan, jende asko eta ume asko zeudelako. Baina huraxe zen orduko bizia [G5].

Ermura emigratu zuen biztanleriaren parte handi bat Galiziatik zetorren. 1964an egindako ikerketa baten datuak bildu ditu Azconak. Ikerketa horren arabera, garai hartan herriak zituen biztanleen % 21 Galiziakoak ziren jatorriz, “Baskongadetan” jaio-takoak adina pertsona ia, batez ere Ourense probintziakoak (2. grafikoa).

2. grafikoa. Ermuko biztanleria (1964ko apirila). Biztanleen osaera eta jatorria



Iturria: Geuk egina, José Manuel Azcona, Historia general de la Villa de Ermua, 565-567. or. azterlana oinarri hartuta

2005ean Gorka Angulo kazetariak gogora ekarri zuen “Gallegos y ermuarras” izeneko artikuluan, hauxe baitzioen “Bizkaiko herri hori Galiziatik etorritako emigrazioaren sinonimoa da duela mende erdi baino gehiagotik”¹⁷. Elkarrizketatutako pertsona batzuek nabarmendu dute hori:

Gonzalo: *Hemen jendea asko aldatu da. Zuk pentsa duela urte batzuk 15.000 biztanle zeudela Ermuan. 15.000 horietatik 5.000 Galizian jaioak ziren. [...] **Manolo:** Galiziako bosgarren probintzia deitzen zioten honi [G2].*

Allariz Ermura etorri zen eta Molgas Eibarrera [G2].

¹⁷ Gorka Angulo, “Gallegos y ermuarras”, *El País*, 2005/06/16. https://elpais.com/diario/2005/06/16/paisvasco/1118950812_850215.html

“Son moi poucas as familias alaricanas que non teñen relación con Eibar ou Ermua”, nabarmendu zuen 2016an garai hartan Allarizko alkatea zen Francisco Garciak, “Euskadi-Galiza” jardunaldiak aurkeztean¹⁸.

Geroago ikusiko dugun bezala, migrazio-esperientziaren balorazio orokorra oso positiboa izan arren, baina ez da hori eragozpena elkarrizketatutako pertsona batzuek oso gogoan izateko eurentzako zenbateko eragina izan zuen Ermuko errealtatearekin izan zuten lehen kontaktuak. Zalantzarik gabe, aipatu dugun kontrolik gabeko hirigintza horren eraginpean, inolako antolamendurik gabeko prozesua izan baitzen. Hainbestearino, non Hermenegildo Bracons Huguet arkitektoak, Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteaz arduratu zenak, “legerik gabeko hiria” deitu baitzion Ermuari hirurogeiko hamarkadan¹⁹:

Nik esaten nuen gehiagora joan behar zuen herria zela, baina gu hona etorri ginenean depresioak jota gelditu ginen ia. Non sartu ote gara? [G1].

Ni Ermura etorri nintzenean, hemen ile-apaintzailea behar zutelako, trenetik jaitsi nintzenean, itzultzeko beste bat egon izan balitz, beste horretan sartu eta alde egingo nuen. Mortala zen Ermua [G2].

Asko maite dut Ermua, nire bigarren nazioa baita eta hemen hazi baititut seme-alabak, baina oso itsusia zen [G2].

Jesus: *la ez zegoen espaloirik. Manuel:* *Mesedez, izugarri itsusia zen Ermua [G2].*

¹⁸ Laura Fernández, “Allariz recordará medio siglo de emigración vasca”, *La Región*, 2016/08/10. <https://www.laregion.es/articulo/allariz/allariz-recordara-medio-siglo-emigracion-vasca/20160810123643640748.html>

¹⁹ Alberto Echaluze, “Adiós al diseñador del nuevo Eibar”, *El Diario Vasco*, 2018/04/01. <https://www.diariovasco.com/bajo-deba/eibar/adios-disenador-nuevo-20180401000032-ntvo.html>

Itziar Sapsootham Arévaloren 2018ko ikerketa-lana, Ermuko demografiaren aldaketa sakonaren eta hiri-eraldaketaren arteko lotura xehetasunez aztertzen duena, funtsezko erreferentzia da errealitate hura ezagutzeko, eta hari lotzen gatzazkio.²⁰

3.2. GIZARTE-HARREMANAK

Deserrotze eta desolazio handiko prozesua da emigrazioa. Denboraren poderioz, beste sustraitze bat izan badaiteke ere haren emaitza, bizitza oso bat eraikitzen jarraitzeko orube berri bat aurkitzea, zalantzarik ez dago, gizakiak izan dezakeen prozesu desorekatzaileenetako bat dela migrazio-prozesua. Elkarrizketatutako pertsona batzuek gurekin partekatu dituzte norberarena ez den gizarte batean bizitzeak dakartzan zailtasunak; izan ere, gizarte horren kodeak, guztiz urrunak ez izan arren, arrotzak dira betiere.

Badirudi Ermura haur zirela iritsi zirenak gai izan zirela beren jaioterrian zuten bizitzarekin lotura-elementu gehiago aurkitzeko:

Auzoetan oso ondo egoten zen kalean, herrian bezala zen, autorik eta ezer ez zegoelako. Santa Ana auzoan egotea herrian bageunde bezala zen. Ederki. Auzoko neska-mutil guztiak han elkartzen ginen gauean eta ogitartekoa botatzeko eskatzen genien amei [G4]

Baina helduak zirela emigratu zutenek (eta gizonez ari gara zehazki) Ermura bakarrik iritsi zirenean izan zituzten zailtasunak kontatu dizkigute, eguneroko bizitza berrantolatzeke erreferentzia gisa balioko zien familia-sarerik gabe.

²⁰ Itziar Sapsootham Arévalo, *op.cit.*, 62-95. or.

Bakarrik etortzean ez daukazu inor ezta iritzia eskatzeko ere. Buru ona baduzu, ondo. Baina txarra baduzu, batzuk gauza guztietan erori ziren, denetarik zegoelako. Gehien markatzen zintuena zen hemen ez zenuela ez aitarik, ez amarik ez anai-arrebarik. Ez zenuen inor iritzia edo ezer eskatzeko. Orduan, bide onek bazindoazen, primeran. Baina bide txarra hartzen bazenuen, akabo [G1].

Ni Santurtzira joaten nintzen nire arreba han zegoe-lako. Nire dirua hartzen nuen, ostalertsari ordaintzen nion eta gainerako dirua Santurtzin uzten nuen karti-lan arrebarenean. Diruarekin arriskua zegoen [G1].

Izan ere, bakarrik zegoen bati, nork eragotziko dio dirua nahi duen lekuan gastatzea? [G1].

Badira, halaber, pertsona batzuk, gutxi, kanpotik etortzeagatik errefusa edo ez onartzeko esperientziak bizi izan dituztenak:

Nik badut oroitzapen bat nerabe ginenekoa sekula ahaztuko ez dudana. Orduan hemengo jendeak ez zintuen asko onartzen. Gogoan dut klub bat egin nahi izan genuela, horrela deitzen genion, apaizaren etxean. Gainera, gogoan dut lan pila bat egin genuela hura guztia garbitzeko. Baina taldetxo hartan ez ginen ondo integratu. Gero ez dut arazorik izan. Baina orduan bai, nerabezaroko kontuak [G4].

Angela: *Aber, baztertuak ez. Baina begiratzen zizuten pixka bat... niri ez zidaten inoiz esan, oso txikia bainintzen, baina nire anaiak panazko galtzekin zetozen, eta gero modan jarri ziren gainera. Eta panazko galtzak*

zeramatzatenei katetoak esaten zieten. **Alejandra:** Maketoak. **Angela:** Hori da, maketoak [G5].

Gu, oro har, ez, baina baziren Bilbon bizi ziren bi, nire lehengusu batzuk, eta haiek bai arbuiatzen zituzten. Eta pena handia ematen zidan. Baina guri ez, inoiz ez [G4].

Baina gehienek adierazi dute harrera ona izan zutela eta ondo integratu zirela, nahiz eta une zailak ere izan:

Ni 16 urterekin etorri nintzen eta Eibarren egin nuen kuadrilla. Eta gaur egun, berrogeita hamasei urte geroago, kuadrilla gara oraindik. Zortzi edo hamar lagun ginen. Horietako bi beren herrira itzuli dira, baina hemen gaudenok astero elkartzen gara eta noizean behin afariren bat egiten dugu. Asteazkenean, hain zuzen, hemen egon ginen bazkaltzen. Eta duela berrogeita hamasei urte bezain lagunak izaten jarraitzen dugu [G1].

Nik leku guztietako jendea ezagutu dut, jende asko sartu da, eta beti ondo moldatu naiz mundu guztiarekin. Edo behintzat beti saiatu naiz mundu guztiarekin ondo konpontzen. Ez dut arazorik izan ez lanean ez kalean [G1].

Jendearekin oso ondo, egia esan. Baserri batean bizi ginen, eta talde trinkoa ginen guztiok. Ate guztiak zabalik. Hori Matsarian bizi nintzenean eta gero Lorategi kalera etorri ginenean ere. Nik ez dut horrela arbuiorik izan... [G5].

Gaizki pasa genuen, bai diruagatik bai politikagatik, bai eta hemen egiten zuen hotzagatik ere, han oso tenpe-

ratura polita eta atsegina baikenuen. Beti ginen kalean mahuka motzetan. Hemen hotz egiten zuen eta ez genuen arropa nahikorik. Gaizki samar pasatu genuen, baina orain oso ondo [G5].

Elkarrizketatutako pertsona batzuek adierazitakoaren arabera, **euskaraz** ez jakitea egon zitekeen (argi eta garbi adierazi dute estimua diotela euskarari) onarpen falta erlatibo horren oinarrian:

[...] izan ere, kanpokoak izanik eta euskaraz hitz egiten ez jakitean, jende askok begiratzeko zizun pentsatuz "begira hori..." [G2].

Nik, ordea, ez dut inoiz beharra sentitu. Ez naiz inorenkin egon euskaraz hitz egiteko. Beno, Aretxabaletan eman nituen bost urteetan mundu guztiak hitz egiten zuen han. Baina ni nire kasa ibiltzen nintzen eta ez nuen inor ezagutzen. Dendara joaten nintzen eta txanda eskatzen zidatenean ez nuen ematen eta ez nuen jakiten noiz tokatzen zitzaidan. Gero berriro hona itzuli nintzen eta kito. Baina han bai hitz egiten zela [G4].

Nire lanbidean [...] denekin izan nuen harremana, galiziarrekin, andaluziarrekin eta guztiekin. Ez dut ezer euskaraz jakitearen edo ez jakitearen aurka. Orain gauza bat esango dizut, atzera egin ahal izango banu 1967ra, eta orain dudan esperientziarekin eta orain dakidanarekin, egingo nukeen lehenengo gauza euskara ikastea izango litzateke [G2].

Duela ez asko esan zidaten nik ez nuela nire aldetik jarri euskara ikasteko. Nola ezetz? Ez nauzu batere eza-

gutzen, oso oker zaude! Nire seme-alabak txikitatik aritu dira ikasten, orain 3 urterekin edo hasten dira. Ez dakit gogoan duzuen hor goian bazela Udalaren areto bat euskara ikastera joateko. Ni hiru urtez ibili nintzen hara joaten ordu-bietatik lauretara. Ez naiz oroitzen zer izen zuen lekuak, txakurrei ilea mozten dieten tokiaren ondoan zegoen. Gutxienez hamar lagunek joan behar genuen, diruz lagundua baitzegoen eta pixka bat gutxiago ordaintzen zenuen horrelako talde bat biltzen bazen. Oso ondo zegoen, bi ordu egiten genituen eta aditzak eta horrelakoak erakusten zizkiguten. Eta jolasak ere egiten genituen euskaraz, oso entretenigarria zen. Niri gustatu zitzaidan. Nik uste dut hiru urte egin nituela han, eta gero kendu egin zen jendea uzten hasi zelako, ezin zuelako umeengatik eta abar. Hor hautsi zen taldea eta utzi egin behar izan zuten. Nik jarraitu nahi nuen, okindegian lan egiten bainuen eta han euren artean euskaraz hitz egiten zuten. Beno, eta baita nire seme-alabengatik ere. Nik batua ikasten nuen, eta gero “bentania” eta “eskobia” eta horrelakoak entzuten nituen, nik ikasten nuenarekin zerikusirik ez zuten hitzak. Esaten nien ea zer esaten zuten, ez zela horrela. Eta gero utzi egin nuen eta ezer ez [G4].

Hala ere, txikiagoa nintzenean, 6 edo 7 urte nituenean, primeran konpontzen nintzen baserrietakoekin. Oso ondo konpontzen ginen. Guk baserria zegoen lekutik egin behar genuen ibilbidea, ia ordubete oinez, Aldatzerraino. Orduan, beste baserrietakoak biltzen bezala joaten ginen. Gogoan dut gaizki pasatzen zutenak euren zirela, orduan euskara debekatua baitzegoen, eta

haiek bakarrik hazi zirelako anai-arrebekin baserrian eta euskaraz hitz egiten zutelako. Oroitzen naiz errieta egiten zietela eta jo egiten zituztela, gaztelaniaz ez zutelako ondo hitz egiten. Eta orain hona etorri eta alderantziz [G4].

Baina elkarrizketatutako pertsona gutxi ekarri dituzte gogorra arbuio edo diskriminazio gertaerak, beste iturri batzuetan adierazitakoaren ildotik: “Ermuko galiziar kolektibitatearen artean zaila da aurkitzea bere jatorriagatik diskriminatua sentitu den edo izan den inor”²¹. Aipamen batzuk bai egin dituzte (anbiguoak) indarkeria terroristak beren bizitzetan izan zuen eraginari buruz –“Egia esan behar badut, nik oso gaizki pasa nuen. [...] Bizitza honetan izan dudan pozik handiena hartu zuen kontu hura amaitu zenean. Eta ez ni ezeren beldur nintzelako...” [G2]; “Askatasun osoz hitz egiteko beldur ginen” [G2]-. Adierazi dute, eta hori nabarmentzekoa iruditzen zaigu, garai batean Euskadin bizi zen gatazka- eta indarkeria-egoerak nolabaiteko errefusa edo urruntze-sentsazioa eragiten zuela jatorrira itzultzaren zirenean:

Rosario: *Aizu, oportetan zindoazenean ere sentitzen zenuen arbuioa. [...] Pistola poltsikoan gnuela joaten ginela uste zutelako.* **Maria:** *Nik sumatu dut haiek beldur zirela. Esaten ziguten nola bizi gintezkeen hemen.*

Rosario: *Bai, hori ere bai [G4].*

Nik gogoan dut oportetan herrira iristen ginenean galdetzen zutela: zer egiten dute euskaldunek hemen? Edo, hemen daude euskaldunak, esaten zuten. Hori esaten zuten nire herrian hara oportetan joaten ginenean [G5].

²¹ Angulo, op. cit.

Elkarrizketatutako pertsonetako batek, bertakoa, baina Gaztelako sustraiak dituen, hausnarketa interesgarria egin zigun kultura- edo jatorri-desberdintasunen ideologizazioak nola sordezaketen, egiaz, banaketa eta diskriminazioa, baina aipatu zigun, halaber, Ermua bezalako erdi tamainako herri batek efektu horiek murrizteko edo saihesteko aukerak ere eskaintzen dituela, aurrez aurreko harremanak lehenesten baitira:

Ni neure bizipenez mintzatzen ari naiz, eta ez dut estatistikarik ezta ezer ere, baina niri iruditu izan zait hemen, erdi tamainako herri batean, agian herria txikia bada dinamikek bestela funtzionatuko dute, baina, oro har, nik ezagutu dudak euskal jendeak maitasunez, normaltasunez eta arbuiorik gabe hartu gintuztela. Nik horrela bizi izan dut. Nik uste dut tratu edo harre-ra-sentsazio oso zentzuzkoa eta nahiko positiboa jaso dutela gehienek. Nik uste dut horrela izan dela. Beste kontu bat da gero, ideologizatzen denean eta alderdieren interes bihurtzen denean, beste diskurtso batzuk egiten hasten direla, eta beste errealitate sozial eta politiko batzuk sortzen hasten zirela. Izan ere, euskal jatorriko jendea bera, abizen euskaldunekoa nolabait esateko, arrazoi soziologikoak izaten hasten bada, inbaditu egiten gaituztela edo jada inork ez duela euskaraz hitz egiten, eta batzuek teorizatu egiten badute eta esaten hasten badira lanpostua kenduko digutela edo kultura aldatuko digutela eta ateoak direla katolikoak izan beharrean, orduan ideologizatzen hasten da eta tratu berdinen sentimendu pertsonaletik aldentzen den dinamika sortzen da [E5].

Eta, egia esan, oro har, azken emaitza izan da garaile atera direla aintzatespen- eta onarpen-dinamika zentripetoak, pertsona

ezagunen arteko harreman zehatzak, egunerokoak eta aurrez aurrekoak, sortutako ideologizazioaren ondoriozko joera zentrifugoen eta pertsonak estereotipatzen eta bereizten dituen abstrakzioaren gainetik. Elkarrizketatutako pertsonak guztiz “hemengoak” sentitzen dira, inolako zalantzarik gabe:

Ez duzu uste Leongoa zarenik, zure bizitza hau da. Hemengoak zarela iruditzen zaizu [G4].

Izan ere, hemengoak gara jada. Ni hemengoak naiz, nongoa izango naiz bada? 14 urterekin etorri ondoren, nongoa izango zara bada? [G5].

Rosario: Ni ere ez naiz hemengoak ez naizela, Leongoa naizela dioen horietakoa. Inola ere ez. Ni ez nintzateke herrira itzuliko bizitzera. **Maria:** Ez, ni ere ez. [...] **Maria:** Ondo dago egun batzuk pasatzera joateko beroa egiten duenean eta Aste Santuan. **Celes:** Hori da, giroz aldatzeko [G4].

Ez dakit gaizki esana edo ondo esana dagoen, baina niretzat hau bezala Extremadura ez. Oroitzapen polita dut, baina oso gutxi gogoratzen dut. Neskato bat nintzen etorri nintzenean. Nik ditudan oroitzapen guztiak hemengoak dira. Nire haurtzarokoak, nire gaztarokoak eta guztiak. Orduan, ni Extremadurara pozik joaten naiz, baina gero hona etortzen naizenean... [...] Oso pozik etortzen naiz. Harantz joaten naizenean baino gehiago. Horrelakoa da bizitza [G5].

Eta “hemengoak” izate hori, berentzat oso agerikoa dena, are nabariagoa da beren seme-alaben kasuan, ermuarrak baitira ondorio guztietarako:

Nik neure adibidea jarriko dizut. Niri Galizian lan on bat atera izan balitzait, seguru asko pentsatu gabe joango nintzatekeen. Hala ere, nire seme-alabei hara joateko esaten badiet, ziur naiz esango lidaketela joateko ni eta eurek hemen geratuko direla [G2].

Celes: *Nongoak dira nire seme-alabak? Ni Burgoskoa naiz, baina nire seme-alabak hemen jaio dira eta hemengoak dira. Niretzat, bizi izan zaren tokikoa zara, eta jendearekin zauden tokikoa. [...]* **Rosario:** *Oso euskaldunek igual esango dizute ez direla, ez dituztelako abizen guztiak euskaldunak. Baina hemen jaio dira, zer zerikusi dute abizenek? Begira, ni hemen bizi izan naiz 17 urte nituenetik, eta senarra 6 urte zituenetik. Eta nire seme-alabak hemen jaio dira.* **Celes:** *Ba hemengoak dira, zer jartzen du nortasun agirian? [G4].*

Orain arte azaldutako guztia –migrazio-esperientziaren hasieran izandako deserrotze-arazoak, gizarte-harremanak eraikitzea, espazio soziokultural berrian integratzea, ondorengo belaunaldien errealitatea– oso lotua dago **eskualdeetako etxeak edo zentroak** ezartzearekin. Ermuan badira edo izan dira Extremadurako Kultur Zentro bat²², Andaluziako Kultur Zentro bat, Gaztela eta Leongo Kultur Zentro bat, Gaztela-Mantxako Etxea eta horietan lehena, Ermuko Galiziako Zentroa, 1968ko ekainaren 3an sortua, Galiziatik etorritako 25 ermuarri esker, “que quixeron combatir a súa morriña”²³. Jatorri bera eta migrazio esperientzia bera partekatzen zuten pertsonen arteko topagune bat eraikitzeko beharretik sortuak, pertsona horien beren ekimena izan ziren, nahiz eta Ermuko Udalaren laguntza izan zuten.

²² Ermuko Extremadurako Kultur Zentroa. <https://www.extremadura.com/paginas/centro-cultural-extremeno-de-ermua>

²³ Ermuko Galiziako Zentroa. <http://arquivo.consellodacultura.gal/index.php/centro-gallego-de-ermua>

Hasi ginen, ehun edo ehun inguru ginen eta horretan hasi ginen... Gero, Gaztela-Mantxak dezente lagundu digu, eta Ermuko Udalak ere bai. Astebururo hemen egoten ginen arratsaldeetan; merendatzen genuen eta goizean ere trago bat hartzera etortzen ginen. Horixe da txoko batean, elkarte batean, egiten den bizitza. Gaztela-mantxarren kuadrilla handia ginen eta "aizu, zergatik ez dugu kultur etxe bat egiten?", "Ba, tira, goazen lokal bat bilatzera". Lokal bat begiratzan ibili ginen gorago eta gustatu zitzaigun, baina gero ikusi genuen hau ere eskuragarri zegoela, bestea baino askoz merkeago, eta baldintza hobeak zituen gainera. Eta elkartu egin ginen, esaten dizut, eta 80.000 pezetan inbertitu genituen, eta gero beste 10.000 gehiago mahai-tresnak erosteko. Guk 90.000 pezeta inguru ordaindu genuen bakoitzak [E1].

Manolo: Bai, galiziarrek elkartzeko eta biltzeko gune bat izatea. **Manuel:** Hori da. Behean bazegoen taberna bat martxan, baina hau ez zegoen egina. **Manolo:** Goiko aldean areto moduko bat zegoen eta behean taberna. Hori zen hasieran Galiziako Zentroa, egin zuten lehen gauza izan zen. Eta, ondoren, obra osoa egin da [G2].

Baina ez zituzten inoiz pentsatu eurentzako zentro itxi gisa, baizik eta Ermuko herritar guztientzako gune ireki gisa, herritarrekin partekatu nahi izan baitzuten beren kultura:

Epi: Kulturarako eta Gaztela eta Leongo Erkidegoaren ordezkari gisa Ermuan. Era guztietako jarduerak egiten ditugu. Adinekoentzako jarduerak egiten ditugu, desgaitasunak dituztenentzat, krosa... eta Ermuko

Erregeen kabalgata ere egiten aritu ginen geu bakarrik urte mordoxkan. Dena egiten genuen. Nire seme-ala-bak kabalgatan joaten ziren. Orain zentro guztiek egiten dute, baina garai hartan gu izan ginen aitzindariak hemen [G1].


Gonzalo: Baina bai, 500 familia baino gehiago. Ni sortzailea nintzen eta 200. bazkidea nintzen. **Manolo:** Dena den, Galiziako Xuntak ematen zizkigun datuen arabera, duela ez urte asko 300 inguru ginen. Izan ere, kontuan izan behar da guk hemen 60 kide zituen dantza taldea izan genuela. Kide kopuru izugarria zegoen. Eta futbol-taldea ere bagenuen. Kolektibo mordoa hartzen genituen. Eta kolektibo horiek bazkide gisa ere integratu genituen. Agian ez ziren bazkide eraginkorrak, baina bai bazkide kulturalak. **Gonzalo:** Momentu batean 100 kide inguru izan ziren dantza-taldean. **Manolo:** “Aíriños novos” izeneko emakume-taldea ere bagenuen. **Gonzalo:** 100 kide inguru zeuden musika arloan. **Jesus:** Gainera, urte asko daramatzagu hemen Ermuan jaiak egiten. Letra Galiziarren Jardunaldiak ospatzen, aurten 38. edizioa zela uste dut, edo hor nonbait. Izan ere, nik uste dut egiten ditugun jaiak herrian egiten diren hoberenetakoak direla. **Manolo:** Tira, bada gauza bat oso argi dagoena: Santixauen ondoren Letra Galiziarrek datoz, noski. Hori horrela da, ez du eztabaidarik [G2].

Rosario: Nik uste dut hasieran herrialde bakoitzeko jendea elkarren artean biltzen zirela asko. Baina orain desberdina da, hemen edonor sar baitaiteke. Euskalduna, galiziarra edo nahi duena egin daiteke bazkide.

Celes: Nik gogoan dut Galiziako Zentroa abian jarri zenean nire nagusia zegoela hasi zirenen artean, eta euskalduna zen. Esan nahi dut ez zirela bakarrik galiziarak. Kontua zen ireki ahal izatea eta jendea sartzea.

Rosario: Hemen hasieran edo senarra edo emaztea izan behar zuen. Bietako batek erdalduna izan behar zuen. Baina orain gero eta bazkide gutxiago dagoenez eta hau jada ez denez gauza bera... lehen inor ez baitzen joaten taberna batera orain bezala afaltzera. Hona txorizo pixka bat eta ogi pixka bat ekarri eta jan egiten genuen. Desberdina zen [G4].

Ni andaluziarra naiz, baina ezkondu nintzenean, emaztea Leongoa denez, hemen ibiltzen nintzen nire emaztearen lehengusu batzuekin. [...] Eta tabernetan bilerak egiten hasi ginen. Bileretako batean, batek esan zuen Gaztela eta Leongo batekin ezkondua zegoenak eskubide batzuk bai zituela baina beste batzuk ez. Orduan nik hartu eta esan nien ez kontatzeko nirekin, ni Zentroan sartzen banintzen beste guztien eskubide berberak izateko zela. [...] Eta horren ondoren, Zentroaren sortzailea naiz. Ilusioa? Kontua zen Gaztela eta Leongo kultura defendatzea [...]. Eta hau sortu genuenok nahi genuen kultura-mailan funtzionatzea, kultur, kirol eta bestelako jarduerak eginez. Eta horrela eman ditugu urte asko. [...] Nik berrogei urte daramatzat hemen [G1].



Iturria: Blanca Olañeta – Santixauak, 1980/07/24²⁴

Erakunde horiek emigratzaileen lurreratzeko pista gisa balio izan zuten bere garaian, soziabilitate-sareak mantentzeko edo erakitzeko gune gisa, eta elkarri laguntzeko bitarteko garrantzitsua izan ziren bizilekua edo enplegua lortzeko. Jatorrizko kulturen eta euskal kulturaren arteko zubiak ezartzeko ere balio izan zuten. Baina gaur egun krisi-egoeran daude, jada erretiratuak edo erretiratzeko adinetik gertu dabiltzan pertsonak daude zuzendaritza-batzordeetan, eta oso errelebo zaila dute; izan ere, belaunaldi berriek, sortu zituztenen seme-alabek edo bilobek ez dute horietan parte hartzen, edo, behintzat, ez modu berean²⁵. Horrela kontatzen ziguten hitz egin dugun pertsonak:

²⁴ Blanca Olañetaren argazki-bilduma. <https://www.ermua.eus/es/dosieres/coleccion-fotografias-blanca-olaneta>

²⁵ Sergio Llamas, "La falta de relevo generacional amenaza los centros regionales del País Vasco", *El Correo*, 2020/11/29. <https://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20101129/pvasco-espana/falta-relevo-generacional-amenaza-20101129.html>

Jende gehien zegoen tokia zen, eta horrela gauza gehiago egiten zenituen, Erregeen kabalgata eta horrelakoak. Baina ez zitzaien axola. Izan ere, horrelako gauzetara joaten jarraitzen dutenak zure senarraren adinekoak eta horrela dira. Adineko jendea. Gazte jenderik ez dago [G4].

Juan: Gazteak ez. **Alejandra:** Hor ditugu bazkide gisa, baina 18 urte betetzen dituztenean ez dute ezer jakin nahi. Bakoitzak bere gauzak ditu eta ez zaie gustatzen helduen kultura edo rolloa. **Antonio:** Eurek hemen jaio dira eta ohituta daude honetara. **Juan:** Baina ez dira inplikatzeko ez Extremadurako kulturari, ez Euskadikoan [G5].

Lehen jendea gehiago sartzen zen tartean. Baina gaur egun gazteak gehiago inplikatzeko dira beren familian [G4].

Garai batean oso ondo funtzionatzen zuten eta jardue-
ra asko egiten genituen. Asko parte hartzen genuen
Eskualdeen Egunean. Tokatzen zitzaion zentroak bere
inguruko talde bat ekartzen zuen. Oso polita izaten zen,
baina orain ez dira talde horiek ekartzen. Orain Udalak
antolatzen du eta hemengo jendea ekarri beharrean
kanpoko jendea ekartzen du. Brasildarrak, kubatarrak
eta horrelakoak. Asko aldatu da [G5].

Ezer ez. Jende gaztea jatera bakarrik etortzen da. Hau
kulturala zen, eta kultura, jende gazteari bost axola
zaio hau guztia [E1].

Dionisio: Etorkizuna, beltza. **Jose:** Bai, oso beltza [G1].

Baina integrazio-prozesuen arrakastaren seinale ere bada krisi hori: belaunaldi berriak ez daude erakunde horien mende, aurrekoek egin zuten bezala:

Juan: Gazteak ez. **Alejandra:** Hor ditugu bazkide gisa, baina 18 urte betetzen dituztenean ez dute ezer jakin nahi. Bakoitzak bere gauzak ditu eta ez zaie gustatzen helduen kultura edo rolloa. **Antonio:** Eurek hemen jaio dira eta ohituta daude honetara. **Juan:** Baina ez dira inplikatzeko ez Extremadurako kulturari, ez Euskadikoan. **Antonio:** Haiek beren kasa dabiltza. **Juan:** Ez zaie interesatzen gurasoen kultura, ezta beste eskualde batekoa ere. **Alejandra:** Baina ez dute interesik, adibidez, hemengo dantzetan ere. Nik alabari ez diot ikusten. Ezer ez, futbolaria. Eta semea ere ez diet ikusten. **Angela:** Nireak ere ez. Txikiak zirenean, neskek dantza egin dute, baina utzi egin dute. Egia esan, honek ez ditu batere erakartzen. Eta hori nire semea Extremadurako batekin ezkondua izanda, Los Santosekoa, eta asko joaten dira Extremadurara eta gustatzen zaie, baina... **Alejandra:** Nire seme-alabek ere ez dute Los Santosera edo Valverdera joateko gogo handirik. Ez dute gustuko Extremadurara joatea. Semeak karabana hartzen du eta Andaluziara joan zen batean etxean gelditu zen... **Antonio:** Gu han ginelako. Baina korrika atera ziren [G5].

Manuel: Zentroetan badago herrimin pixka bat, guk "morriña" deitzen dioguna. Baina ez da gauza bera han jaio denaren morriña hori eta seme-alabena. Hemen jaioak dira eta desberdina da. Zentroetan nahiko zaila izaten ari da belaunaldi-aldaketa. **Antonio:** Izan ere, gure seme-alabak jada ez dira galiziarak. Gure

seme-alabek euskara ikasten dute eta hemen integratuak sentitzen dira. Beraz, desberdina da. [...] **Gonzalo**: Izan ere, hemen hirugarren belaunaldian gaude eta laugarren belaunaldira goaz [G2].

Gonzalo: Eta beste era batean pentsatzen dute. **Manolo**: Eurek Galiziako kultura ez dute bizi. **Antonio**: Ez dute berdin bizi. Gutxi-asko gustatu dakieke, baina ez dute berdin bizi. **Manolo**: Galiziara joaten dira eta asko gustatzen zaie han egotea, baina gero kulturalki errotuago daude hemen. Logikoa denez. **Jesus**: Galiziara joaten dira, baina hona itzultzeko. **Manolo**: Noski, baina guztiz logikoa da hori. Badu bere logika. Eurek euskalduntzat hartzen dute beren burua. Izan ere, hala dira [G2].

Maria: Nire semeak asteburu bat hartu eta ospa egiten du. Eta orduan ezin dira horrelako leku batean egon. Lehen, aldiz, emakumeek agian ez zuten hainbeste lan egiten eta zure herritarrekin elkartzen zinen lekua zen. Jende gehien zenuen tokia zen. Eta aldi berean gauza gehiago egiten zenituen, Erregeek kabalgatak eta horrelakoak. Izan ere, horrelako gauzetara joaten jarraitzen dutenak zure senarraren adinekoak eta horrela dira, adineko jendea. Gazte jenderik ez dago. **Rosario**: Agian egun zehatz batean bai laguntzen dute. Aber, ez da gauza bera antolatzea edo laguntzea. Batek bere burua eskaintzen du antortxero gisa joateko. Tira, egun horretan antortxero gisa joango da, baina ez da gauza guztiak prestatzen aritu, horrek lan gehiago eskatzen baitizu. Paperak egin, dirulaguntzak eskatu eta horrelakoak. Adineko jendeak eramaten du hori guztia [G4].

Manuel: Nik uste dudan xehetasun batez ohartu behar gara. Denborarekin, galiziar beteranoek, sortzaileek hamar edo hogeit hamar urte gehiago izatean, nik jada ez ditut biziko, seme-alabek eta bilobek hau ez dute Galiziako zentro gisa izango. Txoko edo elkarte gastronomiko gisa erabiliko dute. **Gonzalo:** Beno, baina beti izango da aurretik kultur etxearen kontua, nahiz eta gero beste era batean erabili [G2].

Bide hori da eskualdeko etxeen gainbehera geldiarazteko aukera gisa ikusten dena, zentroak txoko edo elkarte gastronomiko bihurtzeko aukera, baina galdu gabe, hori da behintzat beren ilusioa, jatorrizko kulturarekin duten lotura.

Haiek jada elkarte gastronomiko gisa bideratzen dute hau [G2].

Manolo: Noski, belaunaldi berriak batez ere hau txokoa edo horrelako zerbait balitz bezala erabil dezaketelako etorriko dira hona. Gazte jendea hori egiten ari da dagoeneko. **Gonzalo:** Baina hala ere jende gazteak asko errespetatzen du kultura. [G2].

Nik uste dut gaur egun erabat birdefinitu beharko liratekeela Galiziako Etxeak eta Galiziako Zentroak. Eta hori diot aipatzen ari garen arrazoiarengatik, gure seme-alabak hemen integratuak baitaude. Honi buelta bat eman beharko litzaioke. Ez dakit ondo azaltzen ari naizen. Mantendu dadila kulturaren funtsa, baina buelta bat eman atzetik datorkigunean oinarrituta, etorkizuneko belaunaldiei begira [G2].

3.3. ENPLEGUA

Aurreko azterlanetan aztertu dugun bezala²⁶, arrazoi ekonomikoak izan zituzten XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadaren eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren artean Espainiako beste probintzia batzuetatik Euskadira milaka pertsona ekarri zituzten migrazio-mugimenduek. Alde horretatik, ez ziren izan garai berean milaka espainiar Alemaniara, Frantziara edo Suitzara eraman zituzten beste migrazio-prozesu batzuen desberdinak²⁷, herrialde horiek hazkunde ekonomiko handia izan baitzuten Espainiaren atzerapenarekin alderatuta. Bestalde, industriak garapen handiagoa izan zuen Madrilén, Katalunian edo Euskal Autonomia Erkidegoan, Galizia, Andaluzia, Extremadura edo Gaztela bezalako eskualdeekin alderatuta. Horiexek izan ziren milaka pertsona haiek bizilekuz aldatzeko arrazoia, etorkizun oparoagoa bilatzen baitzuten eurentzat eta euren seme-alabentzat, dimentsio anitzeko gizarte-eraldaketako prozesu sakon eta bizkorrean murgilduta zegoen herrialde batean, Espainian²⁸.

Nire aitaren familian bost anaia ziren eta bostetatik bakarra geratu zen herrian. Beno, bat eta denbora batez, hura ere hemen egon baitzen. Hura izan zen etorri eta laster itzuli zen bakarra. Txikiena zen. Beste guztiak Alemanian edo hemen Bilbon izan dira. Beno, edo Er-

²⁶ Luis Castells et al., *Las migraciones internas y su aportación al desarrollo de Gipuzkoa (1950-1975)*, Ramón Rubial Fundazioa, 2018. <https://www.gipuzkoa.eus/documents/4558908/0/2018101712533+-+Las+migraciones+Internas+y+su+aportaci%C3%B3n4.pdf/35660a65-620b-2754-e8da-eb6b37059920> ; Luis Castells et al., *Migraciones internas y su aportación al desarrollo de Bizkaia (1950-1980)*, Ramón Rubial Fundazioa, 2020. <http://www.ramonrubial.com/images/MigracionesBizkaia.pdf>

²⁷ Laura Oso Casas (Dir.), *Trans-ciudadanos: Hijos de la emigración española en Francia*, Francisco Largo caballero Fundazioa, Madril, 2007; Alicia Alted Vigil eta Almudena Asenjo (koord.), *De la España que emigra a la España que acoge*, Francisco Largo Caballero Fundazioa, Madril, 2006.

²⁸ José Félix Tezanos, "Cambio social y modernización en la España actual", *Revisita Española de Investigaciones Sociológicas*, 28. zk., 1994, 19-61. or.

muan. Etxe txiki batean bizi ziren, eta zituzten lurrek ez zuten denentzat adina ematen. Bakoitzak bere aldetik bilatu behar zuen bizimodua. Orduan, boom bat izan zen, jende asko hasi zen kanpora joaten bizimodua ateratzeko, eta aitag ez zuen bi aldiz pentsatu [G2].

Espainia, 1959ko Egonkortze Planarekin, Estatuak zuzendutako industrializazio-prozesu desberdinean murgildu baino askoz lehenago, Bizkaia eta Gipuzkoaren mesederako izan zena (Espainiako Bankuak berriki egindako ikerketa baten arabera, bi lurralde horiek lortu zuten hazkunde-primarekin % 80 baino gehiago igo zen per capita BPGd, Espainiako gainerako probintzien batez bestekoaren ia bikoitza), Ermuak manufaktura-oinarri garrantzitsua zuen, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera tradizionalekin batera²⁹. Elkarriketatutakoetako batek honela gogoratzen du industriaren eta nekazaritzaren errealitate misto hura:

Beraz, burdinaren eraldaketarekin eta armen salmentarekin lotutako industria-sarea aspalditik bizi izan dugu hemen. [...] Dualtasuna geneukan ekoizten zenari dagokionez. Alde batetik, baserrietako nekazaritza-ekonomia zegoen, bizirauteko ekonomia, eta, bestetik, armen ekoizpena eta salmenta eta burdinaren eraldaketa. Ideia bat izan dezazun, nik umetan ezagutu nuen Ermuan... aitag baserri bat zuelako eta amak etxe bat. Bata bestearen aurrean zeuden, udaletxetik gertu. Eta nire aitag ukuilua zuen animaliekin bere etxeko beheko solairuan. Nire amaren familiak, berriz, armak egiteko tailer bat zuen. Ermuko etxe guztiak horrelakoak ziren. [...] Armen ekoizpena artisauen bidez antolatua zegoen eta bakoitza gauza batean espezia-

²⁹ Jon Obaldia Undurraga, *Industria, demografía y urbanismo en Ermua. Aproximación a la realidad industrial de la villa desde su surgimiento hasta hoy día*, Ermuko Udala, 2018, 14. or.

lizatua zegoen. Batek kanoia egiten zizun, beste batek gogortasuna ematen zekien, beste batek tiro egiteko kaxa egiten zizun eta besteak kulata. Bakoitzak zati bat egiten zuen eta norbaitek muntatu eta saldu egiten zuen. Eta hori horrela izan zen 1900eko sozialista eibartarrak iritsi ziren arte, oso bizkorrak baitziren. Euren fabriken bidez muntatu zuten ekoizpena, eta artisau guztiak elkartu zituzten. Handik aurrera, bakoitzak bere etxean ekoiztu beharrean, fabriketan egiten zen. Ford autoak muntatzen hasi zen bezala, arma fabrika oso indartsuak muntatzen hasi ziren hemen, Orbea eta beste asko [E5].

Izan ere, Ermua bezalako herri bat, manufaktura-tradizio handikoa eta enpresen ezarpena mugatuko zuen hiri-plangintzarik ez zuena, lurralde oso egokia zen industria garatzeko, bai endogeneoa, bai ondoko Eibartik etor zitekeena. Administratiboki Bizkaiko lurralde historikoan egon arren, Debarreneneko eskualdeak zuenaren berdina zen Ermuaren industria-eredua³⁰. Eredu hark lan asko eskatu zuen, eta eskari hari erantzuteko immigrazioa jo behar izan zen:

Nik bizi izan dudanez eta urte haietaz entzun dudanez, biztanle-kopuruari dagokionez hazkunde izugarria izan zuen Ermuak [...]. Eta hazkunde hori, batez ere, Ermuaren beraren eta Eibarren bultzadari esker gertatu zen. Hazkunde ekonomiko oso handia izan zuen, enpresek eragina, eta enpresen eskariari erantzuteko behar adina eskulan ez zegoen herrietan bizi zen jendearekin. Eta gertatu zena izan zen enpresek berek

³⁰ Ricardo Aláez Aller, Javier Bilbao Ubillos eta Jon Olaskoaga Larrauri, "La instrumentalización comarcal de iniciativas locales de revitalización económica: el caso del Bajo Deba", *Revista de Dirección y Administración de Empresas*, 8. zk., 2000, 119-145. or.

animatu egiten zituztela beste eskualde batzuetatik etorri ziren langileak, batez ere Andaluziatik, Extremaduratik eta Galiziatik lehen belaunaldi haietan, senideak ere ekar zituzaten hona lan egitera, prestakuntza handiagoarekin edo txikiagoarekin, Ermuko enpresa-sareari erantzun ahal izateko. Orduan hasi ziren pertsona-uholdeak etortzen, nolabait esatearren, emigrante galiziarrek, andaluziarrek, extremadurarrak eta abar. Industriak izan zuen hazkundeak eragin zuen eskari hori, kasu batzuetan Ermuan eta beste batzuetan Eibarren. Nire ustez, horiek dira biztanleria hain azkar haztea eragin zuten elementuak [E7].

Gehienak etorkinak ziren, noski, Ermuan ez baitzegoen horretarako behar adina jende. Nik txikitan Ermuaz dudan oroitzapena... nahiz eta ordurako kanpoko jendea etortzen hasia zen, baina Ermua oso txikia zen [E4].

Nik denbora gehien eman dudan enpresan, hogeita zazpi urte egin baintuen, benetan uste dut jabeak eta beste lau kenduta, gainerakoak kanpotarrak ginela. Baziren Extremadurakoak, Andaluziakoak eta Galiziakoak, beti gehiengo ginenak. Baina herri honek alde guztietako jendea du [G2].

Izan ere, elkarriketatutako pertsonak, bai emakumeek, bai gizonek, azaldu diguten esperientzia da izugarri lan-eskaintza handia zegoela, eskaria baino askoz ere handiagoa. Gaur egun pentsaezina den irudi bat gogoan dute elkarriketatutako hainbat pertsonak, hauxe da, enpresaburuak tren-geltokian zain iritsi berriak errekrutatzeke:

Angela: Aitak esaten zuen enpresaburuak geltokietara joaten zirela jendea hartzera lan egiteko. **Juan:**

Horretaz gogoratzen naiz ni. Autobusetan oporretan etortzen zirenean. Han zenbat irabazten zuten galdetzen zieten eta bi pezeta gehiago emango zizkietela esaten zieten. **Antonio:** Bai, jende gehiago hartzera joaten ziren. **Angela:** Hori esaten zuen nire aitak. Gel-tokira iritsi zenean enpresaburuak omen zeuden han zertan lan egin nahi zuten ikusteko [G5].

Eta deigarria egiten zitzaien trenean iritsi bezain laster enpresaburuak... orain enpresaburu esaten zaiona, garai hartan enpresetako nagusiak edo jabeak baitziren. Beno, geltokian egoten ziren, trenetik jaitsi bezain laster, nasan, enpresaburuetako batzuk gurasoengana joaten ziren eta baimena eskatzen zieten hurrengo egunean enpresan has zitezen. Begira, orain bezala [E6].

Horrek esan nahi du aukera ugari zituztela lan bila zebiltzan pertsonak, eta lanpostua aukeratu edo nahiko erraz aldatu zezaketela:

Lan asko zegoen garai haietan [G1].

Enpresa guztiak hemen zeuden. Gero banatu egin dira eta asko kanpora joan dira, baina orduan askoz ere lan gehiago zegoen [G5].

Lanean hasi nintzen, lana bai baitzegoen laguntzaile izateko edo edozertarako. Egin nahi zenuen horretan egiten zenuen lan. Eta hala hasi ginen. Gero, hemen zebiltzan herritarrak ezagutzen joan ginen eta gero andregaia ere ezagutu nuen eta ezkondu egin nintzen. Lan asko eginez eta geure bizimodua atereaz [G5].

Nik hainbat enpresatan egin dut lan [G1].

Bai, hori esan behar nizun, ni igandeetan ere joan izan naiz lanera Jacinto Alcortara plantxak egitera. Igandean 25 pezeta ematen zituzten. Horixe ordaintzen zidaten igandean, goizean lanera joanda [G5].

Zazpi lagun etorri ginen elkarrekin. Batzuk alde batean sartu ziren eta besteak bestean [G1].

Neraman guztia hartu eta hona etorri nintzen. Lagun batekin egon nintzen eta galdetu nion ea lana zegoen bera ari zen lekuan. Baietz esan zidan, primeran zetorkiola. Eta joan eta tratua egin nuen harekin, honenbestean eginiko lana zen. Horretaz ba ote nekien galdetu zidan, eta zerbait ulertzen nuela esan nion, eta ikusiko zuela berak [G1].

Niri beti gustatu izan zait lan egitea, eta lana ez zen falta. Hemen edozein egunetan plazara paseatzera ateratzen bazinen, zazpi edo zortzi etor zitezkeen lan egin nahi zenuen galdetzera [G1].

Etorri bezain laster osabarekin egon nintzen, bera hemen ari baitzen lanean, eta lan bila joan ginen. Leku pare batera joan ginen, eta haietako batean atera zitzaidan lana, Victor Sarasquetan, eta han aritu nintzen. Han lanean hasi nintzen egun berean beste bi lan atera zitzaizkidan, fruta-denda batean eta beste leku batean. Baina osabak esan zidan bestea hobe zela, Victor Sarasquetakoa, eta bi urte eman nituen han lanean [G1].

Eta orduan berarekin hitz egin nuen eta esan nion diru gehiago ematen ez bazidan joan egingo nintzela. Eta ofizial jarriko ninduela esan zidan, peoia bainintzen [G1].

Kiniela tokatu zitzaigun lagun bati eta niri 14 erantzun zuzenekin, eta 33.000 pezeta kobratu genituen, biontzat, e! Erdibana zen. Eta nik torlojutegikoari esan nion “begira Juan”, Juan zuen izena, “herrira joan behar dut nire gurasoak ikustera”, Gabonak zirelako, eta esan zidan “ezin duzu alde egin, lan asko baitugu, eta ezin duzu alde egin”. Eta orduan lana eskatu nuen –alde egin aurretik, e!– Nik alde egin aurretik beste lan bat eskatu nuen, garai hartan lan asko baitzegoen, lana bilatzeko aukera zegoen. Hiru lantegira iritsi nintzen, eta tornuan lan egiteko proba egin zidaten, eta esan zidaten “nahi duzunean etor zaitezke lanera”, “Ba begira, hilaren 2 edo 3ra arte ezin naiz etorri, herrira joan behar dudalako”, “Ez dago arazorik. Hilaren 3an etorri orduan hona lanera”. Eta halaxe izan zen [E1].

Nik ikasteari utzi egin behar izan nion aita hil zitzaidanean, eta Cuchillería del Norte fabrikan hasi nintzen lanean. Jada ez dago. Hogeita zazpi urte eman nituen han, eta gero beste bizpahiru enpresatan lan egin nuen [G2].

Zortea genuen lana zegoelako. Eta gustatzen ez bazitzaizun, beste norabait joaten zinen. Baina ez zizuten ezer ematen [G5].

Eskulanaren eskaria hain zen handia, ezen “dei-efektua” edo kate-immigrazioa gertatzen baitzen, migrazio-prozesu handi guztietan bezala egia esan, bai iraganean, bai gaur egun. *Stock-effect*³¹ esaten zaio horri, eta leku jakin batera iritsi diren etorkinen esperientziak (esperientzia ona) jatorrizko tokiko herrikideengan duen eragina adierazten du:

³¹ Joaquín Arango, “Las «leyes de las migraciones» de E.G. Ravenstein, cien años después”, *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 32. zk., 1985, 19. or.

*Badakizu zer egiten zen urte haietan, lehenengo fami-
liako kide bat etortzen zen eta gero gainerakoak iris-
ten ziren. Anai-arrebak eta gainerakoak etortzen ziren.
Zazpi anai-arrebetatik, nik uste dut hona etorri zirela
guztiak, Ermura. Batzuk denbora batez egon ziren he-
men eta gero joan egin ziren eta beste batzuk hemen
hil dira [G2].*

*Jendea etortzen zen lan asko zegoelako. Ez bakarrik
Ermuan, baita Eibarren, Elgoibarren eta inguru hone-
tan guztian. Orduan, senar-emazte batzuk etortzen
ziren, eta hurrengo asteburuan anaia etortzen zen.
Hemen lana zegoela ikusten zuten eta beren jendeari
deitzen zioten. Gogoan ditut hiru familia zeudela etxe
batzuetan. Izugarria zen. Izan ere, hasieran, ahal zuten
tokian hartzen zuten ostatu, tokia aurkitzen zuten le-
kuan [E4].*

*Oporretan joaten ginenean, nagusiak esaten zigun ea
anaiarik edo lehengusurik bagenuen. Niri hori askotan
esan didate, senide bat edo herriko lagun bat ekartze-
ko [G5].*

*Nire gurasoek arreba bat zuten hemen, eta haren bi-
tarteaz etorri zen lehenik aita eta gero denak, nire ama
eta bi anaiak [G5].*

*Lankide gehienak lehen immigrazioaren seme-alabak
dira. Hau da, esan duzuen bezala, normalean gizonak
etortzen ziren, lana aurkitzen zuten eta gero familia
ekartzen zuten [E6].*

*Santiago de Compostelakoa naiz ni, eta han
ile-apainketan hasi nintzen. Hona etorri nintzen han*

lanik ez nuelako. Durangon zegoen koinatu batek deitu zidan eta esan zidan, nire arloan ez bazen, bera zegoen enpresan has nintekeela lanean [G2].

Gu etorri ginen osaba jada hemen ari zelako lanean. Extremadurara joan zen oporretan eta esan zuen nekatoak ekarri behar zituela, eta nire ahizpa zaharrena eta bi lehengusina ekarri zituen. Eta gero nire ahizpa joan zen oporretan sei hilabetera, eta nire anaia ekarri zuen. Eta gero aita etorri zen begiratzera, esan baitzuen bera ez zela han egongo seme-alabak etxetik kanpo izanda. Amari esan zion garia eta garagarra saltzeko eta Euskal Herrira gindoazela [G5].

Manolo: Gauza bitxi bat gertatu da hemen. Ermuan dauden galiziarren % 90 edo % 95 Ourensetik datoz. Badakizu zergatik? Familiaren dei-efektuagatik. Lehen esan dizut lehenengo aita etorri zela eta gero bere anaia guztiak etorri zirela. Era batean edo bestean denak hemen izan dira, nahiz eta baten bat Galiziara itzuli den. Baina bat joan eta herriko guztiak ekartzen zituen. Familia etortzen zen, bai eta bizilagunak ere.

Antonio: Horixe da orain marokoarrekin gertatzen ari dena [G2].

Familiako bat etortzen zen lehenengo eta gero besteak. Ez dakit zer abizen zituzten, baina gutxienez bi adarrek lan egin zuten tailerrean. Anaia guztiak igaro ziren handik [E9].

Oso interesgarria da kontuan hartzea emakume **ermuar askok lan egin zutela enpresa eta tailer industrialetan**, eta hori ez

zen hain ohikoa izan garai hartako industria bizkaitar handian³². Ikerketa hau egiteko elkarrizketatu ditugun emakumeek kontatu dizkiguten esperientziak bat datoz *Sin las mujeres, Eibar no sería lo que es. Huellas de las mujeres en el proceso de industrialización de Eibar*³³ izeneko argitalpenean jasotakoarekin. Elkarrizketatutako emakumeren batek gogoratzen badu ere kultura patriarkalak produkzio-jardueretatik kanpo uzten zituela eta etxeko lanetara mugatu nahi zituela – “Gogoan dut amari esaten nionean ez nuela problema bat ulertzen, ea azalduko ote zidan, eta hark erantzuten zidan josten eta brodatzen jakitearekin nahikoa nuela. Pentsamolde hori zegoen” [G4]– gehiengoa dira lan-bizitza industria-sektorean izan dutenak:

Tailer batean ere aritu nintzen lanean, Coletajes Blancon, zortzi urte edo. Eta senarrak lan egiten zuen tokoa ere itxi egin zutenez, Mallabiara joan ginen. Ez naiz gogoratzen tailerra nola deitzen zen, baina han egon ginen beste sei edo zazpi urtez. Eta gero kafetegi bateko sukaldean lan egin dut, egun erdiz, erretiroa hartu nuen arte [G4].

Hona iritsi nintzenean lan bila atera nintzen eta Jacinto Alcortan hartu ninduten plantxetarako. Bost urte eman nituen han. Gero beste tailer batera joan nintzen, Claudio San Martinera, mila pezeta gehiago irabaziz [G5].

Gero, aitaren bitartez, Trust Eibarrés lantokiko buruzagiak ezagutzen baitzituen, non kartutxoak egiten ziren (El Carmen kalean zegoen, behe-behean) taile-

³² Deigarria da gaur egun Debabarreneko industria-sektorean emakumeen presentzia handiagoa eskatzea: Alberto Echaluze, “Necesitamos la fuerza de la mujer en la industria del Bajo Deba”, *El Correo*, 2018/10/02. <https://www.elcorreo.com/gipuzkoa/necesitamos-fuerza-mujer-20181003205112-nt.html>

³³ Zaida Fernández Pérez, Savina Lafita Solé eta Luz Maceira Ochoa, *Eibar no sería lo que es. Huellas de las mujeres en el proceso de industrialización de Eibar*, Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzua, 2016.

rrean sartu eta han egon nintzen ezkondu nintzen arte. Denak emakumeak ginen eta oso giro polita zegoen. Tailer haren oroitzapen asko eta oso politikak ditut. Hirurogeita hamar pertsona inguru ginen, eta denak emakumeak ginen, arduraduna eta beste bi gizon izan ezik [G5].

Bai, gurean muntaketan aritzen ziren, trebetasun handiagoa zutelako. Batez ere pinoietan izaten zen, eta esku hobea zuten. Cuchillería del Norte lantokian ere emakume dezente zegoen. Baita DOMACOn ere, Domingo Achan. Haiek denetik pixka bat egiten zuten, baita jostailuak ere, patinak egiten zituzten. Eta pisto-lak eta errebolberrak. Hainbat gauza egiten zituzten. Eta han ere emakume askok egiten zuten lan. Esan dizudan bezala, gurean ere emakume dezente aritzen ziren muntaketan [E9].

Ba gu tailer guztietara joan ginen lan bila hona etorri ginenean. Eta Jatara iritsi ginen. Hiru geunden eta nagusia atera zen eskuak atzean zituela. Begiratu zigun eta buelta emanarazi zigun. Hortzak begiratzea besterik ez zitzaion falta izan. Barrura sartu zen, eta gero Maitek, harreraren zegoen neskak, deitu eta esan zigun hartuko zituztela beltzaran hori, ni nintzen, eta beste bat. Hirurotatik bi hartu gintuzten, nirekin zihoan lehengusina bat ez zuten hartu. Eta han hasi ginen lanean. Egiten ziren kafe-makinak margotzen genituen eta plantxak egiten genituen. Gauza horiek guztiak egiten ikasi genuen. Oso giro polita zegoen eta oso ondo konpontzen nintzen han geunden guztiakin. Gogoan dut lehen egunean amak ogitartekoa jarri zidala eta niri lotsa handia ematen zidala jateak. Gose handia

nuen arren, ez nuen jan lotsagatik. Eta gero Matsariara bidean jan nuen ogitartekoa [G5].

Kasu batzuetan, industriakoak ez diren sektoreetan lan egin ondoren etorri zen tailerretako enplegua, hala nola merkataritzan:

Ni supermerkatu batean hasi nintzen San Lorentzon, baina han urtebete besterik ez nuen egin. Gero lehen-gusinak mekanizatuen tailer bat aurkitu zidan Eibarren. Gero hura itxi egin zuten eta beste batera joan nintzen, eta hura ere itxi egin zuten. Azkenean, mekanizatuen beste batean bukatu nuen. Ni beti egon naiz tailerretan [G4].

Ni, lehenik, kortseteria batean aritu nintzen lanean, makina batekin ehuntzen. Han egon nintzen urte batzuk. [...] Eta han asko ikasi nuen kortseteriaz eta horretaz guztiaz. Mandatari lanak ere egiten nituen. Jertsea egiten nuen, paketetxoa egiten nuen eta etxeetara eramaten nituen. Etxeetan paketea entregatzen nuenean beti ematen zidaten eskupeko txiki bat. Gero, aitaren bitartez, Trust Eibarrés lantokiko buruzagiak ezagutzen baitzituen, non kartutxoak egiten ziren (El Carmen kalean zegoen, behe-behean) tailerrean sartu eta han egon nintzen ezkondu nintzen arte [G5].

Tailer batzuentzat etxetik bertatik lan egiteko esperientziak ere badaude:

Gero, esan dizudan bezala, Claudio San Martinera joan nintzen, nire ahizpak lan egiten zuen lekura, mila pezeta gehiago ematen baitzizkidaten. Eta han aritu nintzen ezkondu arte. Eztei-bidaiaetik bueltan galdetu zidaten ea lan egin nahi nuen. Eta, honek dioen be-

zala, jada loditua nengoenez, Claudiori esan nion ez nekiela haurdun ote nengoen. Izan ere, jendeak gaizki hartzen duenez, pentsatu nuen ea gizonak hartu egiten ninduen... baina berak esan zidan, hain zintzoa izan nintzenez, etxerako lana emango zidala. Kartoi-zko kaxa txiki batzuei grapak jartzea zen. Eta nik nire bi seme-alabak izan nituen eta kaxatxoei grapak jartzen jarraitzen nuen [G5].

Beste kasu batzuetan, berriz, merkataritza-sektorean izan dute lan-esperientzia luzea:

Nik okindegi batean lan egin dut 14 urterekin hasi nintzenetik erretiroa hartu arte. Berrogeita zortzi urte eman nituen han, erraz esaten da [G4].

Nolanahi ere, etxetik kanpo eta etxe barruan lan egiten eman dute bizitza, sakrifizio eta entregako bizitzak, eta haiek gabe Ermua ere ez litzateke gaur egun den bezalakoa izango.

3.4. LAN-BALDINTZAK

Elkarriketatutako pertsona batzuek gogora ekarri dute oso lan-baldintza gogorrak izaten zituztela: ordutegi luzeak (igan-deak barne), soldata txikiak, buru-belarri lanean, zarata.

Hori 72an izan zen. Hark hil egingo ninduela uste nuen nik. Zarata ikaragarria zegoen eta denbora guztian solairua gora eta solairua behera. [...] Hogeitabat egunen buruan ikusi nuen hura ez zela niretzat. Izan ere, nik egunero hamar ordu egiten nituen eta larunbatetan

goizez. 8.000 pezeta irabazten nituen eta ostalertsak 7.000 eramaten zizkidan. Pentsatu nuen hura ez zela bizia [G1].

Juan: Eta diru aldetik hori, esan dizudana, lan egiten zenuena irabazten zenuen. Lan asko egiten bazenuen, asko irabazten zenuen. **Antonio:** Asko ez, irabazi egiten zenuen. Izan ere, orduan ere... [G5].

Imigas fabrika hasi nintzen, baina hura erotzekoa zen, han zegoen zaratarekin eta guztiarekin [G1].

Ni arotza nintzen eta jartzen nituen ateen edo oholtzaren metroen arabera hainbeste irabazten nuen. As-telehenean Zarautzera joaten nintzen eta hotel batean lo egiten genuen. Bazkaldu eta afaldu ere hantxe egiten genuen. Eta goizean 7:30ean edo 8:00etan lanera, gaueko 20:00ak edo 21:00ak arte. Bai, irabazten genuen, baina aste osoa ematen nuen etxetik kanpo nire neskatoak txikiak zirela. Baina tira... [G5].

Eta galdetu nien ea ez zegoen diru gehiago lan hartarako eta ezetz esan zidaten. Orduan, esan nien esateko gerenteari jaisteko eta abeillanatzeko berak. Gero arte. Eta jertsea hartu eta alde egin nuen [G1].

Berrogeita lau urte eman nituen han buru-belarri, euriarekin, elurrarekin eta hotzarekin [G1].

Antonio: Lehen ordu asko sartzen ziren. Lan egin nahi zuenak ordu asko sartzen zituen. Asko. **Angela:** Larunbat ingelesa. Han ez zegoen ez larunbatik ez ezer. Igandeetan ere joaten ginen. **Alejandra:** Hori esan behar nizun, ni igandeetan ere joan naiz lanera Jacinto Alcortara plantxak egitera. Igandean 25 pezeta ema-

ten zituzten. Horixe ordaintzen zidaten niri igandean, goizean lanera joanda [G5].

Baina beren lan-esperientziaren oroitzapen ona dute gehienek. Esperientzia hori, bizitza materialki ateratzeko bidea izateaz gain, harremanen alderditik gogoratzen dute bereziki, adiskidetasun- eta laguntasun-esparru gisa. Aurreko atalean jasotako mintzaldien eta elkarrizketen zati askotan egiaztatu dugun bezala, langileek, gizonak zein emakumeek, “tailerra” esaten diete lantokiei, eta hitz horrek, “fabrika” edo “enpresa” hitzek ez bezala, hurbiltasun-oihartzunak ditu, artisau-lanbidearenak:

Tailerra, guk hala deitzen genion fabrikari... hemen ez baitziren fabrikak, ezta ekoizpen-plantak ere, hemen tailerrak ziren. Ehunka laguneko enpresa batean lanean ari bazara ere, tailerra izaten jarraituko du. [...] Niri gogoan betiko geratu zaidan gauzetako bat da, errespetu osoz esanda, maila txikieneko langileei ere entzuten zeniela “beren” tailerraz hitz egiten [...] Gazteek jada ez, baina lehengoek eta erretiratuek “tailerra” deitzen diote oraindik ere, nahiz eta 600 pertsona aritu han lanean. Guretzat familiaren zati bat bezala zen tailerra, guztia zen, eta haren gainean bideratzen zen familia-bizitza osoa [E6].

Gogoan dut askariak egiten zirela oraindik. Oroitzen naiz gure tailerrean ia amaierara arte ospatzen zela norbaiten urtebetetzea zenean. Paketeria bidaltzeko lan-mahaian papera jartzen zen, eta latak, txorizoa, ardoa eta dena delakoa ateratzen ziren lanaldia amaitzean, eta hantxe jaten genuen mokadutxoa. Hori 90ean egiten zen oraindik [E9].

Elkarrizketatuetako batek nabarmendu du laneko harreman sozialen bizipen berezi hori. Bilbo inguruan eta Espainiako iparraldeko beste hainbat lekutan lan-esperientzia handia izan ondoren iritsi zen Ermura:

[...] lan-mota eta enpresa-mota oso desberdinak ziren. [...] Ni harritu egin ninduen jendeak zuen harreman-motak. Nire aurreko lanean Bilboko jendea ezagutzen nuen eta Kantabriara ere mugitu behar nuen pixka bat. Batzuetan Burgosera, Mirandara eta Castejonera ere joaten nintzen, baina ez nuen oso harreman pertsonalik jendearekin. Baina Ermuaren kasuan, denak hor baitzeuden fisikoki, denak ezagutzen nituen, eta denak agurtu nituen iritsi nintzenean, joan naizenean agurtu ditudan bezalaxe [E8].

Harreman hierarkikoak, bertikalak, enpresaren barruan eta lalnaldian; harreman horizontalak fabrikatik kanpo, eguneroko bizitzan, kuadrillan eta txikiteoan:

Oso harreman hierarkikoa zegoen. Industria-enpresez ari gara. [...] Enpresetako harremana hierarkikoa zen; izan ere, bazegoen bat erabakiak hartzen zituena eta bestea gauzatzen zituena. Ikuspegi horretatik, industria-enpresa tradizionalak ziren. Nik ez dut gogoan Ermuako kooperatibak edo horrelakorik zegoenik. Eta egia da, halaber, behetik gora jaio zirenez, harreman pertsonalean ez zela arraroa jendearen kuadrilletan nagusia eta langilea elkarrekin ardoak edaten ikustea. Ez ziren kapital handiko enpresak, non agintariak Neguriri bizi ziren eta langileak Ezkerraldean bizi ziren. Denak herri berean bizi ziren eta herri berekoak ziren. Izan ere, txikiak zirenean elkarrekin jokatu dute pilotan

auzo beretan. Gero batzuek modu batean eta besteek beste batean eboluzionatu dute, baina egia da harreman pertsonala hurbilagoa zela. Etxe beretan bizi zirelako. Tira, maila ekonomikoak desberdinak ziren eta klase sozialak ere bai, baina harreman askoz ere hurbilagoa zegoen. Eta ohikoa zen txikiteroen kuadrilletan, gaur egun desagertzen ari dena, maila desberdinetako jendea zegoela ikustea, peoiak edo teknikariak, eta baita jabea bera ere [E7].

Harreman handia zegoen jendearen artean. Eta hori agian aldatzen ari da lan-munduan. Lanean zituzten harremanak ez ziren lankideenak bakarrik, ia lagunekin baizik. Adibidez, urtebetetzeak ospatzeko gauzak ekartzen zituzten edo elkarrekin joaten ziren bidaian. Orain faltan botatzen den gauza bat da orduan Gabonetan bazkaria egiten zela langile guztiekin. Leku bat bilatu behar zen 300ak sartzeko. Baina hori gero eta zailago bihurtu zen. Eta hainbat arrazoiengatik egiteari utzi zitzaionean, batez ere antolatzeke zailtasunagatik, jendeak faltan botatzen zuen. Orduan denak berdinak ginen bilera haietan. Jende askok esan dit hori. [...] Erantzukizunak genituen profesionalak ginen, baina kudeaketa-estilo oso hurbilekoak. Irmoa izan behar denean, hala izan behar da, baina hurbiltasunez betiere [E8].

Eta enpresaburuari ere interesatzen zitzaion langileekin harreman ona izatea, langile-eskaintza baino eskari handiagoa baitzegoen. Orduan, hori interesatzen zitzaion beste leku batera joan ez zitezen. Gehiago ordaintzen bazioten, beste batera joaten baitziren. Gainera, enpresak bata bestearen aurrean zeuden

eta elkar ezagutzen zuten. Orduan, nik uste dut alde horretatik nola lotu jakin behar zela. Orain, agian, eskulan kualifikatu pixka bat falta da, baina lana jaitsi zen garaietan, hainbat krisi egon baitira, lan-eskaintza handiagoa zen eskaria baino. Baina urte haietan, enpresaburua bertakoa izaten zenez, kalean ikustea-gatik eta leku berberetan egoteagatik... taberna batera joaten zinen eta hantxe egoten ziren langileak. Hasiera batean hala zen [E9].

Beti izan dira onak. Enpresako ordezkaria izanda ere, ni hala bainintzen [...], harreman ona nuen nagusiekin [G1].

Ni neure nagusiarekin familiakoa bezala nintzen ia. Bergarara bere etxera gonbidatzen gintuen eta elkarrekin bazkaltzen genuen [G5].

Tira, jabea eta nagusia jabea eta nagusia dira beti. Eta uste dut horrek horrela izan behar duela, bestela kaosa dugu eta. Baina gizarte-bizitzan behintzat, hemen kuadrillak deitzen dugun horretan, eta uste dut hori dela adibide objektiborik argiena, kuadrilla haietan enpresaburuak eta langileak zeuden, industriaren ikuspegitik hitz eginez. [...] Baina kuadrilla berean ibiltzen ziren eta taberna berean hartzen zituzten txikitoak, ordu berean eta elkarrekin. Jakina, gero arazoak egon daitezke, eta bereziena denak arazoak eta desberdintasunak sor ditzake. Hori beti gerta daiteke, baina, oro har, hori horrela zen [E6].

Baina ugazabak dira, nolabait esateko, eta langile-klasa, Ezkerraldean ikus ditzakezun giza harremanetatik guztiz bestelakoak. Fisikoki horiek espazio desberdi-

*netan bizi direlako eta besteak elkarrekin bizi direlako. 60ko eta 70eko hamarkadetan erabat nahastuak bizi ziren. [...] Gertatzen dena da ezin dela konparatu, bi mundu oso desberdin dira. Nire ustez, hango enpresaburuak antz handiagoa du, oro har, Debabarreneko enpresaburuarekin. Buruz, Mondragon Taldearen sortzaileengandik oso hurbil dagoen enpresaburua da. Izan ere, azkenean Mondragon Taldea bost pertsona ziren, Lanbide Heziketako Eskolan trebatuak, koope-
ratiba txiki bat sortu zuten, eta gero hura hazten eta hazten joan zen. Eta orain munstro bat dira. Ermuko enpresaburuak haien antzekoak ziren, oso antzeko prestakuntza zuten [E7].*

Harremanari dagokionez, oso familiarra zen. Enpresaburuak, enpresak sortu zituztenak, enpresetan egoten ziren eta jaka jantzita. Harremana eta kontaktua oso familiarrak ziren. Noski, nik ezagutu dudana harreman pertsonala izan da. Gero, 70eko hamarkadatik aurrera aldatu egin zen hori gatazka sindikal guztiekin, nolabait esateko. Bizi-kostuak gora egin zuenez, oso tentsio handiak izan ziren. [...]

“Gatazka sindikalak”. Lagunarteko adierazpen horrek aukera ematen digu atal honetan azken gai bat txertatzeko: lan-gatazkak. Elkarrizketa-taldeetan parte hartu duten pertsonetako batzuek mobilizazio handiko garaiak, grebak eta manifestazioak gogoratzen dituzte, baina guztiak bat datoz esatean Ermua ez dela gizarte- eta lan-gatazka handiak izan diren herria izan, auzoko Eibar baino askoz gutxiago behintzat:

Dionisio: *Batzuetan greba egin beharra zegoen. Eta greba egin behar bada, greba egiten da. Zergatik da?*

Honengatik. Bale. Eibarren ez zen inoiz hilabete osoa lan egiten. **Epi:** Ni 73. urtean ezkondu nintzen eta beharbada laurogeita gehiago, 90. urte inguru arte ez nuen inoiz sobre osoa etxera eraman. Nik honekin egiten nuen lan eta seguru zuk ez ninduzula inoiz ni ikusi panfletoak banatzen. **Jose:** Gauza batengatik ez bazen, beste batengatik zen. Aizu, ostiralean greba egingo dugu? Ados, ostiralean greba. **Miguel Angel:** Zenbat aldiz atera gara greban eta hor barrena egin dugu topo, maiatzaren 2a kale inguruan, bolak botatzen. Eta inolako zerikusirik izan gabe, korrika irten behar [G1].

Nik bai gogoan dut beldur handia pasa nuela behin Eibarren grisak bat-batean manifestaziorik eta ezer egon gabe agertu zirenean eta pilotakada garbian jarri zirenean. Unzaga zinemako jaunak ireki egin behar izan zigun. Ume batzuk ginen, baina ordu hartan bai ikaratu nintzela. Baina gehiago zen Eibarren Ermuan baino [G4].

Miguel Angel: Maila horretan Eibar baino askoz lasaiagoa zen Ermua. Eibarren sarritan izaten ziren gatazkak. **Epi:** Eibar apartekoa da herrialde honetan. Oso politizatua zegoen, Errepublikagatik eta Eibar bera izan zenagatik. Gauza asko ziren eta jende gehiena hor geunden. Agian kolektibo sozial eta politikoetan antolatutak geunden % 80 [G1].

3.5. PRESTAKUNTZA

Lehen aipatutako “Gallegos y ermuearras” izeneko artikuluan, ikerketa hau aurrera eramateko egin ditugun mintzaldietan eta elkarrizketetan askotan eta ikuspegi askotatik agertu den gai bati buruzko aipamen laburra egiten da: prestakuntzak duen garrantzia Ermuko garapen industrial eta ekonomikorako, bai eta bertako biztanle guztien bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko ere, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan herri-ira iritsi zirenean bereziki. Hau da artikulua horretan etorkin horiei buruz esaten dena:

Gainera, eskulan espezializatua iristen zen. Izan ere, Ermuan bizi diren iturgin, kontratista, igeltsero eta argiketarien % 90 Galizian jaioak dira edo galiziarren ondorengoak dira. Haietako askok Ourensen egiten zuten lan, hargin gisa, eta Euskadira emigratzen zuten lanean eraikuntzaren sektorean bilatzen zuten lana. Sektore hori euskal ekonomiako indartsuenetako bat zen, eta Eibarko armagintzan baino diru gehiago irabaz zitekeen bertan. Hargin izandako guztiek bazekiten zerbait enkofratuan eta igeltserotzan³⁴.

Horixe bera da elkarrizketa-taldeetako batean parte hartu zuten pertsona batzuek adierazi diguten esperientzia:

17 urterekin iritsi nintzen hona eta bakarrik etorri nintzen. Pixka bat ezagutzen nuen zerbaitetan hasi nintzen, ikastaro bat egina bainuen, enkofratua eta ferraila. Eraikuntzan hasi nintzen lanean eta hartan atera dut bizimodua berrogeita lau urtez. Alajaina! [G1].

³⁴ Angulo, op. cit.

Zazpi lagun etorri ginen elkarrekin. Batzuk alde batean sartu ziren eta besteak bestean. Haiek pixka bat gehiago zekiten, baina nik pixka bat menperatzen nuena obra zen, eraikuntza [G1].

Baina hitz egin dugun edo elkarriketatu ditugun pertsona gehienek industria-sektorean eman dute beren lan-bizitza osoa edo zati handi bat. Horretarako, prestakuntza, hasierakoa eta jarraitua, funtsezkoa izan da. Enpresek aukera ematen zuten enpresan bertan, tailerrean, zereginekin ohitzen hasteko, eta, ondoren, prestakuntza espezializatuagoarekin jarraitzeko, behar zen heinean:

Tailerrean ikasten zen. Gauza errazekin hasten zen eta gero gehiago ikasten joaten zinen. [...] Baina, logikoa denez, pertsonak gora egin nahi dute, horrek soldata igotzea zekarrelako. Interesa jartzen zuten, eta hala zen, enpresan bertan ikasten zuten. Zekienak irakasten zuen. Eta nor zen zekiena? Kasu honetan Armagintza Eskolakoa nire osaba zen eta arduradunak, berriz, zerbait ikasia zutenak. Baten bat kanpotik ere etortzen zen, zenbait gauza leku jakin batean ikasiak zituelako. Baina enpresan irakasten zitzaien [E9].

Uste dut hilabete lan egiten zutela kobratu gabe... beno, ez zuten lan egiten, zer egin behar zen ikusten zuten eta ur bila joaten ziren eta mandatuak egiten ziztuzten. Eta hilabete haren buruan, portaera ona izan bazuten eta gutxieneko gaitasun batzuk baldin baziztuzten, enpresan finkoa zinen [E6].

18 urterekin etorri nintzen hona, eta Frantziatik etorri nintzen. Fruta biltzen eta mahats-bilketan lan egin nuen han. Senide batzuk nituen hemen eta pasaeran hemen gelditu nintzen. Gero herrira joan nintzen egun batzuk gauza batzuk uztera, eta gero hona itzuli eta Victor Sarasqueta lantegian hasi nintzen lanean 74. urtean. Bi urte baino gehiago eman nituen han lanean, eta gauez Armagintza Eskolara joaten nintzen pixka bat ikastera, ez bainekien askorik makina-erremintaz. Victor Sarasquetatik Monroyra pasa nintzen eta berrogeita bost urte eman ditut bertan [G1].

Parte-hartzaile honek aipatu duen eskola hori, gaur egun Armeria Eskola³⁵, funtsezko erreferentzia izan da elkarriketatutako pertsona askorentzat, beren lan-ordutegiekin bateragarria zen eta beren enpleguen beharretara egokitua zegoen prestakuntza izateko aukera eskaini baitzien. Horietako batzuek afektuz eta nostalgiaz gogoratzen dute Eskolan “gaueko” ikasle gisa egon ziren garaia, lanean ari ziren bitartean ikasketa osagarriak egiten zituzten ikasleak:


Arratsaldean gidabaimena ateratzera joaten nintzen eta gero Armagintza Eskolara joaten nintzen tornua, fresatzeko makina eta denetarik ikastera, ideiarik ere ez bainuen. Gero mekanikari batekin aritu nintzen pixka bat ikasten [G1].

Hori pixka bat osatzearren, guk “gauekoak” genituen irakasle gehienak industriako bulego teknikoetan lan egiten zutenak ziren eta eskola ematera etortzen zit-

³⁵ CIPF Armeria Eskola LHII. <https://armeriaeskola.eus/es/>

zaizkigun. Beren enpresetan erabiltzen zuten maila ematen ziguten. Maila praktikoa zen, baina altua. Gauekoak oso estimatuak ziren, enpresa bat uzten bazenuen beste bat etortzen zitzaizun berehala [G3].

Adibidez, arratsaldetako prestakuntza asmakizun zoragarria izan zen. Nik ezagutzen dut hona prestakuntzarik gabe etorri zen jende mordoa, irakurtzeko eta idazteko oinarrizko prestakuntza besterik ez zuena, hura baitzen herri batean 12 urte bete arte ikas zitekeena. Baina ez zuten ezagutza teknikorik, eta ez zekiten tornu bat erabiltzen edo planoak egiten, huraxe eskatuko baitzion enpresaburuak fabrikari. Orduan munduko gauzarik normalena zen langilea arratsaldeko 5etatik 8etara Armagintza Eskolara bidaltzea. Hau oso ohikoa zen eta gauza zoragarria zen. Izan ere, formazio dual hori, orain alemanek erabiltzen dutelako sekulakoa dela ematen duena, errealitate bat izan zen hemen eta bikaina izan zen. Aukera izugarria izan zen ezer egiten ez zekien pertsona batentzat, tornua erabiltzen eta fabrikak eskatzen zuen guztia irakatsi ondoren peoi izateari utzi eta langile kualifikatu edo ofizial bihurtu ahal izango zelako [E5].



Armagintza Eskolako 1958-1963ko promozioa. Argazkia Eli Lacuesta (1962) Iturria: Ego Ibarra Batzordea - Eibarko Udala³⁶.

Eibarren dagoen arren, Armagintza Eskola funtsezko prestakuntza-baliabidea izan da ermuarentzat³⁷. Haren ikasgeletatik pasa ziren etorkin haietako asko eta haien seme asko. Prestakuntza espezializatua jaso zuten bertan, eta enplegua lortzeko aukera handiagoak izan zituzten horri esker:

Ermuan prestakuntzarako ez zegoen... beno, Armagintza Eskola zegoen. Izan ere, nire aita Armagintza Eskolara joan zen eta haren anaiak ere bai. Ermuan bazen Santa Anan, apaizak egindako etxeak dauden tokian, ez dakit zein lanbide heziketa ematen zuen zentro bat. Orain ez dut izena gogoratzen. Gradu ho-

³⁶ Documentada la foto: "Promoción 1958-1963 de la Escuela Armería". <https://egoibarra.eus/es/noticias/documentada-la-foto-promocion-1958-1963-de-la-es-cuela-armeria>

³⁷ Lan hau egiteko dokumentazio bila genbiltzala, Eibar Hiriko Doitze Mekaniko eta Armagintzako Eskola Bereziaren *Memoria del curso de 1933-1934* txostena aurkitu dugu. <https://core.ac.uk/download/pdf/11503061.pdf>. Gure ikerketak gai duen denbora-tartetik kanpo geratzen bada ere, jaso egin dugu duen interes historikoa-gatik.

rietako bat egiten zen. Baina goi-mailakorik ez zegoen, oinarrizkoa zen [E4].

Etorri ziren etorkinen lehen belaunaldi haien semeak hasi ziren lehenik Ermuko ikastetxe publikoan ikasten, eta gero, herrian bertan egiteko aukerarik ez zegoenean, unibertsitateko karrerarantz egiten zuten aurrera. Eta horretarako zeuden Eibarko Institutua edo La Salle edo Corazonistas bezalako ikastetxe pribatuak; azken hori uste dut gero desagertu egin zela eta La Salle bakarrik geratu zela guztiarekin. hGero baziren Mesedeetako Eskola edo Aldatze bezalako ikastetxeak neskenak zirenak, orduan banatuta egoten baitziren. Baina normalean Ermuan trebatzen ziren gehienek Armagintza Eskolan amaitzen zuten eta ondoren inguruko enpresetan lan egiten zuten [E7].

“Semeak” diogu, ez alabak; izan ere, XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadara arte ez zituen emakumeentzako ikasgelak ireki Armagintza Eskolak³⁸. Ikerketa hau egiteko elkarriketatatu ditugun pertsonen artean bada ikasle haietako bat, 13 urterekin sartu zena Armagintza Eskolan, “*Elektronika egitera [...] 84-85 ikasturtean edo 85-86 ikasturtean*” [E3]. Bere esperientzia oso ona izan zen prestakuntzaren ikuspegitik (karrera nabarmena izan du enpresaburu gisa), baina oso zaila izan zen harreman sozialei dagokienez, bere promozioako emakume bakarra baitzen: “*Nik ez nuen emakumezko ikaskiderik izan bost urte haietan. Bakarrik egon nintzen. Egia da 2. mailan bazirela batzuk baliozkotu haietakoak, batxilergoa egin ondoren etorri zirenak eta irakasgairen bat elkarrekin egiten genuen. Baina gero galdu egin nituen*”. Mirestekoa da egoera hari aurre egiteko izan zuen jarrera:

³⁸ Fernández Pérez, Lafita Solé eta Maceira Ochoa, *op. cit.*, 69. or.

Beno, benetan uste dut erronka gisa hartu nuela. Izan ere, kanpotik begiratzeko badiozu eta hitzez hitz hartzen baduzu, konplexua zen egiaz. Pentsa, etengabe iraintzen ninduten. 500 pertsona ziren institututik pasa eta eskailerak igotzen eta jaisten nituen bakoitzean. Eten-gabea zen. Gainera, ni baserri batean bizi nintzen eta oso gutxitan jaisten nintzen herrira. Amarekin jaisten nintzen larunbatetan erosketak egitera plaza nagusian zegoen Eroskira, eta hura zen zegoen bakarra. Eta inor ez ezagutzetik, Ermuan ez bainuen inor ezagutzen, hemen aurrematrikula egin ondoren, hurrengo aste-buruan pasa nintzen kalean seinalatua izatera. Egun batetik bestera izan zen. Eta bai, zaila zen, baina nik erronka gisa hartu nuenez, uste dut ez zidala eragin. Izan ere, nahiz eta lehenengo bi urteetan ez hainbeste, adin horretan mutilak bihurriago ibiltzen baitira, gainerako urteetan oso lagun onak ditut hemen egon nintzen garaikoak. Egia esan berberak ziren, baina helduagoak. Baina oroitzapen ona dut [E3].

Armagintza Eskolan emakumeak trebatzen hastea erronka handia izan zen irakasleentzat ere, elkarriketatuak azaldu digun bezala:

Irakasleentzat ere lehen aldia zen neska bati eskola ematen ziotena, niri hain zuzen ere. Eta askotan ez zekiten ezta nola hitz egin ere. Bazen bat pieza limatzen uzten ez zidana, berak limatuko zuela esaten zidan. Eta batzuek esaten zidaten ni nengoenez ezin zutela hitz itsusirik esan. Ez dakit, ez zeuden eroso. Beno, eroso jarri ziren arte. [...] Gogoan dut soinketako eskolena oso zaila zela, berrogei eta ni ginelako. Nik neuretzat bakarrik nuen, aldagelako giltza ematen zidaten.

Baina tira, ongi. Egia esan, maitasunez gogoratzen dut nik. Emakumezko irakasle batzuk ere bagenituen, Historia eta Fisika irakasten zutenak. Eta uste dut Ingelesekoa ere neska zela [E3].

Nolanahi ere, eta Armagintza Eskolak Ermuko langileen prestakuntzan izan zuen eginkizunera itzuliz, hitz egin dugun pertsonak oso maila handia zuela nabarmendu dute, kalitatezko prestakuntza ematen zuela:

Oso maila handia zuen Armagintza Eskolako Lanbide Heziketak. Oso ondo zegoela uste dut. Hala ere, azken hogeita hamar urteetan puntxa galdu zuen hainbat arrazoiengatik. Besteak beste, nik uste dut frankismoaren amaierako Udalak ez zituela etxeko lanak ondo egin eta hor asko galdu zutela. Ez zuten plangintzarik egin eta asko galdu zuten enpresa munduarekiko harremana. Ez zuten lurzoru industriarik ere programatu, eta Eskolari ez zioten eman urte askoan izan zuen bultzada. Hor galera izan zen. Baina gero Unibertsitate Laborala deitzen geniona sortu zen. Hasiera batean, ekonomikoki xumea zen jendearentzat zen, eta barneko ikasleak ziren. Gijongo, Bilboko edo Bergarako jendea zen, eta hona etorri eta egoitza batean egoten ziren. Prestakuntza ona ematen zen Lanbide Heziketan, nahiz eta gero Ingeniaritzarantz eta halakoetarantz eboluzionatu zuten. Beste maila batzuetan ere prestakuntza-eskaintza oso interesgarria egin zuen. Guk, prestakuntzari dagokionez, pribilegio handia izan dugu Eibarren, hemen ondoan baitzegoen. Kuantitatiboki 40.000 edo 50.000 biztanle inguru ginen eta ez genuen unibertsitateak izateko

behar zen dimentsiorik, baina prestakuntza oso kualifikatua zegoen [E5].

Lurrari, inguruko enpresen beharrei, oso lotua zegoen prestakuntza zen; kontatu digutenez, enpresek zuzenean parte hartzen zuten ikasketen antolaketan:

Helburu nagusia zen teoria eta praktika bateratzea prestakuntza industrial eta teknikoan, harreman estua sortzen zen enpresaren eta Armagintza Eskolaren artean, bai eta Unibertsitatearekin [Laborala] ere [E2].

Izan ere, niretzat, Armagintza Eskolan esanguratsua izan zen enpresaburuek erabat parte hartzea zuzendaritzan eta beren lehentasunak zehazten. [...] Zuk enpresa bat baldin baduzu, ondo prestatua dagoen jendea behar duzu. Eta Lanbide Heziketako eskolan, kasu honetan Armagintza Eskolan, zuri entzuteko pribilegioa baduzu... beno, Armagintza Eskolan ez zen enpresaburuei entzutea, kontua da Eskola haren benetako zuzendaritza enpresaburuak izan direla beti [E5].

Eta enpresaburuek, ikasle ohi gisa, badute eskubidea zuri zuzendari gisa esateko [...] zer egiten duzuen hemen eta zergatik ez duzue hau edo bestea irakasten. Eta horrek behartzen zaitu pixka bat gainean egotera, haiekin egotera eta teknologia nondik nora doan ikustera. Eta horrek orientatzen zaitu. Izan ere, askotan, ikastetxe batzuetan harreman hori ez badago... [G3].

Prestakuntzaren eta enpresaren arteko lotura horren adierazpenik argienetako bat da Eskolak betetzen zuen funtzioa langileen birziklapenerako eta etengabeko ikaskuntzarako, elkarriketata-taldeetako batean parte hartu duten pertsonak kontatu dигuten bezala:

Bai, birziklatu behar izan naiz. Hiru tornu-ikastaro egin ditut Armagintza Eskolan; izan ere, Barakaldon sartu nintzenean tornu-mota bat zen eta gero automatikoak etorri ziren, espeka-tornuak. Eta horregatik birziklatu behar da. Armagintza Eskolara joaten zinen pare bat edo hiru hilabetez, eta ikastaroa egiten zenuen. Eta zenbakizko tornuak etorri zirenean beste horrenbeste. Berriz ere Armagintza Eskolara birziklatzera [G1].

Nik, Monroyn egon naizenean, esan dezaket zorte handia izan dudala ikastaro dezente egiteko agindu didatelako. Elektrizitatekoa, Pneumatikakoa eta Hidraulikakoa egin ditut Elgoibarko IMHn. Eta Arrasateko eskola batean ere bai, baina ez naiz gogoratzen nola zuen izena. Ordenagailuen ikastaroak ere egin ditut. Maila horretan sekulako zortea izan dut. Mantentze-lanetako guztiok beti bidaltzen gintuzten gauza batzuen eta besteen ikastaroak egitera [G1].

4. INTEGRAZIOA ETA BIZIKIDETZA

1967an argitaratutako azterketa goiztiar batean, Horacio Capel geografo eta hirigile ospetsuak etorkinen integrazio-arazoak aztertutako zutuen, honela:

Talde hartzaileei dagokienez, badirudi kasu batzuetan immigrazioak krisi sakonak eragin dituela bertako gizarteetan, itxiak eta beren berezitasunen zaintzaileak izaki. Horixe gertatu da EAeko zenbait hiri txikitan; Gasteizen, adibidez, gaur egun biztanleriaren % 43 bakarrik dira hirian jaioak, erresistentzia handia egon da etorkinak onartzeko, eta lortu den bakarra izan da «bizikidetza adostua, non liskarrak leundu badira ere, ez baita herritarren bizitzaren parte izateko borondatearik sortu». Kataluniari dagokionez, askotan ikus daiteke jarrera negatiboa dutela bertakoek, integrazioaren aldekoa ez dena, J. Maluquerrek nabarmendu duen bezala. Iritsi berria gutxiesteko jarrera horri dagokionez –zaila izanik Espainia erdialdean eta hegoaldean aurkitzea–, etorkinei «korear» izengoiti erdeinagarria ematen zaie herrialdeko iparraldeko eskualde askotan³⁹.

XX. mendeko berrogeita hamarreko eta hirurogeita hamarreko hamarkaden artean Ermura emigratu zuten pertsonak izan zituzten integrazio-tentsioak aipatu ditugu orrialde hauetan. Tent-

³⁹ Horacio Capel, "Los estudios acerca de las migraciones interiores en España", *Revista de geografía*, 1. zk., 1967, 89. or. <http://www.raco.cat/index.php/Revista-Geografia/article/viewFile/50269/56614>

sio horiek, adierazi digutenaren arabera, ez ziren gehiegizkoak izan, edo, gutxienez, ez ziren denboraren joanak ez erlatibizatze-ko bezain larriak izan. Baina tentsio horiek izan ziren, beste lan batean aztertu dugun bezala⁴⁰, eta kasu askotan gaur gogoratzen dena baino larriagoak eta mingarriagoak izan zitezkeen. Nola ez ziren bada gertatuko tirabirak, ezin ulertuak eta desadostasunak! Bere tamainagatik eta denbora- eta espazio-kontzentrazioagatik, Espainiako barne-emigrazioa aurrekaririk gabeko fenomenoa izan zen, benetako "lurrikara", Ruíz-Olabuénagak zuzendutako azterlanean ikus daitekeenez 1973an. Gogora dezagun: 1960 eta 1980 bitartean Ermuak 16 aldiz handitu zuen bere biztanleria eta % 700 hazi zen biztanle-kopurua. 1964an biztanleen ia % 80ak Euskal Herri- kanpo zuen jatorria.

Hala ere, lurrikara demografiko, sozial eta kultural hura mires- tekoa den eraginkortasunez bideratu zuen Ermuko gizarteak, bizilagun berriek eta zaharrek, elkar integratzeko bi norabideko prozesuan, gertatzen ari zen bitartean hauteman ezin zitekeena. Lurrikaren aurkako eraikin horietako bat balitz bezala, Ermuko komunitateak eutsi egin zion, berrasmatu eta indartuta atera zen.

Aipaturiko 1973ko "*Ermua, comunidad en eclipse*" azterlanak, "Cómo conviven" izenburuko atalean, ondoko gogoeta hau planteatu zuen, eta osorik berreskuratu dugu, nahiz eta luzea izan, gertatzen ari ziren prozesu sozial handiek eta sakonek baldintzatu zegoen errealitate hari lurrikara betean egindako begirada horren adibiderik onena baita:

⁴⁰ Amaia Izaola eta Imanol Zubero, "Las migraciones internas y su aportación al desarrollo de Gipuzkoa (1950-1975). Sistematización y actualización", Luis Castells *et al.*, *Las migraciones internas y su aportación al desarrollo de Gipuzkoa (1950-1975)*, op. cit., 49-66. or.

Ermuak dituen dimentsio demografikoek, 16.000 biztanlerekin, ez dute aukerarik ematen herrixka txikietan edo klan patriarkaletan egiten denaren antzeko komunitate-bizimodua garatzeko, non uniformetasuna ezinbesteko baldintza den gizarteratzeko, non norberaren ezagutza eta berezitasuna bizitza-lege diren. Ermuak ezin du jasan hiri handiek beren barne-egiturarako arriskurik gabe izan dezaketen aniztasun eta heterogeneotasun maila ere. Duen hiri-dimentsioak, alde batetik, multzo harmoniko eta integratuaren irudi kolektiboari eustera eramaten du, eta, bestetik, interes, ideologia eta joera sozial ugari eta desberdinak eskatzen dizkio.

Komunitate-integrazioa hautsi egin daiteke gehiegizko axolagabetasun sozialagatik, arazo komunitarioekiko, iraganaren biziraupenarekiko, historiarekiko identifikazio pertsonalarekiko, sinboloekiko eta egungo herriaren errealitatearekiko interes falta masiboaren kasuan gertatuko litzatekeen moduan. Heterogeneotasunak ezinezko egingo lituzke harreman komunitarioak baldin eta lehia kooperatiboa ez gertatzeko bezain handia izaten bada interes-gatazka, eta lehiak ahulak suntsitzea ekarriko balu boterea usurpatzeagatik, indarke-riagatik, espekulazioagatik edo beste edozein menderatze-metodo erabiltzeagatik. Herriaren izaerak berak bultzatzen ditu axolagabetasuna eta gatazka, lehendik existitzen ez ziren hainbat prozesuren mende egotean herria. Prozesu horiek bost alderditan laburbil daitezke: hazkunde demografikoa, hainbat eskualdetako etorkinen presentzia, gizarte-aldaketa, kontrol elitista eta eskualde euskalduna – ez euskalduna dikotomia⁴¹.

⁴¹ Ruíz-Olabuénaga (dir.), op. cit., VIII. kap, 2-3. or.

Zorionez, oraingoan eguneroko soziologiak, prozesu sozial horien protagonista izan ziren emakumeen eta gizonen eguneroko bizitzak, irabazi egin zion soziologia zientifikoari. Interes-gatazka eta axolagabetasun sozialeko egoerak sortu ordez, immigrazioari lotutako prozesu sozialen bilakaerak auzokideen komunitate aski integratua eta kohesionatua osatu zuen urte haietan:

Elkarrizketatua. *Baziren eibartarrak, extremadurarrak, cuencarrak, eta andaluziarren bat, eta hemengoak Euskadikoak ere asko ziren. Ikertzailea.* Eta nolakoak ziren harremanak hemengo kideekin?
Elkarrizketatua. Oso onak. Ez zegoen inolako arazorik, inorekin egia esan. Primeran moldatu gara, orain baino hobeto. Lehen zeuden harremanak, orain baino hobeak ziren [E1].

Hori da honelako herri batek izan duen sustraitzea eta bizi-kalitatea. Herri txikia zen, eta etorkin guztiak, etorkinak ez zirenak, enpresen jabeak, buruzagiak eta azken mailakoak ere inguru oso txikian bizi ziren, eta ia gauza berdinak egiten zituzten. Taldeen arteko aldeak adinarengatik ziren klase sozialarengatik baino gehiago. Noski, gauza batzuk egin zitzakeenak egiten zituen eta ezin zuenak ezin zuen. Gai politikoetan, soziologikoetan eta ezertan sartu gabe gainera. Horixe da nire lehen bizipena, mundu guztia herrian integratua zegoela [E6].

Manolo: *Nik denbora gehien eman dudana enpresan, hogeita zazpi urte egin baintuen, benetan uste dut jabeak eta beste lau kenduta gainerakoak kanpotarrak ginelako. Baziren extremadurarrak, andaluziarrak eta galiziarrak, beti gehiengoak ginenak. Izan ere, alde guz-*

*tietako jendea dauka herri honek. **Manuel:** Babelgo dorrea bezalakoa da [G2].*

Baina Bibliako eraikuntzaren patu tragikoa saihestea lortu duen Babelgo dorrea, nahasmenaren eta liskarren erdian eraitsia. Aitzitik, Ermua gizarte plurala eta anitza izateaz gain, pluralista ere izan da eta da, aniztasun hori premia inposatu eta saihestezin gisa ez ezik, bertute gisa ere hartzeko gai izan dena:

Eta jatorrizko elementua demokrazian bizi izan dut geroago. Hain zuzen ere, nire ustez, beste batzuek euskaldun izateko modu bakarra inposatzeko ahaleginaren arbuio gisa. Orduan hasi nintzen kide izatearen sentimenduaz kezkatzen, nik pentsatu ere egin ez nuen zerbait eta bereziki interesatzen ez zitzaidana. Ez dakit, jatorri-aniztasuna errealitatea zen leku batean bizitzeagatik izango zen seguru asko. Aniztasun hori aberasgarri eta ez problematiko gisa bizi izan nuen nik beti, nahiz eta ulertzen dudan beste batzuek beste era batean bizitzea. Oso ondo ulertzen dut hori [E5].

“Ermuko Erretratuak”⁴² proiektuaren barruan ateratako aurpegi-argazkiak dira -askotariko aurpegiak, atzokoak eta gaurkoak- elkarbizitza-aniztasun horren adibiderik onenak. Kontu horri dagokionez, elkarriketatutako pertsonetako batek gogoe-ta interesgarria egin zigun atzoko migrazioak eta gaurkoak alderatuz:

Nik uste dut gaur egungo immigranteentzat, eta orain espainiarrak ez direnez ari naiz, magrebtarrak edo Saharaz hegoaldekoak izan daitezkeenez, horiek baitira hemen gehien daudenak, askoz zailagoa dela zentzu

⁴² Ermuko erretratuak – Bizitzako eta harrerako istorioak, 2017ko abendua. <https://www.insideoutproject.net/es/explore/group-action/retratos-de-ermua-historias-de-vida-y-acogida#section-more-actions>

guztietan integratzea, iristen denarentzat oso handia baita aldaketa kulturala. [...] Bestalde, nik uste dut orain egoera askoz zailagoa dela. Izan ere, aipatu ditudan immigrazio horiek gertatu zirenean, ez dakit zenbatean egongo ziren langabezia-tasak, baina ia zero izango ziren ziur aski. Orain sartzen diren munduan, ordea, lana aurkitzea da gazteen lehen arazoa, eta hori izugarria da. Eta bigarren arazoa da bizitza proiektu independentea izateko gauza izatea. Nik ikusten ditut nire seme-alabak eta nire lagunen seme-alabak, eta konturatzen naiz oso zaila dela. Guk erabakitzen genuen etxetik joan ala ez. Eta onerako joaten zinen, pin, pan! Baina orain etxetik alde egitea pentsatzen baduzu, nola zoazen eta zer segurtasun duzun pentsatu behar duzu lehenik. Kasurik onenean ere sei hilabeteko kontratua besterik ez baituzu. Eta egoera hori aldatzen ari da, bai etortzen direnen ikuspegia, bai jasotzen dituztenena. Gizarte-laguntzari dagokionez, berriz, gizarte-laguntzak hor egon behar du, eta kito. Horixe besterik ez genuen behar! Orain ez gara hori eztabaidatzen hasiko, hor ez dago eztabaidarik. Gainera, nik uste dut hobe dela, zenbat eta hobeto bizi denok orduan eta hobeto lan egingo baitugu eta orduan eta bizi-kalitate hobe izango baitugu. Horixe da nire pentsamoldea [...].

Seguruenik, lehen etortzen ziren etorkinentzat zailagoa izango zen hasiera, ez zegoelako etxerik, ezta gizarte-laguntza horiek guztiak ere. Eta orduan beren lankide, lagun, senide edo nornahiren karitatea behar izaten zuten. Baina, esan dizuedan bezala, semeak etortzen ziren eta trenean bertan lana ematen zieten hurrengo egunerako. Eta horrela hasten zen martxan

*pilota. Beharbada okerrago pasako zuten lehen egu-
netan, baina berehala zituzten egonkortasuna eta
soldata bizitza-proiektua planteatzeko. Egia da, hala-
ber, soldata txikia zela, etxea penagarria zela eta nire
seme-alabek ez zutela gauza bera jaten. Baina agian
lanpostu hobearen zenuen urtebetera, eta hirugarrenean
arduradun izendatzen zintuzten beharbada. Eta hori
guztia oso bestelakoa zen orain gertatzen denarekin
konparatzen badugu. [E6].*

Gaur egungo migrazio-prozesua, kasu honetan nazioartekoa, XX. mendearen bigarren erdialdean gertatu zena bezain arrakastatua izan dadin, modu berriak bilatu beharko dira Ermura iristen diren pertsonen integrazio materiala, sozioekonomikoa, ziurtatzeko, garai hartan funtzionatu zutenak ez bezalakoak. Ez da erraza izango, baina ermuarrek soberan erakutsi dute elkarrekin eta aniztasunean bizitzeko borondatea, historia komun batean eratua⁴³. Eta hori funtsezko abiapuntua da etorkizunari itxaropenez begiratu ahal izateko.

⁴³ Ermuko Udala. Immigrazioa eta nazioarteko lankideza. <https://www.ermua.eus/es/inmigracion-cooperacion-internacional> ; Sara Gago Pascual, "Yo también cuento. Una experiencia de acercamiento al colectivo inmigrante en la Biblioteca Municipal de Ermua (Bizkaia)", **Mi biblioteca: La revista del mundo bibliotecario**, 7. zk., 2006, 54-60. or. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/2223729.pdf>.

5. ONDORIOA

1973ko azterketara itzuliko gara berriro, Ermua jasaten ari zen aldaketa-prozesu bizi eta bizkor hari bero-beroan begiratu ziona:

Izan zen hiri-komunitate bat, Ermua izeneko herria, espazio ekologiko jakin batekin, kaleekin, zelaiekin, ibaiekin, mendiekin, bere atmosferarekin.

Kulturguneak, eskolak, erlijio-ikurrak eta monumentuak zituen Ermuak.

Lanerako espazioa, tailerrak, ostatuak, zerrategiak eta harrobiak zituen Ermuak.

Gune geografikoa, gizonak eta emakumeak, zaharrak eta haurrak zituen Ermuak.

Gune horretan —ekologikoa, kulturala, laborala, demografikoa— aurrekaririk gabeko migrazio-oldea sartu da. Zein izan da emaitza? Zer gertatu zaio 1964 baino lehenagoko Ermuko Hiri-komunitateari, Ermuko 1972ko Hiri-komunitatearen lurrikarak hartu al du? Zer gertatu zaie beren espazio ekologiko, kultural, laboral eta gizatiarrei? Bizirik atera dira, aberastu egin dira edo hil egin al dira?⁴⁴

Gaur, handik bost hamarkadara, erantzun positiboa eman diezaiekegu galdera horiei. Bai, gaur egun oraindik ere badago hiri-komunitatea, badaude espazio kulturala, laborala, demo-

⁴⁴ Ruiz-Olabuénaga, *op. cit.*, I. kap., 7-8. or.

grafikoa, ekologikoa, indartsu eta aktiboa, argi eta garbi identifikatzeko modukoa. Gure ikerketarako elkarriketatu ditugun pertsonak bi gauza dituzte argi: batetik, Ermuari egin dioten ekarpena Ermutik jaso dutena bezainbestekoa dela, eta, bestetik, euren bizitzak eta guztien bizitzak hobera egin duela:

Miguel Angel: *Nik nire lurrari baino ekarpen handiagoa egin diot Ermuari. Epi:* *Nik uste dut hori denok [G1].*

Manuel: *Asko. Nik uste dut bakoitzak geure lanean ekarpena egin dugula. Izan ere, lehen herrixka zen hau eta orain hiria da. Antonio:* *Nik uste dut kultura eta lana eman ditugula [G2].*

Rosario: *Horixe da. Nik uste dut mundu guztiak egiten duela bere ekarpena, denok egiten diogu elkarri. Celes:* *Elkarri, edozein auzotan bezala. Norbaitek hori egiten ez badaki, zuk horrela egiten dela esaten diozu. Nik ere horrela pentsatzen dut [G4].*

Elkarri lagundu genion. Guk lagundu genuen Euskadik aurrera egin zezan, eta ekonomikoki zein kulturalki aberastu egin gara [G5].

Orain adinekoa den jendeari esker egin zuen gora Ermuak [G4].

Maria: *Dena aldatu da, baina nik uste dut hoberako. Celes:* *Zalantzarik gabe, hoberako. Rosario:* *Gu behintzat hobera joan gara. Ikusiko dugu nola doan hau [G4].*

Asko dira esperientzia arrakastatsu hori azaltzeko erabili behar-ko liratekeen gakoak; izan ere, 1960an 3.000 lagun eskas zituen

herri txiki bat ia 20.000 biztanleko hiri indartsu bihurtu zen XX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan. Zalantzarik gabe, bere industria-tradizio luzea da gako horietako bat. Oinarri horrek bultzatu zuen herriaren garapen ekonomikoa hirurogeiko hamarkadatik aurrera, eta, Eibarrekin batera, Espainiako beste leku batzuetatik etorritako milaka lagun hartu zituzten beren tailerretan eta fabriketan lan egiteko.

Baina, ikerketa hau bukatzean, funtsezkoa iruditzen zaigu beste gako bat ere aldarrikatzea, ukiezina eta objektibatzen eta azaltzen zaila dena, baina hori gabe ez zen posible izango deskribatu dugun ezer: Ermuan bizi izan diren pertsona guztiek erakutsitako gaitasunaz ari gara, lehendik zeudenek eta iristen joan zirenek, elkar ezagutzeko eta elkar hartzeko, elkarrekin aurrera ateratzeko eginkizunean konprometitzeko, aukera bihurtuz jaiotzez edo adopzioz bizi behar zuten herriaren eraldaketa sozialaren erronka.

Duela gutxi, Maria Ramos Salgado itzultzaileak, “Euskadin bizi diren etorkin galiziar eta gaztelarraren alaba”, gogoeta ederra argitaratu zuen bi hizkuntza “txikiren”, euskara eta galiziera, arteko itzulpengintzari buruz. Hauxe zioen:

Galziarrak piloan joan ziren Euskadira, eta asko hangeratu ziren bizitzen; beraz, logikoa litzateke bi hizkuntza horien arteko itzulpenak loratzea, eta asko izatea itzulpen-konbinazio hori landu zuten itzultzaileak. Buruan ditut, adibidez, Ermua, Eibar, Elgoibar «Galiziako bosgarren probintzia» titulua lortzeko lehian, han bizitzen jarri ziren emigrante galiziarren kopuruagatik. Ermuan jaieguna da Día das Letras Galegas eguna, eta Santiago da haren patroia. Ez al da halako aztarna bat geratu, ez al dute galegozko hitzak durundi egiten etxeko txi-

kien belarrietan? [...] Oso zorionekoa izan nintzen ni: Euskadin bizi ziren etorkin galiziarren eta gaztelarren alaba, nire etxean hiru hizkuntzetan hitz egin zidaten beti. Ez zen inoiz alde batera utzi jatorriz zekartena, eta bizi ziren tokian hitz egiten zena ikasi zuten. Agian horregatik, niretzat etxera, familiara eramaten nauten hizkuntzak direlako, haiekin lan egiten dudan guztietan etxean sentitzen naiz, lagundua sentitzen naiz⁴⁵.

Galegoaren eta euskararen arteko itzulpengintzaren –edo “elkarrizketaren”– kontu hertsitik haratago, egileak egindako go-goeta hori nabarmendu nahi dugu, hau da, etxean sentitu dela partekatzeke zortea izan duen hizkuntzen eta kulturen aniztasunean, pluraltasunaren ospakizun hori, elkarrizketatutako pertsonetako batek adierazi zigunaren ildotik, eta haren hitzekin amaituko dugu testu hau:

Eskolan ginela, orduan berrogeita hamar bat ikasle edo gehiagokoak izaten ziren ikasgelak, eta beti gogoratuko dut irakasleetako batek esaten zuena (oso azkarra zen eta Matematika ematen zuen), ia Espainia osoa geundela ikasgela hartan. Ez dakit hogeita hamar probintzia desberdinetako jendea zegoen. Denetarik zegoen: galiziarrak, andaluziarrak, extremadurarrak, Burgosko gaztelarrak, Palentziako gaztelarrak, kantabriarrak... izugarria zen hura. Baina niri guztiz naturala egiten zitzaidan eta ez nuen inoiz sentsazio arrarorik izan. Nik beti pentsatu izan dut aniztasun hain handi hark eragin zuela Ermuan gatazka-ikuspegia gutxiago hautematea, errealtate sozial hain aldakorra eta jatorri desberdinekoa zegoelako. Ermuan euskalduna

⁴⁵ María Ramos Salgado, “Traducir lo pequeño: puente entre dos madres”, *El Trujamán. Revista de traducción*, 2023/06/14. https://cvc.cervantes.es/trujaman/antecedentes/junio_23/14062023.htm

izatea bezain normala zen galiziarra, andaluziarra edo extremadurarra izatea. Edo gehiago. [...] Nik, funtsean, bi profil guztiz desberdineko jendearekin bizi izan dut hori guztia. Bat da nire kuadrillakoena: Urreta, Arrizabalaga, Unamuno... ehuneko ehun euskaldunak, ermuarrak eta, oro har, sosak zituztenak, aberatsak. Eta bestea da nire adina zuen jendearena, denok batera joaten ginen eskolara eta sei euskaldun eta beste jatorri batzuetako berrogeita sei pertsona izan gintezkeen. Nik normaltasun osoz bizi izan nuen hori guztia, eta distantziatik begiratu diodanean ia pribilegioa izan dela uste dut. Aniztasun hori zortetzat hartu dut nik [E5].



1940.01.01. Trena Ermura heltzen. Egilea: Blanca Olañeta.

<https://www.ermua.eus/es/dosieres/coleccion-fotografias-blanca-olaneta>



1969.12.31, Ongarai Auzoa, Egilea: Ignacio Urreta

<https://www.ermua.eus/es/dosieres/coleccion-fotografias-ignacio-urreta>

bajadores peninsulares ganan mucho menos que los de esos países.

Las mujeres de Ermua protestaron contra la falta de escuelas, con una manifestación y sentada en la autopista.

Sempurn ABC se está pasando de la raya y...

La "Comisión Permanente" de la Asamblea de Intelectuales de Montserrat, publicó un manifiesto contra la represión.

Harold Wilson se declaró contrario al ingreso de España franquista en el M.C.E.

Racionamiento de agua en Bilbao.

A Oriol le ha ofendido el nombramiento de Setien como obispo auxiliar de Donostia. A nosotros nos ofende Oriol.

Muxika Arregi requisitoriado.

En la Universidad hay jaleo de profesores y estudiantes.

"Diego Ramírez" invoca a Lenin.

En los pueblos de las orillas del Nerción hay más humo que aire.

Muchos recuerdan ahora al cardenal Vidal y Barraquer.

Dimitieron los delegados sindicales de Matelina.

¿La diputación de Navarra da la mano a Aristrain o viceversa?

A la bruja roncalesa Maritxu, profesora de parapsicología, le prohibieron hacer pronósticos... políticos.

El cisma del misal, entre toledanos y conciliares.

Pleito sonado en Madrid de la

la mano, de Lekoitia.

Muchos profesores a la calle.

El Partido Socialista organiza actos en toda Europa contra Franco.

Mario Maffei nos ha enviado el libreto de su obra "Zufik! El Proceso di Burgos" para "L'Arcipelago" il Grupo Teatro Incontro. Esker mila.

El Bravo López O.D. a Pekín o el cuento chino.

"Todo hombre perseguido en razón de su acción en favor de la libertad tiene derecho de asilo en el territorio de la República", dice la Constitución francesa.

Pero Francia expulsa a los refugiados vascos del Sur del Pays Basque y las policías españolas y francesas persiguen a los vascos en Euzkadi Norte.

¿Son los vascos las víctimas de la política franco-española en el Mediterráneo?

El atentado al consulado francés en Zaragoza, atribuido a ETA, así como la muerte de Abellán por la guardiacivil y la detención, de Noguera, Mellado y Segarra, son episodios muy confusos todavía.

Nixon USA Vietnam.

Huelgas en Asturias.

Más huelguistas de hambre en Euzkadi Norte.

En CIUDAD JUAREZ
BAR-RESTAURANT
"ALCAZAR"
Chik. México

1971.12.31. Emakumeen protesta eskola faltagatik.

Espainiako Liburutegi Nazionala.

https://www.ermua.eus/sites/default/files/repositorio-archivos/02_1972_22_09_2016_11_18_53.pdf



1969.01.01. Ermuko lanbide-hastapeneko eskola.
Egilea: Ayuntamiento de la Villa de Ermua Ermuko Udala
<https://www.ermua.eus/es/dosieres/educacion-ermua>



1971.01.01. Teresa Murga patioa, 1971, maisuen aurkezpenaren egunean
Egilea: Biblioteka
<https://www.ermua.eus/es/dosieres/colegio-teresa-murga>



1982.01.04 Etxebizitzak Erdikokale ze-harbidean (antzinako Arte kale)
Egilea: Ayuntamiento de la Villa de Ermua
Ermuko Udala

<https://www.ermua.eus/es/documentos/viviendas-erdikokale-antigua-artecalle>



1982.01.04 Kastotxuanekoa (etxea) Izelaie-ta kalean, 6. zk (Irulieta auzoan, gerrostea General Mola kalea)
Egilea: Ayuntamiento de la Villa de Ermua
Ermuko Udala

<https://www.ermua.eus/es/documentos/kastotxuanekoa-calle-izelaieta-num-6-barrio-irulieta-antigua-calle-general-mola>



1982.01.04 Valdespina Markesa kalean eraikinak (antzinako Barrenkale kalean)
Egilea: Ayuntamiento de la Villa de Ermua
Ermuko Udala

<https://www.ermua.eus/es/documentos/edificio-calle-markesa-valdespina-antigua-calle-barrenkale>



1982.01.04 Jubiletxeko taberna. Erdikokale (antzinako Arte kale)
Egilea: Ayuntamiento de la Villa de Ermua
Ermuko Udala

<https://www.ermua.eus/es/documentos/bar-jubiletxe-erdikokale-antigua-artecalle>



1982.01.04. Erdikokale/Marqués de Valdespina. Gaur egungo Jubiletxea
Egilea: Ayuntamiento de la Villa de Ermua Ermuko Udala
<https://www.ermua.eus/es/dosieres/casco-historico-torreta>



Cantabria zeharbideko lanak
Egilea: Ayuntamiento de la Villa de Ermua Ermuko Udala
<https://www.ermua.eus/es/dosieres/infraestructuras>



Iparraguirre kalea

Egilea: Ayuntamiento de la Villa de Ermua Ermuko Udala

<https://www.ermua.eus/es/documentos/calle-iparraguirre>



1982.01.04. Goienkale kalea (antzinako Santa Cecilia kalea)

Egilea: Ayuntamiento de la Villa de Ermua Ermuko Udala

<https://www.ermua.eus/es/documentos/calle-goienkale-antigua-santa-cecilia>



Trenbide-pasagunea Izelaieta kalean

Egilea: Ayuntamiento de la Villa de Ermua Ermuko Udala

<https://www.ermua.eus/es/documentos/paso-nivel-calle-izelaieta>

Eranskina: Elkarrizketatutako pertsonen eta eztabaida-taldeetan parte hartu dutenen taula

	Taldeak	
[G1]	Gaztela eta Leongo Kultur Zentroa	Talde honetan lau gizonek hartu dute parte
[G2]	Galiziako Zentroa	Talde honetan bost gizonek hartu dute parte
[G3]	Armeria Eskola eta Unibertsitate Laborala	Talde honetan lau gizonek hartu dute parte. Horietako hiru Armeria Eskolakoak dira, eta bat Unibertsitate Laboralekoa
[G4]	Gaztela eta Leongo Kultur Zentroa	Lau emakumek hartu dute parte
[G5]	Extremadurako Kultur Zentroa	Hiru gizonek eta hiru emakumek osatutako taldea

Elkarrizketak	
[E1]	Cuencatik etorritako gizona
[E2]	Emakumea, enpresaburua
[E3]	Armeria Eskolako irakaslea
[E4]	Ermuko alkate ohia
[E5]	Emakumea, enpresaburua
[E6]	Gizona, enpresako zuzendaria
[E7]	Gizona, enpresako zuzendaria
[E8]	Gizona, enpresako zuzendaria
[E9]	Gizona, enpresako zuzendaria

IMMIGRAZIOA ETA HEZKUNTZA ERMUAN (1950 -1980)

Ander Delgado

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Ermua Bizkaian dagoen arren, Eibarrek eragin handia izan du Ermuaren garapenean, bereziki Gerra Zibila amaitu zenetik. Ermua Gipuzkoako herri horretatik gertu eta Bizkaiko beste udalerrri nagusi batzuetatik (Durango edo Markina-Xemein) urrun dagoenez, Eibarko hazkunde ekonomikoa faktore garrantzitsua izan da Ermuaren garapen ekonomikoan eta demografikoan. Eragin hori nabaria izan zen XIX. mendearen amaierako industrializazio-prozesuan, armagintzaren sektorea Eibarren industrializatu zenean. Baina, zalantzarik gabe, Gerra Zibilaren ondoren izan zuen garrantzi handiena, eta, agian, erradikalena ere. Aurreko kapituluan xehetasun handiagoz aztertu da eskualde horren industrializazio-prozesua eta Ermuan izan duen eragina. Horregatik, Ermuaren hazkunde ekonomikoa baino ez dugu aipatuko hemen, berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera bereziki nabarmendu zena. Askotariko ekoizpena zuten fabrikek, eta gero eta eskulan gehiago eskatzen zuten¹ (Azcona, 2003: 578-580; Sapsootham, 2018: 52-55).

Ermuaren industrializazioa ez zen Eibarren erabat subsidiarioa izan, bere garapen-dinamika propioa ere ezagutu baitzuen, bai ekonomikoa bai demografikoa. Gipuzkoako udalerrri horren ezaugarri batek bai lagundu zion Ermuko hazkundearen “ereduari”: Eibarren lur-eskasia zegoenez, tailer eta fabrika askok Bizkaiko herri hori aukeratu zuten bertan ezartzeko. Kapitulu honen helburuetarako, ordea, garrantzitsuagoa da egoera horren beste ondorio bat: Eibarren lurzoru eraikigarriaren eskasia zegoenez,

¹ Jose Manuel Azcona. Historia general de la villa de Ermua. Del Paleolítico al asesinato de Miguel Ángel Blanco. Ermua: Ayuntamiento de Ermua, 2003, pp.578-580 [Disponible en <http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/32999>, consultado 11.11.2022]; Itziar Sapsootham Arévalo, Industria, demografía y urbanismo en Ermua: Análisis de la relación del boom demográfico y el desarrollo urbanístico entre 1955 y 1975, Ayuntamiento de Ermua, 2018, pp. 52-55. https://www.ermua.eus/sites/default/files/repositorio-archivos/Analisis_de_la_relacion_entre_el_boom_demografico_y_el_desarrollo_urbanistico__19551975_Opti_19_06_2018_16_18_06.pdf


nabarmen gora egin zuen Ermuko biztanle-kopuruak, eta inguruan lan egiten zuten langile askoren eta haien familien bizileku bihurtu zen Ermua. Eibarko lur-eskasia konpentsatu egin zuen Ermuak zuen lur erabilgarriak eta herri horretan aurrera eraman zen etxebizitzak eraikitzekeo jarduera handiak. Honako datu honek erakusten ditu etxebizitza-parkearen hazkunde horrek zenbateko garrantzia izan zuen: 1960an 631 etxebizitza zeuden udalerrian erroldatuak, eta 1970ean 3.765era iritsi zen kopuru hori, horietako asko sei solairu edo gehiagoko eraikinetan. Hau da, % 496´7ko hazkundera izan zen hamarkada horretan. Horri esker, aurre egin ahal izan zitzaion eremuan bizi izan zen immigrazio-prozesu biziaren ondorioz herrian izandako biztanleria-kopuruaren gorakada izugarri eta ia bat-batekoari, langile askok Ermua aukeratu baitzuten bizitoki gisa Eibarren ez zutelako bizilekurik aurkitzen. Etxebizitza-eskari handi horri aurre egiteko gaitasun hori erraztu egin zuen Ermuan inolako kontrolik eta hirigintza-planik ez egoteak. Horri esker, lursail asko birkalifikatu egin ziren, salmenta errazteko, eta premiaz eta presaka eraiki ziren etxebizitzak, zegoen eskari handiari erantzuteko. Etxebizitza haiek eraikitzekeo ez zen inolako hirigintza-plangintzarik jarraitu, eta ez zen arau handirik bete, ez altuera-mugarik, ez eraikuntza-homogeneotasunik, ez eta estetika-homogeneotasunik ere².

Aipatutako hirigintza-hazkunde hori herriak 1950etik aurrera izandako biztanleria-hazkundearen intentsitatearen ondorioa izan zen —nahiz eta horren arrazoietakoa bat ere izan daitekeen herrian lan egiten zutenak baino egoiliar gehiago erakartzea—,

² Jesús Dorao Lanzagorta, *Estudios socio-económicos comarcales. Duranguesado*, Servicio de Estudios de la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao, Bilbao, 1973, pp. 26-184.; José Ignacio Rui Ruiz-Olabuénaga, (dir.), *Ermua, comunidad en eclipse*, Ermua, 1973, p.11. ; Jose Manuel Azcona, op. cit., p. 574.; Itziar Sapsootham Arévalo, op. cit., pp. 54-94.
https://www.ermua.eus/sites/default/files/repositorio-archivos/Analisis_de_la_relacion_entre_el_boom_demografico_y_el_desarrollo_urbanistico__19551975_Opti_19_06_2018_16_18_06.pdf

I. grafikoko datuek argi erakusten duten bezala. Urte horretan 1.700 biztanle baino gehiago zeuden herrian, eta hamar urtean beste 1.300 gehitu zitzaizkion. Hamarkada horretan % 75,6ko hazkundera izan zuen, baina urte horretatik aurrera (1960), herriak jendetza “eztanda” izugarria bizi izan zuen, beste lekuetan parerik izan ez zuena. 1960 eta 1970 bitartean, % 380´8ra iritsi zen hazkunderaren ehunekoa. Hazkunde horren intentsitatea zenbatekoa izan zen ohartuko gara kontuan hartzen badugu 1960an 3.000 biztanle pasatxo izatetik, beste 7.000 biztanle gehiago izatera pasa zela bost urteko epean. Horiei beste 4.500 gehitu zitzaizkien 1970ean eta beste 3.000 1975ean. Hazkunde hori nabaritu zen, halaber, eskualdeko biztanleen artean herri horrek hartu zuen garrantzia. Lehen urte horretan, Durangaldeko biztanleria osoaren % 5 zen Ermuan bizi zen biztanleria, eta 1970ean guztizko biztanleriaren % 19,3 izatera pasa zen, biztanleriaren hazkunderaren eraginaren erakusgarri³ (Dorao, 1973: 26 y 147).

I. grafikoa: Ermuko biztanleriaren hazkunderaren bilakaera (1920-2001)



Iturria: Neuk egina, DORAO (1973:26) eta EUSTAT oinarri hartuta⁴.

³ Jesús Dorao Lanzagorta, *op. cit.*, pp. 26-147.

⁴ Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus: https://www.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/DB/-/PX_010152_cepv1_ep31.px/table/tableViewLayout1/ Kontsulta-eguna: 2022.10.29

Hamarkada horietako immigrazio-mugimendu oso bizia izan zen biztanle-kopuruaren hazkunde horren ezaugarrietako bat, batez ere 50eko hamarkadaren amaieran, 1970eko biztanleria-
ren osaerak islatzen duen bezala. Urte horretan, Ermuan errol-
datutako biztanleen % 16 (2.390 biztanle) bakarrik ziren herrian
jaioak, % 6,2 (922 biztanle) Bizkaiko beste herri batzuetan jaioak,
eta % 77,8 (11.630 biztanle guztira) probintziaz kanpo jaioak zi-
ren⁵. Ermuaren kasuan, biztanle berri horietako asko Galiziako
Ourense probintziaz etorri ziren, batez ere Allariz ingurutik,
baina baita Gaztela eta Leondik edo Extremaduratik ere⁶. Ohikoa
zen immigrazio-prozesu hori lan egiteko adinean zeuden gizonek
hastea, eta handik gutxira, lanean egonkortu ondoren, emaku-
meak iristea. Emakume batzuk langile horiekin jada ezkonduak,
eta beste batzuk Ermuan ezkondu zirenak. Horren ondorioz, fa-
milien kopuruak nabarmen egin zuen gora. 1971n guztira 3.486
familia zeuden erroldatuak, eta familia bakoitzeko kide kopurua
4´3koa zen batez beste. Hau da, ondorengo asko zituzten fami-
liak ziren⁷. Horren ondorioz, gaztetzat har daiteke Ermuko biz-
tanleria: biztanleen ia erdiak (% 49,59) 24 urte baino gutxiago
zituen 1970eko erroldan, 25 eta 49 urte bitarteko biztanleak, be-
rriz, % 40,51 ziren, eta 50 urtetik gorako biztanleak % 9,88.

⁵ Jesús Dorao Lanzagorta, *op. cit.*, p. 160.

⁶ I. Sapsótham Árevalo. (2018). *Industria, demografía y urbanismo en Ermua. Análisis de la relación del boom demográfico y el desarrollo urbanístico entre 1955 y 1975*. Ermua: Ayuntamiento de Ermua [https://www.ermua.es/pagsbiblio/fondo_local/ca_fondolocal_detalle.asp?IdDossier=559&tipo=PDF, 10.11.2022]

⁷ Jesús Dorao Lanzagorta, *op. cit.*, p. 159.

I. TAULA: Ermuko biztanleak adinaren arabera (1970)

	4 urte artekoak	5 – 9 urtekoak	10 – 14 urtekoak	15 – 19 urtekoak	20 – 24 urtekoak
1970	2.353	1.711	1.159	847	1.208
% guztizko biztanleekiko	% 16'03	% 11'66	% 7'89	% 5'77	% 8'23

Iturriak: Neuk egina, 1970eko errolda oinarri hartuta⁸.

Epe laburrean bizi izandako biztanleria-hazkundeak eta eskolatzeko adinean zeuden biztanleen kopuruaren hazkunde handiak benetako arazoa sortu zien Ermuko tokiko agintariei: nola ezarri hezkuntza-zerbitzuen sare egoki eta nahikoa herrian zegoen eskaera handi eta ia bat-batekoari erantzuteko?

⁸ Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus: <https://www.ine.es/inebaseweb/treeNavigation.do?tn=92693&tns=142072#142072>. Kontsulta-eguna: 2022.11.11.

DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN HEZKUNTZA ETA BIGARREN HEZKUNTZA

Herri jakin batean hezkuntza-sistemari buruzko ikerketa egitea ez da beti lan erraza izaten; are gutxiago gaurkotasunetik zenbat eta gehiago urrundu. Askotan, zaila izaten da horrelako ikerketa baten oinarritzko galderei erantzun ahal izateko behar adina dokumentazio lortzea hezkuntza-sistema baten ezaugarriak zehazten saiatzean: ikastetxeen eta ikasleen kopurua, hezkuntza-emaitezak, “eskola-porrota” eta eskola-uztea, eskola-absentismoa, hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-jardunbideak, etab. Hori da Ermuaren kasua ikerketa honetan aukeratutako aldian. Zatikatua eta osatu gabea izan da gaiari buruzko sarre-ra hau egiteko eskuratu ahal izan dugun informazioa. Hala ere, erabilitako dokumentaziotik ondorioztatzen den pertzepzioa bat dator hirurogeita hamarreko hamarkadan Ermuari buruz egindako lan baten hasieran planteatutako ideiarekin:

Ermuan izandako kontrolik gabeko eta bat-bateko hazkundeak desoreka sortu du gizarte- eta komunitate-zerbitzuen eskariaren eta eskaintzaren artean, eta hiri-kaos bihurtu da: etxebizitzak, eskolen eta lanaren eskaintza hain modu kaotikoan egiten da, non bizikidetza suntsitzen ari baita⁹.

Biztanle-kopurua bat-batean handitze horrek egoera larrian jarri zuen berrogeita hamarreko hamarkadan biztanle-kopuruari ze-

⁹ José Ignacio Rui Ruiz-Olabuénaga, *op. cit.*, p. 5.

gokionez “txikitzat” jo zitekeen herri bateko hezkuntza-sistema. Transkribatutako testuan esaten den bezala, hezkuntza-zerbitzua kaotiko bihurtu zen joan den mendeko hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan. Nolanahi ere, aurreko testu horretatik, autore horiek egindako baieztapena: “bizikidetza suntsitzen ari baita”, kontuz hartu beharko litzateke agian. Artikulu honetan behintzat ezin dugu egoera hori zegoenik baieztatu. Hala ere, transkribatutako testu horretatik beste ideia garrantzitsu bat bai ondoriozta daiteke lan honen helburuetarako: kaos horrek eta hezkuntza-gabezia horiek zer eragin izan zuten aldaketa azkarren urte haietan bizi izan ziren ermuarren belau-naldien etorkizunean? Zer derrigorrezko hezkuntza jaso zuten eta nola eragin zien horrek haien bizi-itxaropenei eta, are garrantzitsuagoa, lan-itxaropenei? Zaila da galdera horiei erantzutea, baina saiaturako gara, gutxienez, gai horri buruzko sarrera bat egiten hurrengo orrialdeetan, eta etorkizunari begira planteatutako galderei buruz hausnartzen lagunduko digun informazioa ematen.

Esan bezala, Ermua herri txiki samarra zen joan den mendeko berrogeita hamarreko hamarkadan. 1.700 biztanle pasatxo zituen 1950ean, eskolatzeko adinean zeuden biztanleen kopurua ere ez zen oso handia, eta badirudi nahikoa ikasgela bazituela garai hartako haur-kopuruari erantzuteko. Hori guztia, jakina, garai hartako estandarrentzat, gaur egungoekin alderatuta oso desberdinak baitziren; izan ere, haur guztiak ez zeuden eskolatuta, hainbat arrazoiengatik. Herriko Lehen Hezkuntzako Udal Batzarraren akta-liburuan, 1957ko martxoan egindako ikuskapen-bisitaren berri eman zen, eta adierazi zen hiru “*mutiko-eskola*” zeudela, hiru maisuk zuzenduak eta 140 mutiko zeudela matrikulatuak; eta beste hiru “*neskato-eskola*”, ez dakigu zenbat neskato zeuden matrikulatuak, eta beste hainbeste maistrak

zuzenduak. Gela unitario haietan adin desberdinetako mutikoak edo neskatoak elkartzen ziren eta irakasle bakar batek hezten zituen. Aipatutako matrikulazio-datu horien arabera, 40 ikasle baino gehiago izango zituzten ikasgela haiek guztiek. Ikuskatzaileek adierazi zuten, aurrerago azalduko den alderdi bat salbu, ikasle haiek ondo zainduak zeudela ikasgela haietan¹⁰. Baina errealitate horren berri ematearekin batera, une hartarako argi zegoen gauzak eraldatzen ari zirela herrian.

1957an, ikuskapen haiek egiten zituztenean, tokiko agintariak hasi ziren ikusten zailtasun handiak zeudela nabarmen hazten ari zen biztanleria eskolatzeko. “Herri honetan biztanle-kopurua etengabe ari da hazten, batez ere Espainiako beste eskualde batzuetako langileen immigrazioaren ondorioz”, eta horrek zaildu egiten zuen zegoen eskola-eskaerari behar bezala erantzutea. Horregatik, beste zortzi ikasgela eraikitzea proposatu zuen udalak¹¹, eta, horretarako, irtenbide merkeen gisa proposatu zen beste solairu bat gehitzea garai hartan eskola izateko eraikitzen ari ziren eraikinean. Horrekin espero zuten “urte batzuetarako behin betiko konponbidea ematea herri honetan garrantzitsua den arazo horri”¹². Baina handik gutxira, 1958ko martxoan, argi geratu zen aipatutako irtenbide hori epe ertainerako proiektu bat besterik ez zela, eta ez zuela konponduko herrian zegoen egoera. Izan ere, alkateak zuzenean hitz egin zuen “herri honetan dagoen eskola-arazoaz”. Horregatik, egun horretan, behin-behineko eta premiazko neurri gisa, eskatu zen herrian beste bi ikasgela irekitzeko, bata mutikoentzat eta bestea neskatoentzat.¹³ Zonaldeko hezkuntzako ikuskatzaileak haratago eraman zuen ideia

¹⁰ Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusia, EDTMG-00004.

¹¹ Erreferentzia gisa hartzen badugu, lehen aipatu bezala, ikasgela bakoitzeko berrogei ikasle inguru zeudela, zortzi ikasgelako eskaera hori egitean —hipotesi gisa planteala liteke—, pentsa daiteke 320 haur inguru egongo zirela laster eskolatu beharrak.

¹² Ibid., 1957.10.02ko akta.

¹³ Ibid., 1958.03.03ko akta.

hori, eta lehentxeago, 1958ko urtarrilean, zuzenean proposatu zuen tokiko agintariek eskola-gune berri baten eraikuntza aktiba zezatela, “haren behar handia zegoelako eta egiaz onuragarria izango zelako Hiriaren eta, oro har, Aberriaren interesetarako”¹⁴.

Beraz, berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran jada, egoerak agerian utzi zuen zailtasunak zeudela eskola-eskaerari erantzuteko, baina arazo hori areagotu besterik ez zuen egin hirurogeiko hamarkadatik aurrera izandako biztanle-kopuruaren hazkunde handiak. Lehen adierazi bezala, 1960tik aurrera hasitako hazkunde ia “bat-batekoak” are premiazkoago egin zuen errealitate horri irtenbidea emateko beharra. Badirudi motelak izan zirela berrogeita hamarreko hamarkadan eskola-instalazio berriak eraikitzeko egindako proposamenak, administrazio-prozedura askorekin gertatzen zen bezala, diru askorik ez zegoenean. Egoera hori agerian geratu zen hamarkada bat geroago, 1969an, obra horiek hasteko eskatzen jarraitzen baitzen. Lehen Hezkuntzako Udal Batzarrak 1969ko urriaren 4an egindako bilkuran berriro ere agerian jarri zen egoera larria zela. Luze samarra bada ere, egun hartako aktaren zati bat transkribatu dugu ondoren, egoera zein korapilatsua zen azaltzeko:

*Egoera hori konpondu ahal izateko, [hezkuntzako ikus-
katzaileak] adierazi zuen onena zela agintari nagusiei
errealitatea azaltzea, eta, horretarako, alkate jaunari
galdetu zion ea zein zen udalerriko egungo errolda.
Erantzun zion erroldan 19.325 biztanle zeudela, eta
% 15 inguru egongo zirela eskola-adinean. Horren
arabera, 2.898 ikaspostu beharko lirateke. Parrokoari
galdetu zitzaion zenbat jaiotza izaten diren urtean, eta
erantzun zuen 500dik gora izaten direla, eta, beraz,
urte batzuk barru, 4 eta 14 urte bitarteko 5.000 neska/*

¹⁴ Ibid., 1958.01.30eko akta.

mutil inguru izango dira udalerrian.

Egoera egiaz zertan zen ikusita, eta kontuan hartuta 16 ikasgela besterik ez daudela irakaskuntzarako erabilgarriak, behar-beharrezkoa da eskola-gune berriak eraikitzea. Egoera kaotiko hori konpontzeko, ikuskatzaile andreak alkateari esan zion obra horiek egiteko beharrezkoa izango zela Udalak lursailak lortzea, eta alkateak erantzun zion jada 10.600 m² bazituela S. Pe-laion eta 3.000 m² S. Lorentzon. Leku horiek oso ego-kiak ziren zentro horiek eraikitzeko¹⁵.

Batzar horretan Ermuko alkateak emandako biztanleriari buruzko datuak nabarmen handiagoak dira gorago aipatutako erroldetan jasotako datu ofizialak baino. Agian, pentsa liteke, biztanleriari buruzko datuak handituta, udalak hezkuntza-agintariei presioa egin nahi ziela udalerrian neurriak azkarrago har zitezen. Baina badirudi beste egoera batekin zegoela lotuta: herrian biztanle-kopuru handia egotea bere egoera erregularizatu gabe zuena eta erroldatu gabe zegoena. Ruiz-Olabuenagaren lanean ere aipatu da gorabehera hori (1973:5-6). Beraz, datu horiek adierazten dute, alde batetik, datu ofizialek islatzen zutena baino handiagoa zela immigrazioaren eragina urte horietan. Eta, bestetik, eta aurrekoaren ondorioz, “eskola-arazoa” ere larriagoa zela.

Eskola-adinean zegoen biztanleriaren hazkundearen ondorioz, lehen arazoa zen haur guztiak artatzeko instalazio egoki nahikorik ez izatea. 1957an egindako ikuskapen-bisita berean (lehen aipatu duguna) adierazi zen udal-haurtzaindegia egoera penagarrian zegoela, lokalak ez zituelako betetzen beharreko “baldintza pedagogikoak, higienikoak eta giza baldintzak”¹⁶. Instalazioen

¹⁵ Ibid., 1969.10.04ko akta.

¹⁶ Ibid., 1957.03.22ko akta.

muga horiek larriagotu egin ziren handik urte gutxira, aipatutako biztanle-kopuruaren gorakadaren ondorioz: ez zegoen lokal fisikorik hainbeste ikasleri arreta emateko. Egoera horren aurrean, ikasgela berri horiek sortzeko ahal zituen lokal guztiak bilatu beste erremediorik ez zuen izan udalak. 1967ko Lehen Hezkuntzako Udal Batzarraren bilkura batean adierazi zen bezala, udala helburu horretarako obrak esleitzen ari zela adierazteaz gain, esan zen kudeaketa lanak egiten ere ari zirela “hurrengo ikasturterako guneak edukitzeko eta matrikula guztia hartu ahal izateko”. 1970ean, Teresa Murga Ikastetxe Nazionaleko Eskola Kontseiluaren batzorde batean zertxobait gehiago zehaztu zen ikasleen sakabanatze-egoera hori¹⁷. Bizkaiko Lehen Hezkuntzako administrazio-ordezkaritzaren agindu bati erantzunez (haren bidez, irakasle gisa ere jarduteko agindu zitzaion ikastetxeko zuzendariari), batzarrean erabaki horren aurka argudiatu zen, ekar zitzakeen arazoengatik, eta hauxe adierazi zen:

Eskola Kontseilu honek aztertu ditu Zuzendaritza Nagusiaren agindu horrek eskola honetan sortzen dituen eragozpen handiak. Eskolak 28 unitate ditu, eta horietatik 17k eskolako eraikinean bertan funtzionatzen dute, eta beste 11 unitateak ikasgela gisa egokitutako guneetan daude, udalerriko hainbat tokitan banatuak.

Ermuak immigrazio handia du. 1965. urteaz geroztik, batez beste, 425 familia berri etortzen dira urtean, eta horrek esan nahi du ia egunero ikasle berriak sartu behar direla eskola horretan. Ikasle horiek zuzendari jaunak hartu eta matrikulatu behar ditu.

Eskola horrek 1.339 ikasle ditu matrikulatuak gaur egun. Haur multzo horrek, eta mendeko langilerik ez

¹⁷ Ibid., 1967.06.27ko akta.

*izateak, burokraziarekin zerikusirik ez duten hamaika arazo sortzen ditu*¹⁸.

Arazo horiek behin eta berriz errepikatzen ziren eta ikasleak hainbat lokaletan banatuak zeuden udalerrian, baina 1970eko abenduan are larriago bihurtu zen egoera: eskola-kontseiluan jakinarazi zen Teresa Murga ikastetxeko “bigarren eta hirugarren solairuetako habeetan arrakala ugari agertu zirela”, eta udal-arkitektoaren aholkuz eskolak bertan behera utzi ziren beharreko txosten teknikoa jaso arte. Hori zela eta, ikastetxeko 850 haurrentzako lekua bilatu behar izan zen. Hainbat aukera planteatu ziren: udalerrian hamazazpi lokal bilatu, edo eskola aurrefabrikatuak jarri, edo, aurrekoa ezinezkoa bazen, txanda bikoitzeko eskolak ezarri gauean¹⁹.

Esan bezala, Ermuko Udala dagoeneko erabakiak hartzen ari zen arazo hura konpontzeko, Ongarai inguruan ikastetxe berria eraikitzeko lursailak erosita, hura baitzen eskola eraikitzeko leku egokiena. Aldundiaren finantza-laguntzarekin²⁰, azkenean lortu zuen Santiago Apostolua ikastetxea inauguratzea 1972an, eta hurrengo urtean Teodoro Zuazua ikastetxea izeneko beste eraikin batekin handitu zuen. Bi ikastetxe horiek Ongarai Eskola eratu zuten 1996an²¹. Ikastetxe horiek eraikitzea urrats handia izan zen aipatutako instalazio-arazoak konpontzeko. Hala ere, 1981/1982 ikasturtean ikastetxe horretako ikasle batzuk udale-

¹⁸ Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagausia, EDTMG-0003/4, 1970.02.14ko akta. Akta horretan emandako datuetatik ondoriozta daiteke batez beste 47 ikasle inguru zeudela ikasgela bakoitzean.

¹⁹ 1974an, eraikin horren teilatua egoera txarrean zegoen oraindik, eta itoginak zituen. Ibid., 1970.12.09ko eta 1974.05.09ko aktak.

²⁰ Bizkaiko Foru Agiritegia, Administrazio Atala, [AFB-A] R-03215/012. 1977an, San Lorentzo auzoan eskolaurreko eta OHOk beste eskola bat eraikitzeko behar zen lursaila desjabetzeko izapideak ere hasi ziren (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1977.11.19, 25384. or.). Beraz, tokiko hezkuntza-eskaintza garatzeko prozesuarekin jarraitu zen.

²¹ Informazioa hemendik hartua: <http://www.ongaraieskola.net/es/presentacion.asp> [Kontsulta-eguna: 2022.12.13].

rriko eraikinetan eta lonjetan banatuak zeuden oraindik²². Egoera horrek erakusten du oso zaila izan zela Ermuko herritarrak eskolatzeko arazoari irtenbidea ematea, baita orain dela gutxi arte ere.

Udalerrian herriko ikasleei behar bezala erantzuteko zeuden arazoak egiaztatu dira orain arte. Zalantzarik gabe, instalazioen gabezia eta muga horiek ondorioak izango zituzten ikasle haiek jasotako hezkuntzaren kalitatean, baita irakasleek beren esku zegoen guztia eginda ere egoera hura arintzeko eta konpentsatzeko. Zailtasun horiei beste arazo batzuk ere gehitu behar zaizkie, hala nola eskola uztea edo, nahiz eta egiaztatzeko eta kuantifikatzeko zailagoa den, herriko haur batzuk ez eskolatzea. Horrelako kontuek Ermuko hezkuntza-sistemaren beste ezaugarri batzuk islatzen dituzte eta laguntzen digute herriko gazteek zer-nolako hezkuntza jaso zuten hobeto ulertzen. Egoera hori bideratzen joan zen hirurogeita hamarrekoko hamarkadatik aurrera, eskola-sistema oinarri sendoagoen gainean ezartzen joan zenean eta ikasgeletara joateko derrigortasunaren kontrola eraginkorrago bihurtu zenean. Baina prozesu hori ezartzen joan zen arte, kontsultatutako informazioek egoera gutxienez konplexua erakusten dute, negatiboa edo gorago adierazitako “kaos” horren parte zela ez esateagatik. Eskura ditugun datuen arabera, badirudi haur batzuk ez zeudela eskolatuak edo, agian, seguruenik, askok goiz utziko zituzten beren ikasketak. Horrek eta eskola-absentismoak izan zezakeen eraginak lagun diezagukete tokiko hezkuntza-sistemaren ezaugarriak baloratzen, baina, zoritxarrez, ez dago daturik alderdi horiek behar bezala kuantifikatzeko.

²² Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusia, EDTMG-0003/4, 1981.06.03ko akta.

2. TAULA: Biztanleria, adinaren eta ikasleen arabera, Ermuan (1968)

	2-5 urte	6-13 urte	14-16 urte	Zegoen matrikula
Biztanleria adinaren arabera 1968an	1.406	2.526	593	
Ikasleak Ermuan 1968an		1.900	265	1.465

Iturria: Neuk egina, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren azterlana oinarri hartuta (1972: 280).

2. taulan, Ermuko eskola-sistemaren ezaugarriak zehazten laguntzen diguten bi datu-mota ageri dira. Alde batetik, erroldato-tako biztanleriarena, adin-tartearen arabera. Bestetik, udalerriko ikasleak. Informazio horrek bi inguruabar desberdin islatzen ditu, 1973an argitaratutako Durangaldeko eskualdeari buruzko azterlanean emandako beste batzuekin alderatuz gero²³. 6 eta 13 urte bitarteko biztanleak, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko aldiari dagozkionak, eta Ermuan eskolatutako biztanleriari dago-kiona, bi zirkunstantzia islatzen dituztenak. Alde batetik, ikasle horietako batzuk herritik kanpo eskolatuko ziren, eta Eibar izan zitekeen horretarako aukeratutako herrietako bat, aipatutako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren azterlanak (1972:276) adierazi bezala. Bestalde, beste aukera bat da gazte asko eskola-tu gabe egotea edo ikasketak utzi izana, hori ere ez baitzen gauza arraroa urte haietan. Eskolaurreko irakaskuntzaren kasuan oso agerikoa da; izan ere, familientzako borondatezko hezkuntza-fa-sea izanik, zerbitzu hori gutxi erabiltzen zen herrian. Beharbada, aldi horretarako ikasgela bakarra (pribatua) egoteak ere mugatu egingo zuen familiek arlo horretan hartu nahi zuten erabakia. Ze-goen eskariari ezin zitzaion herrian bertan erantzun, eta, beraz, berriz ere Eibar izango zen haur haietako batzuen helmuga. Hala

²³ Jesús Dorao Lanzagorta, *op.cit.*, pp. 213-216.

ere, egoera horren azalpenik onargarriena izan liteke —zerbitzua ordaindu behar izatean familia-ekonomia batzuentzat eskuraezina izateaz gain— garai hartan emakumeen esku uztea familien eta ondorengoen zaintza-lanak, haietako askok fabriketako aurrez aurreko lana uzten zutenean ezkontzean eta familia izatean²⁴. Baina datuek, nolanahi ere, zerbitzu hori oso gutxi erabiltzen zela adierazten dute. Udalerriko 2 eta 5 urte bitarteko 1.406 haurren artean, eskolatze-tasa % 3 besterik ez zen, hau da, 42 haur inguru²⁵.

Lehen Hezkuntzan egoera are konplexuagoa zen aldi horretan. Aipatu dugun Durangaldeari buruzko eskualde-azterketak adierazten duenez, udalerriko 6-12²⁶ urteko ikasleen artean (2.526 neskato eta mutiko) 1.465 baino ez zeuden matrikulatuak. Hau da, 1.061 ikasle ez zeuden ikastetxeetan. Horrek esan nahi du % 58koa zela eskolatze-tasa, hau da, gazte horien erdia baino gehiago ez zeuden matrikulatuak. Zifra hori oso txikia da eskualdeko beste herri batzuetako tasekin alderatuta²⁷ (Dorao, 1973:215). Informazio horrek bi alderdi ezkuta ditzake. Alde batetik, sei urtetik aurrera eskolatu gabe zeuden haurrak izan zitezkeen zuzenean; beraz, ezin dugu jakin haietatik zenbat izan zitezkeen neskatoak. Baina une honetan, gaiari buruzko azterketa espezifikorik ezean, hipotesi posible gisa baino ezin da aipatu hemen. Bestalde, mutikoen eta neskatoen kolektibo horretan sar litezke ikasketak goiz uzten zituztenak, adibidez, hamaika urte edo gehiago zituztenean. Une horretan, asko eta asko lanean hasiko

²⁴ Oscar Aranda, Alazne Astarloa, Francisco Javier Carrascosa, 2000, El papel de las patronas en Ermua. La importancia del trabajo doméstico en el proceso productivo. Ermua, 2000. Ayuntamiento de Ermua. Departamento de Igualdad de Oportunidades [Disponible en <http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/33005>, consultado 11.11.2022].

²⁵ Jesús Dorao Lanzagorta, *op.cit.*, pp. 213-214.

²⁶ Hezkuntza Ministerioaren datuak 13 urtera artekoak dira. Baina bi testuek datu bera dute: 2.526 ikasle adin horietan.

²⁷ Jesús Dorao Lanzagorta, *op.cit.*, p.215.

ziren gazte-gaztetatik hainbat lanetan, familiei baliabideak emateko²⁸. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren bidez lortu ahal izan dugun informazioak (1972:280), ordea, egoera konplexuagoa erakusten du. 6 eta 13 urte bitartekoen artean 2.526 biztanle zeuden, baina 1.900 baino ez dira "*ikasle*" gisa aipatzen adin horietan, hau da, erroldetan agertzen direnak baino gazte gutxiago. Berriz ere, zifra berri hori erreferentziatzat hartuta, oraindik ere neskatoen eta mutikoen talde handia dago, 626, udalerriko hezkuntza-estatistiketarako kontuan hartzen ez direnak, agian herritik kanpo eskolatuta egoteagatik. Izan ere, bi iturrietan ez da aldatu "*zeuden matrikulen*" kopurua (1.465), eta, erreferentzia gisa 1.900 ikasleren datu hori kontuan hartuta, % 75,21eko eskolatze-tasa emango luke. Tasa horrek, aipatutako eskualde-azterketan emandakoa baino handiagoa izan arren, oso txikia izaten jarraitzen zuen urte haietan Bizkaiko eta Gipuzkoako batez bestekoekin alderatuta.

Baina beste datu interesgarri bat ageri da txosten horretan. Bertan 1.900 dira udalerriko Lehen Hezkuntzako ikasleak, eta "*zeuden matrikulen*" kopurua, berriz, 1.465 ziren. Horrek 435 ikasleko aldea dakar berriz ere, estatistiketatik "kanpo" daudenak. Zaila da datuetan dauden alde horiei erantzun eztabaida ezina ematea. Une horretan udalerrian eskolatu gabe zeudenen taldean sar litezke? Baliteke hipotesi hori egokia izatea. Hainbatetan aipatu dugun Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren azterlanean (1972:276) adierazten zen 1968an 170 ikaspostu falta zirela ikasle "berrien" eskaerari erantzuteko. Durangaldeko eskualde-azterketak²⁹ aipatzen du "*ikastetxeen eskasia betikotzea*" zela eskolatze-tasa horien arrazoietakoa bat, eta landa-ingurune zabalak zituzten beste udalerrri batzuetan eskolak baserrietatik urrun

²⁸ Egoera hori murriztu egin zen urteen poderioz, baina frankismoaren amaieran bazegoen oraindik (Amich, 2008).

²⁹ Jesús Dorao Lanzagorta, *op.cit.*, p. 216.

egotea gehitu behar zaio horri. Bigarren arrazoi hori ez dirudi garrantzitsua izan zenik Ermuan. Gipuzkoako Lehen Hezkuntzari buruzko urte haietako azterlan batek argi eta garbi erakusten du ez eskolatzea ez zela arazo txikia edo herri jakin batzuetara mugatua. Lan horren arabera, Gipuzkoan % 90ekoa zen 6 eta 14 urte bitarteko haurren eskolatzetasa. Irakasleei egindako inkestetan oinarritutako lan horretan —beraz, “*eskola-oinean*” ezagutzen zuten errealitateari buruzko pertzepzioan—, esaten zen errealitate hori gertatzen zela, esate baterako, Eibarren eta Elgoibarren. Haietan, galdetutako irakasleen ustez, udalerrian 6 eta 14 urte bitarteko haur “*batzuk*” edo “*dezente*” zeuden inongo eskolara joaten ez zirenak. Eta egoera hori azaltzeko arrazoiak honako hauek ziren: “*egungo eskoletan lekurik ez egotea*”, “*mutilek etxean laguntzen dute*” eta “*gurasoen interes falta*”, edo arrazoi horien guztien nahasketa. Probintzia horretako hiri-ingurunean, lehenengoa (*lekurik ez egotea*) eta hirugarrena (*familien interesik eza*) ziren egoera hori azaltzeko arrazoi garrantzitsuenak. Hala ere, seguru aski, eskolatzeko horrek ekarriko zuen zuzeneko “*kostua*” edo gastua ere gehitu liteke, familia pobreenentzat gainditzeko zaila izango baitzen arazo hura. Edo, agian, baliabideak “*irabazteari utz*” ziezaioketelako seme-alabek familiaren ekonomian laguntzen ez bazuten ahal zutenean lan eginenez, eskolan egon behar zutelako³⁰.

Lehen Hezkuntzaren eta Bigarren Hezkuntzaren arteko iragaitea da aztertzeko beste alderdi zail bat, herrian estatistikarik ez dagoelako. Zaila da konparatu egin behar direlako hamalau urtera arte iristen zen derrigorrezko eskolatzeko aldia eta hamabi urterekin ikasleentzat irekitzen ziren ikasketa-aukerak. Herrian gertuko aukerarik ez zegoenez, eta familientzat ez zirenez eko-

³⁰ Jose Antonio Aguirre Elustondo. Así está la enseñanza primaria. Hablan los maestros. Informe GAUR. 1969, pp. 11-14 y 224-225. San Sebastián: José Antonio Aguirre Elustondo.

nomikoki bideragarriak —batez ere herritik joatea eskatzen bazuten— seme-alabek bigarren mailako ikasketekin jarraitzeko, mutikoek hamabi urterekin uzten zituzten ikasketak. “Mutiko askok” diogu, adin horretara iristen ziren neskato askorentzat izugarri murrizten baitziren ikasten jarraitzeko aukerak. Gipuzkoako probintziari buruzko azterlanean adierazten zenez, “*neskak dira eskolatzeari utzi eta etxean lanean hasten direnak*” Bigarren Hezkuntzara iristen zirenean (Aguirre Elustondo, 1969: 223). Hala ere, badirudi egoera hori ez dela neskena bakarrik: Ermuko datuek adierazten digute prozesu orokorra zela. 1968an erroldatutako hamalau eta hamasei urte bitarteko 593 gazteetatik % 44,68 baino ez zeuden Bigarren Hezkuntzan matrikulatuak (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, 1972:280)³¹.

Espainiako hezkuntza-sistemak, joan den mendeko hirurogeiko hamarkadan —1970eko Hezkuntzari buruzko Lege Orokorrak aldatu egin zituen jarraian aipatzen diren alderdietako batzuk—, sei eta hamalau urte artean ezarri zuen derrigorrezko hezkuntza-aldia, baina zenbait ibilbide ere ezarri zituen ikasleentzat, eta haiek zaildu zezaketen ikasketekin jarraitzea. Sei eta hamar urte bitartean *Oinarrizko* Lehen Hezkuntza ezarri zen, guztiek egin beharrekoa. Adieraziko diren bi ibilbideak hartzen ez zituztenek *Hobekuntzako* Lehen Hezkuntza egin behar zuten hamalau urte bete arte. Ikasketa haiek “bide hilean” amaitzen ziren, ondorengo beste ikasketa batzuekin lotzeko aukerarik ez baitzegoen. Gainerakoentzat, *Oinarrizko* Batxilergoa hasteko aukera zegoen hamar eta hamalau urte bitartean, eta hark atea irekitzen zuen *Goi Mailako* Batxilergorako, unibertsitate-ikasketetarako eta goi-mailako beste ikasketa eta ikasketa profesional batzuetarako. Lanbide Heziketako ibilbidea egin nahi zutenek, *Oinarrizko* Batxilergoa amaitu ez bazuten, hamabi eta hamalau urte bi-

³¹ Datu horiek kontuz hartu behar dira, bigarren mailako ikasketak hamabi urterekin hasten baitziren, eta ez hamalau urterekin, erabilitako estatistikan ageri den bezala. Nolanahi ere, erabaki da Ermuko gazteen artean zegoen egoeraren isla soil gisa erabiltzea kopuru horiek.

tartean Lanbide Hastapeneko bi urte egin behar zituzten, gero lanbide bat ikasten jarraitu ahal izateko.

Ibilbideen antolaketa horren ondorioz, Lehen Hezkuntzaren eta Bigarren Hezkuntzaren arteko bidea ez zen argia eta jarraitua; aitzitik, hamar urterekin ikasleek erabaki behar zuten zer bide jarraitu. Eta Lehen Hezkuntzako eskolan jarraituz gero, ikasketak amaitzen ziren puntura iristen ziren. Horrek ziurgabetasun handia sortzen zien familiei, arrazoa edozein izanik ere, beste hezkuntza-aukera batzuen ahaleginari eta gastuari aurre egitea ezinezkoa bazitzaien edo garrantzitsutzat jotzen ez bazuten. Eta ikasten jarraitzearen onurak argi ikusten ez baziren, zertarako jarraitu ikasten? Are gehiago fabrikaren batean lanean hasi eta dirua irabazteko aukera bazegoen. Eta hainbeste aldiz aipatutako GAUR txostenean adierazten zen bezala, apalenak eta pobreenak ziren hezkuntza debaluatu hori jasotzen zuten gizarte-sektoreak. Beren herrian ikasteko aukera horiek ez izateagatik, beste herri batera joateak zekartzan gastuak ordaintzeko zailtasunagatik edo batxilergoko ikasketak ematen ziren ikastetxe pribatuetan ikasketak ordaintzea ezinezkoa izateagatik, ondorengo prestakuntzekin jarraitzeko bide “itxian” uzten zituen gizarte-klase pobreenak. 1969. urtean Ermuko ikastetxe publikoan taldeak nola banatuak zeuden ikusita egiazta daiteke egoera hori. Bai neskentzat bai mutilentzat, eskola horretan irakasle bakarra arduratzen zen 6., 7. eta 8. mailaz adar bakoitzean, eta aurreko ikasturteetan, berriz, bi eta hiru ikasgela zeuden ikasturte bakoitzean. Horrek argi erakusten zuen Lehen Hezkuntzako azken ikasturteetan ikasle-kopurua galdu egiten zela herrian, eta arestian aipatu den egoera horregatik zen³². Hezkuntza-ibilbidea, beraz, debaluatua zen, eta lehen mailako ikasketen oinarrizko

³² Izan ere, beste aukera izango zen leporaino betetako bi ikasgela, ohikoa zena baino askoz ere ikasle gehiagorekin. Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusia, EDT-MG-00004, 1967.09.18ko akta.

ziurtagiri bat lortzea besterik ez zuen ahalbidetzen. Halakorik lortzen bazuten; izan ere, badirudi askok ez zutela titulu hura ere. 1966an hezkuntzako ikuskatzaileari eskatu zitzaion azterketen ezohiko deialdia antolatzeko, "*Lehen Mailako Ikasketen Ziurtagiria lortzeko, asko baitira ziurtagiri hori ez dutenak. [...] Deialdi hau iraunkortzat joko da ziurtagiria behar duen orok lortu arte, dela ikasketetako, eskolako edo kultura sustatzeko txartela*³³." Aipamen horrek argi eta garbi erakusten du lehen mailako ikasketak amaitu ez zituzten edo behar bezala egin ez zituzten herriko ikasle askoren egoera. Hala erakusten du ere 1977an helduentzako (hau da, 18 urtetik gorakoentzako) hezkuntza-ikasgela bat sortu izanak Teresa Murga ikastetxeko OHO mailan, biztanleria-ren segmentu horri ikasketak osatu eta dagokion titulua lortzeko aukera emateko³⁴. Egoera horren ondorioz, gazte asko lan-merkatuan sartu ziren, hezkuntza-prestakuntza okerragoarekin, eta, ondorioz, baldintza okerragoetan³⁵.

Ermuan derrigorrezko hezkuntza zertan zen azaltzen duen azterketa hau ezin da amaitu aipatu gabe, labur-labur bada ere, hirurogeiko hamarkadan herrian sortutako zenbait hezkuntza-ekimen. Aipatutako Lehen Hezkuntzako ekipamenduetan zeuden zailtasunek, familia askok seme-alabei ahalik eta hezkuntza onena emateko nahiak eta ikasle askok Bigarren Hezkuntzako ikasketekin jarraitzeko arazoak izateak, aukera zabaldu zuten gabezia horiek arindu zitzaketen ekimen pribatu batzuk garatzeko, eta era horretako ikasketak ematen hasi ziren ordaindu zitzaketen familiei. Hau ez da gai horretan sakontzeko tokia, baina beharrezkoa da gutxienez aipatzea familia langileen artean gertatzen ari ziren pentsamolde-aldaketak —halakotzat hartu baitziren— islatzen dituzten ekimen horiek, beren ondorengoei

³³ Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusia, EDTMG-00004, 1966.04.22ko akta.

³⁴ Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1977.04.18, 8365. or.

³⁵ Jose Antonio Aguirre Elustondo, *op.cit.*, pp. 41-43 y 148-151.

ahalik eta hezkuntzarik onena ematen ahalegindu baitziren.

1968tik *San Antonio Akademia Teknikoa* martxan zegoen Ermuan (Orbe Kardinala, 2. zk., 1). Akademiaren titularra Manuel Blanco Serrano maisua zen eta estatuarena ez zen Lehen Hezkuntzako eskola ez zen. Bere jarduerak bertan behera utzi zituenean, 1988an, jakinarazi zen berrogei ikasposturako ikasgela bakarra zuela hasieran³⁶. *Ermuko Kultur Zentroa Ikastetxea* zen hezkuntza-ekimen horietako beste bat. 1969az geroztik jardunean ari zen Ermuko Udalaren web orrian dagoen ikasgelako argazkiak erakusten duen bezala³⁷.



FA333: 1969. urtea: *Ermuko Kultur Zentroa Ikastetxeko ikasle izandakoak*
Iturria: *Ermuko Udalaren argazki-albuma*

1974an, Hezkuntzari buruzko Lege Orokorrak ezarritakoari jarraituz, ikastetxe hori legeria horrek ezarritako hezkuntza-maila berrietara egokitu behar zen. Oraindik ere Jesús González Candedo zen ikastetxe horren titularra. Hala, Oinarrizko Hezkuntza

³⁶ Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1968.04.01, 4860. or.

³⁷ https://www.ermua.es/pags/album/ca_album_f.asp?id=536 [Kontsulta eguna: 2022.12.15].

Orokorreko estatuarena ez zen ikastetxe bihurtu zen urte hartan. Hamabi ikasgela zituen, 480 ikaslerentzako lekuarekin. Handik urtebetera, estatuarena ez zen Eskolaurreko Hezkuntzako Ikastetxe bihurtu zen, bost ikasgelarekin, 200 ikaslerentzako lekua guztira³⁸. Geroago, 1997an, titularrak erretiroa hartu zuenean, ikastetxe hori *Eskolabarri* kooperatiba-elkarte bihurtu zen, eta herrian dago oraindik ere³⁹. *San Pelaio* eskola da hirurogeiko hamarkadan herriko hezkuntza-eskaerari erantzuteko sortu zen beste ikasketa-akademia, gaur egun ikastetxea dena. 1964an sortu zen, eta ikastetxe horren web orrian haxe adierazten da:

*Jatorrian bertako ikasleak hiru arlotan prestatzen zitu-
tuen akademia bat zen: zati batek Batxilergoko ikas-
ketak egin zituen, haien kontura, hasieran Gernikako
instituetan eta Eibarren geroago; beste zati bat, Ar-
meria Eskolan sartzeko prestatzen ari zen eta azken
talde bat (batez ere emakumeak) lanbide merkatuan
sartzeko prestatzen zen.*⁴⁰

1972tik, lege berriak eskatzen zuen bezala, OHOk ikastetxe bihurtu zen. 1995ean, egungo San Pelaio irakaskuntza-kooperatiba bilakatu zen. Errepaso honekin amaitzeko, *Anaitasuna Ikastola* ere aipatu behar da. Ikastola hori ere hirurogeiko hamarkadaren amaieran sortu zen, 1968an, baina oraingo honetan euskarazko irakaskuntza defendatu eta sustatzeko osagai bereizgarria du, ikasleei kalitatezko hezkuntza emateaz gain. Horrelako zentroetan ohikoa izan zen bezala, hasierako urteak zailak izan ziren egoera normalizatzea lortu zuten arte. Lehen bi urteetan eskolaurreko ikastetxea izan zen, eta 1970ean hasi zen OHO

³⁸ Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1974.12.10, 25102. or., eta 1975.02.27, 4170. or.

³⁹ Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 1997.05.20, 8399. or. <https://www.eskolabarri.edu.es/es/quienes-somos> [Kontsulta-eguna: 2022.12.16].

⁴⁰ <https://www.colegiosanpelayo.es/quienes-somos/> [Kontsulta-eguna: 2022.12.15]. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 1995.01.04, 159. or.

irakasten. Une horretatik aurrera, ikastetxeko ikasleak ugaritzen hasi ziren, eta 141 izatera iritsi ziren 1980an. 1993an ikastola hori “publiko” bihurtu zen eta herrian dago oraindik ere (*Anaitasuna Ikastola...*, 1994).

Hezkuntzari buruzko Lege Orokorra, 1970ean onartua, mugarri garrantzitsua izan zen Espainiako hezkuntza-sistemaren modernizazioan, eta aldatu egin zuen lehen aipatutako eskola-faseak antolatzeko eskema. Lan honen helburuei begira, nabarmentzekoa da ikasketak hamalau urte bete arte egiteko derrigortasuna ezarri zuela irmoago. Horretarako, hamar urterekin irekitzen ziren ibilbideak amaitu zituen, eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorra ezarri zuen ikasle guztientzat OHOk 8. mailara arte. Horrekin bukatu egin zen Lehen Hezkuntzako ibilbidea, ikasketekin jarraitzeko inolako aukerarik gabe amaitzen zena, eta hezkuntza-faseak homogeneousatu nahi izan ziren. Bigarren Hezkuntzarekin jarraitzeko aukerak Eibarrera edo Durangora joatea eskatzen zuen oraindik ere, harik eta laurogeiko hamarkadan, 1982an, herrian institutu bat eraikitzeko urratsak egiten hasi zen arte Eusko Jaurlaritza. Hala ere, ikastetxe hori ez zen 1994ra arte inauguratu, eta ordura arte herriko gazteek Eibarrera, Elgoibarrera edo Durangora joan behar izan zuten bigarren mailako ikasketekin jarraitzeko⁴¹. Eusko Jaurlaritzak ikastetxe hori eraikitzeko lurrak desjabetzeko beharra justifikatu zuenean, honako hau adierazi zuen:

Lur horiek premiaz okupatzeko beharra dago, funtsean, eskola-adinean dagoen biztanle ugari dagoe-lako Ermuan eta eskola-eskaria ase egin behar delako, denok baitakigu udalerriak zenbateko dentsitate demokratikoa duen. Izan ere, gaur egun ezin dira herrian egin bigarren mailako ikasketak, horretarako ikaste-

⁴¹ Drogetenitturri, 1994ko urria, 10-11. or.

*txerik ez dagoelako. Ondorioz, Eibarrera joan behar dute ikasketa horiek egin nahi dituzten ikasleek, horrek dakartzan nahasmenduekin*⁴².

Hori zen, hain zuzen ere, Ermuko herritarren nahia. Izan ere, —urte haietan egin eta hemen erabili den inkestan parte hartu zuten gainerako bizkaitarrek bezala—, ondorengo hezkuntza-sustapena apustu garrantzitsutzat jotzen zuten ermuarrek. Lehen, ikasgelak lehenago uztea “normaltzat” jotzen zen gizarte-ingurune askotan, ikasten jarraitzeko baliabiderik ez zegoe-lako, edo, beste batzuetan, “naturaltzat” ere bai, “beti horrela” egin zelako, baina hirurogeita hamarreko hamarkadan “*hezkuntza-boom*” modukoa gertatu zen. Urte haietan, nabariago ikusi zen familiek ez zutela nahi beren seme-alabek ikasketak Lehen Hezkuntzan uztea eta lanean hastea, baizik eta Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako edo, geroago, unibertsitateko ikasketekin jarraitzea hamalau urte bete ondoren, beren gizarte- eta lan-aukerak hobetzeko (Dorao, 1977, I. libur.: 358-359). Jarrera-aldaketa horren adibide ona izan zen 1972an Ermuko emakumeek egindako manifestazioa eta “eserialdia”, herrian eskola-eskasia zegoelako⁴³, edo lau mila herritar inguruk egin zuten manifestazioa herrian eskola eraikitzeko atzerapenagatik, bai eta herria zeharkatzen zuen errepide nagusiak eragiten zuen arriskuagatik ere⁴⁴. Esan berri den bezala, herrian institutu bat izateak luze jo zuen. Baina hori gertatzen zen bitartean, eta hirurogeiko hamarkadaz geroztik, beste askorentzat —gazte-entzat izan ezik— Lanbide Heziketa aukera ona zen laneratzea baldintza hobeagoetan lortzeko, prestakuntza hobe zutelako, prestakuntza hori izatea eskatzen baitzuten inguruan finkatutako industriek ere.

⁴² Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 1982.10.23, 2634. or.

⁴³ *Tierra Vasca*, 1972.01.01.

⁴⁴ *Hoja del Lunes*, 1976.12.20.

LANBIDE HEZIKETA

Industria-sarea garrantzitsua den edozein eskualdetan, langileen kualifikazioa beti izan da alderdi garrantzitsua enpresek ondo funtzionatzeko. Kualifikazio hori, askotan, lanpostuan izandako esperientzia gutxi-asko luzearen bidez lortu da. Esperientziarekin ezagutzen baititu langileak bere jarduera produktiboaren nondik norakoak. Hala ere, eta produkzio-sektoreen arabera, kualifikazio-modu hori ez zen agian eraginkorrena izaten. Esperientzia hori lortzeko denbora luzea behar izateaz gain, zaildu zezakeen langileak enpresaren barruan mugitzeko aukera beste produkzio-funtzio batzuei erantzuteko, zuten esperientzia funtzio jakin batzuetara mugatua egoteagatik. Horregatik, oinarrizko ezagutza teknikoetan trebatutako langileak kontratatzea eskatzen zuten enpresa askok. Horretarako, Bizkaiko industrializazioaren lehen urratsetatik hasi eta XX. mendearen bigarren erdialdean ondo sartu arte, industria asko arduratu ziren prestakuntza hori, eurek bereziki behar zutena, emateaz beren langileei. Baina, pixkanaka-pixkanaka, hainbat titulu ateratzeko ikastetxeak hasi ziren etorkizuneko langileekin prestakuntza-lan hori egiten (eta “etorkizuneko emakume” langileekin ere zenbait lan-adarretan). Hezkuntza-sektore hori, heterogeneoa izan arren, “Lanbide Heziketa” (LH) kontzeptuaren barruan laburbilduko genuke.

Esan daiteke, historikoki, hezkuntza-sektore hori oso lotuta egon dela ikastetxe horiek dauden herrietako behar ekonomikoekin, eta langile “egokia” prestatu nahi izan dutela haietarako.

Hezkuntzaren eta lan-munduaren arteko lotura horrek, era berean, sistema ekonomikoaren beharrekin lotuko luke, edo haren mende jarriko luke, hezkuntza-sistema, behar bezala prestatutako langileak eskaini ahal izateko⁴⁵. Kritika hori egin baziezaiekeen ere, bistan da prestakuntza-aukera hori familia askok eskatzen zutela beren ondorengoentzat, jakin baitzekiten, euren esperientziagatik askotan, beren gaitasun tekniko-zientifikoak lan-munduan hobeki sartzeko aukera emango zietela. Are gehiago kontuan hartuta hamarkada haietan eskasa zela Lehen Hezkuntzako prestakuntza. Gorago aipatu ditugun arrazoi guztiengatik, Ermuko kasurako are beharrezkoagoa zen prestakuntza lan hori, baita oinarrizko gutxieneko hezkuntzak lortzeko ere. Argi eta garbi zegoen LHk emandako lan-trebakuntzak, teoriarik bederen, posizio sozioekonomiko hobea ematen ziela langileei, hobeto ordaindutako lanpostua lortzeko aukera ematen baitzien, kualifikazio handiagoa zutelako. Egoera horrek ez zuen esan nahi, ezinbestean, langile haien maila soziala handituko zenik: asko “langile-klaseari” atxikita egongo ziren oraindik, baina peoiek baino lan- eta soldata-baldintza hobeak izango zituzten gutxienez. Azken batean, LH funtsezko hezkuntza-elementua zen gizarte-sektore behartsuenentzat. Batez ere euskal gazteen artean Bigarren Hezkuntza orokortu baino lehen, hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera.

Beste kasu batzuetan ohikoa zen bezala, lanbide-heziketako lehen zentroak sortzeak zuzeneko zerikusia zuen industriaren beharrekin, esleituta zituzten lanak hobeto egiteko gutxieneko kualifikazioa zuen eskulana behar baitzuten. Eibarko Armeria Eskola ez zen kasu desberdina izan.

⁴⁵ Juan Delval, *Los fines de la educación*, 1990. Madrid: Siglo XXI. Pp. 57-58., y Mariano Fernández Enguita, *La escuela a examen. Un análisis sociológico para educadores y otras personas*, 1995, p. 58. Madrid: Pirámide.



1964 Armeria Eskola. Fatxada nagusia

Iturria: Mendeurrena. 1912-2012 mendeurrena. Eibarko Armeria Eskola, 54. or.

Herriko armagintza-industria indartsuak behar bezala prestatu-tako langileak behar zituen, beren lanean aplikatzeko ezagutza teoriko eta tekniko nahikoak zituztenak. Enpresetan eta tailerretan aplikatzen ziren berrikuntza teknologikoek langile kualifikatuak behar zituzten, beren makina edo produkzio-prozesu zehatza ezagutzen zuten langile hasiberriak baino gehiago. Langileek oinarritzko ezagutza teknikoak (marrazketa, geometria...) behar zituzten, bai eta enpresa bakoitzaren berariazko produkzio-jarduerarekin lotutako ezagutza espezifikoagoak ere. Gainera, gazte askoren hezkuntza-maila txikia zenez derrigorrezko hezkuntza-sistemak hamarkada askotan izan zituen mugengatik, beharrezkoa zen lehen hezkuntzako gabeziak osatzea oinarritzko ikasketa teorikoekin (marrazketa, matematika, teknologia...) eta edozein tailerreko industria-jardueratik ahalik eta hurbilen zeuden eskola praktikoekin.

XX. mendearen hasierako industrialari askok lehen eskutik eza-gutzen zuten egoera hori, eta, udalarekin eta Gipuzkoako Aldun-

diarekin batera, bere atea 1914an ireki zituen eskola hori sortzea bultzatu zuten, Europako beste eredu batzuei jarraiki. Orduz geroztik, zonalde osoko hezkuntza zerbitzuen ardatz egituratzaileetako bat izan da ikastetxe hori, Ermua barne. Langile askok enpresen barruan zuten posizioa hobetzeko modua aurkitu zuten haren hormen artean, han jasotako prestakuntzari esker. Gerraosteko urte zailen ondoren, eta batez ere joan den mendeko berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, berriz ere lehen mailako ikastetxe bihurtu zen ikastetxe hori, eremuak hazkunde ekonomiko handia izan zuenean, lehen adierazi den bezala. Ikastetxe hori funtsezkoa izan zen eremuaren garapen ekonomikoan, prestakuntza eman zuelako enpresek eskatzen zituzten langileei. Eskola horretako ikasleen artean Ermuko batzuk ere bazeuden. Nahiz eta datuak oso urriak izan ideia hori berresteko, jakin badakigu Ermuko 96 ikasle zeudela 1966-1967 ikasturtean Ofizialtza eta Industria Maisutza ikasketetan matrikulatuak⁴⁶. Ikasturte horretan Armeria Eskolan matrikulatutako ikasle guztiak kontuan hartuta (867 ikasle), ikasleen % 11 ziren Ermukoak⁴⁷. Ez dakigu ehuneko hori ezaugarri orokorra izan zen urte haietan, baina, gutxienez badakigu eskola horrek garrantzi handia izan zuela etorkizuneko langileentzat edo beren lanaldia egin eta aldi berean gaueko taldean ikasten zuten langileentzat. Pentsa daiteke Eibarko LHko punta-puntako beste hezkuntza-ekimen batek ere eragina izango zuela Ermuko neska eta mutil gazteen artean. Ez dago horren inguruko daturik, baina pentsatzekoa da bertako ikasleak erakarri zituen hezkuntza-aukera izan zela Eibarko Unibertsitate Laborala ere. Unibertsitate laboraletako hezkuntza-sistema, hasieran, Lan Ministerioaren mende zegoen, eta langileen seme-alabei hezkuntza sendoa ematea zuen helburu. Eibarkoaren kasuan, 1968an hasi ziren han eskolak ematen, eta

⁴⁶ Bizkaiko Foru Agiritegia, Administrazio Atala, R-03699/016.

⁴⁷ M^a de las Mercedes Araceli Aloy Ruiz. *Historia de la formación profesional en el siglo XX en Vizcaya*, 1987b, p.76, Bilbao: UPV/EHU.

gazte asko erakarri zituen, bi sexuetakoak, ingurukoak eta Espainiako beste leku batzuetakoak ere. Ikastetxe horrek, ikasle gazteenentzako lanbide-hastapenaz gain, bestelako ikasketa batzuk ere eskaintzen zituen, hala nola goi-mailako batxilergoa edo makina elektrikoen eta industria-elektronikaren ingeniarietza teknikoa. Urteetan zehar, ikastetxe hori hezkuntza-aukera garrantzitsu bihurtu zen inguruko gazteentzat. Zailagoa da jakitea zer eragin izan zuen Ermuko gazteen artean eta haietako zenbatek hartu zuten horrelako ikasketetarako bidea. Horregatik guztia-gatik, agian Armeria Eskolan gertatzen zen bezala, batzuentzat aukera egokia izan zen Ermutik gertu zegoelako. Eta, ziur asko, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta ondorengo hamarkadetan zenbat eta gehiago barneratu, orduan eta handiagoa izan zen eragin hori (*Eibarko Unibertsitate Laborala*, 2019).

Armeria Eskolak, esan bezala, metalarekin, elektrizitatearekin, elektronikarekin eta abarrekin lotutako hainbat ikasketa eskaintzen zituen. Baina bada ikastetxe horrek garatzen zuen beste hezkuntza-fase bat ere, nabarmentzeko modukoa. 1961etik 1979/1980 ikasturtera arte, “lanbide-hastapeneko” ikasketak ematen zituen 12 eta 14 urte bitarteko ikasleentzat, eskolan ikasten jarraitzeko behar ziren aurretiazko ezagutzak eskura zituzaten, behar izanez gero. Hezkuntza-aukera garrantzitsua zen hura 12 urterekin ikasketak uzten zituzten ikasleentzat, lehen azaldu den bezala, baina baita, 1970ean Hezkuntzari buruzko Lege Orokorra onartu ondoren, OHO gainditu ez zuten edo amaitu ez zuten ikasle askorentzat ere LHIra bideratzeko. Prestakuntza-mota hari ospe txikia ematen zitzaion, urte askoan pentsatu baitzen “ikasteko balio ez zutenak” joaten zirela leku hartara. 1970eko legearen ondoren, planteamenduak berak ere ez zuen pertzepzio hori aldatzen lagundu, hezkuntza modalitate hark lan-merkatura kualifikazio handirik gabe irtetea baitzekarren

prestakuntza tekniko-praktiko eta zientifiko aplikatuarekin, eta ez baitzuen LHIIra joateko biderik ematen. Hala eta guztiz ere, lehen mailako ikasketak utzi zituzten gazte askorentzat baliagarria zen aukera hura, eta, jada lanean ari zirela ere, lor zezaketen gutxieneko prestakuntza eta kualifikazioa⁴⁸.

Armeria Eskolan antolatutako hasierako prestakuntza-ikasketak haiek garrantzi handia zuten Ermuko ikasleen artean. Ez bakarrik ikastetxe hartara joaten ziren ikasleengatik, baizik eta eskola hark alor horretan ekimen garrantzitsua bultzatu zuelako Ermuan. Agerikoa zen Ermuko gazte askorentzat ez zegoela horrelako ikasketen eskaintzarik. Prestakuntza-mota hori eska zezakeen gazteentzat, enpresek berek langile kualifikatuagoak behar izateaz gain. Armeria Eskolak esku hartu zuen arazo horretan, eta Ermuan lanbide heziketako ekimen bat sustatu zuen, gazte askori prestakuntza-irteera bat eman ziena, aztertu dugun eskola-sistemaren mugetatik haratago, eta, aldi berean, inguruko industriaren eskulan kualifikatuaren beharrei erantzun ziena. Ermuko Lanbide Hastapenerako Eskolaren sorrera. 1966ko irailan, Armeria Eskolako zuzendaritzak eskola hori sortzeko proposamena aurkeztu zuen udaletxean. Lehen Hezkuntza antolatzeak eta Lanbide Heziketara igarotzeak zekarren arazoa aipatu zen eskaeraren justifikazioan. Antolaketa haren ondorioz, lehen esan bezala, hamabi eta hamalau urte bitarteko gazte askok ezin zuten beren ikasketa profesionalekin jarraitu, adin horietarako ekimen espezifikorik ez zegoelako herrian ikasten jarraitzeko. 1961az geroztik, arazo hori nabaria izan zen Eibar osoan, ez baitzegoen bakar bat ere,

12 eta 14 urte bitarteko gazteak hartuko lituzkeen aurreikaskuntza-eskola, ordura arte, neurri handi batean,

⁴⁸ Mariano Fernández Enguita, *Educación, formación y empleo en el umbral de los noventa*. Madrid: Ministerio de educación y Ciencia., 1990, p. 123. Madrid: Pirámide; M^a Jesús Martínez Usaralde (2002). *Historia de la Formación Profesional en España. De la ley de 1955 a los Programas Nacionales de Formación Profesional*, 2000, pp. 29-31. Valencia: Universitat de València y Eibarko Armeria Eskola..., 2013: 14-80)

industrian ari zirenak lanean, familia apaletatik etortzeagatik seme-alabei begira erabaki hori hartu behar izaten baitzuten, hain zuzen ere, zailtasun ekonomikoak zituztelako.

Horrek “pozbidetik gabeko etorkizuna zuten taldeak” sortu zituen langile horien artean, beren prestakuntzarekin jarraitu ezin zutelako, horren ondorioz murriztu egiten baitziren fabrika zuten posizioa hobetzeko aukerak. Bestalde, eskualdeko industria-ri ere kalte egiten zion, etengabe hazten ari baitzen, eta eskulan kualifikatua eskatzen baitzuen gero eta konplexuagoak eta teknikoagoak ziren ekoizpen-prozesuei erantzuteko. 1962an ireki zen Eibarko Hastapen Eskola eskari horri erantzuteko. Hala ere, laster ikusi zen ekimen hura ez zela nahikoa Ermuaren beharrei erantzuteko, ermuar oso gutxi baitzuten Eibarko eskola hartan sartzeko aukera. Ermuak,

Biztanle-kopurua etengabe gora egiten ari denez, arazo larri bat du: ezin ditu gure zentroan sartzeko aukera izan dezaketen 12 eta 14 urte bitarteko gazteak benetako prestakuntzara bideratu Ofizialtza eta Industria Maisutza graduatan Lanbide Heziketako ikasketak egiteko.

Baina ekimen hura ez zen positiboa herriko gazteentzat bakarrik. 1965ean Ermuan zeuden 86 lantegiek ere eskulan prestatua eta kualifikatua behar zuten.

Ermuan dagoen ekoizpen-multzo horrek langile espezializatuak beharko ditu etengabe. Industria-giro horretan, logikoa da gazte gehienek enpresetan sartzeko joera izatea. Haien prestakuntza bultzatzeko, etorkizun egokia eta duina izan dezaten, herriaren potentzial ekonomikorako langile kualifikatuak eduki ahal izateko, ezinbestekoa da lanbide-irakaskuntzaren

oinarriak sendo bultzatu eta finkatzea. Horretarako, gizarte-betebehar komunitario horri ekiteko, ondo orientatutako eta behar bezala definitutako aurreikas-kuntza egin behar da, eta, gero, goragoko ikasketekin jarraitu ahal izango dute gure ikastetxean.

Horregatik, ikastetxe hura herrian sortzea sustatu eta finantza zezala proposatu zitzaion udalari, tokiko hezkuntza-sistemari onura handiak ekarriko zizkiolako, hala *“konpondu egingo baitzen etorkinen kultura-prestakuntzaren zama astuna”*, eta hala eskatzen zuelako *“baliabide materialetan urria den baina adimenez hornitua dagoen gazteria horrek, dohain preziatua baita adimena, eta inoiz ez baita utzi behar atsekabe mingotsean.”* Ezin bestela izan, herriko udalak onartu egin zuen proposamen hura, eta aurrera eramateko prestaketekin hasi zen, tokiko enpresarien laguntzarekin. Horretarako, dirulaguntza eskatu zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiari⁴⁹.

Nahiz eta bertako industrialarien eta Foru Aldundiaren laguntza izan, ez dirudi haien ekarpenak espero bezain eskuzabalak izan zirenik, eta eskola hark, 1967-1968 ikasturtean hasitako lehen urteetan behintzat, arazo ekonomiko handiak izan zituen. Hala ondorioztatzen da udalak probintziako agintariei egindako eskaeretatik⁵⁰. Horri guztiari 1970eko Hezkuntzari buruzko Lege Orokorra onartzeak ekarri zituen aldaketak gehitu zitzaizkion. Hori zela eta, ikastetxeak behin-behinean funtzionatu zuen legeria berrira egokitzen zen bitartean eta ikastetxe ofizialtzat hartzen zen bitartean. Ermuko Lanbide Hastapenerako Eskola 1970. urtearen amaierara arte ez zuten onartu *“Industria alorreko Lanbide Heziketako Ikastetxe ez-ofizial baimendu”* gisa. Hau da, ekimen pribatuko ikastetxea zen, baina alkatea buru zuen Eskolako Patronatuaren mendekoa. Baina ikastetxe horren arazoe-


⁴⁹ Bizkaiko Foru Agiritegia, Administrazio Atala, R-03699/016.

⁵⁰ Bizkaiko Foru Agiritegia, Administrazio Atala, Hezkuntza, Kirola eta Turismoa 267, C-1.018-Esp.-16.

tako bat adierazten zuen baimen horrek: ez zuen instalazio eta makineria egokirik, eta horrek eragotzi egiten zuen Metalaren Adarreko Ikaskuntza Gradua irakasteko onartzea, hezkuntza-lege berriak ezartzen zuen lehen mailako Doikuntza edo Lanbide Heziketa espezialitatean. Instalazio haiek hobetzen zirenean, emango zen aintzatespen hori, eta bien bitartean lanbide-hastapeneko maila egingo zen⁵¹.

Hasierako arazo horiek guztiak gorabehera, ikastetxe hark urte luzez jarraitu ahal izan zuen mekanikako eta administrazioko ikasketak ematen⁵² (Dorao, 1977, II: 55 liburukia), ondoko taulan ikus daitekeen bezala. Ikasle kopurua kontuan hartuta ikastetxe txikia bazen ere, ekimen horrek lagundu zuen herriko hezkuntza-gabezia handienetako bat arintzen.

II. grafikoa: Ermuko Lanbide Eskolako ikasleen bilakaera (1975-1984)



Iturria: Aloy (1987b: 196).

⁵¹ Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1971.01.15, 645. or. eta Murua, Zabaleta eta Garmendia (2015: 289-293).

⁵² Jesús Dorao Lanzagorta (Dir.) (1977). *Empleo y formación profesional en Vizcaya, 1975-80*. 2 vols. Bilbao: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao. (Vol. 2, 55).

AZKEN IRUZKINAK

Azterlan honetarako aukeratutako hamarkadak, berrogeita hamarreko eta hirurogeita hamarreko hamarkadak, urte biziak izan ziren, baita nahasiak ere, biztanleriaren bizitzako esparru askotan. Hazkunde ekonomiko handiko urteak izan ziren, lana zegoen guztientzat eta barne mugimendu handiak egin zituzten herritarrek, baina krisi ekonomiko handi batekin bukatu ziren hirurogeita hamarreko hamarkadan, eta ondorioz langabezia-arazoak izan zituzten familia askok. Aldaketa eta mobilizazio politiko handiko urteak izan ziren frankismotik sistema demokratiko berriara igarotzeko bidean. Mobilizazio politikoarekin batera hainbat indarkeria-mota eta era askotakoak agertu ziren urte haietan. Horrez gain, lan-aldarrikapenak eta -eskariak etorri ziren, bai eta haiekin lotutako gatazkak ere, gatazka handiak izan baitziren garai haietan. Azkenik, auzo-asoziazionismoa eta egoiliarren bi-zi-baldintza txarrengatiko protestak ere ez ziren txikiagoak izan. Ermua, ikusi dugun bezala, ez zen horrelako protestetatik kanpo egon, logikoak baitziren zeuden arazoengatik eta zerbitzu publikoen gabeziagatik —bereziki hezkuntzaren alorrekoak—, gabezia haiek oso nabarmenak baitziren Ermua bezalako udalerrri batean.

Gazteak ere ez zeuden testuinguru horretatik kanpo. Mobilizazio politiko eta sozialeko urteak izan ziren, eta protesta handiak egin ziren kaleetan. Bizitza kultural handiko urteak, batez ere musikaren alorrean, musika funtsezko elementu bihurtu baitzen garai hartako gazteen bizitzan eta gizartekoitasunean. Hirurogeiko

hamarkadako *Euskal Kantagintza Berritik* Euskal Rock Erradikala eta hurrengo hamarkadaren amaierako punkera pasa zen. Kontzertuak gazteen ohiko bilgune bihurtu ziren Euskal Herri osoan. Urte haiek, azaldu nahi diren “ertz” guztiekin, bizitzeko modu eta jarraibide berriak, askotariko nahiak, aitaren belaunaldiko arau sozialak urratzea eta abar ekarri zituzten gazte askorentzat. Baina drogekin esperimentatu zen urteak ere izan ziren, eta heroinak eragin bortitza izan zuen gazte askoren artean.

Testuinguru horretan, Ermuan ere intentsitate eta gordintasun osoz bizi izan baitzen, zer egiteko izan zuen urte askoan biztanleriaren bat-bateko hazkundeari erantzuteko gai ez zen hezkuntza-sistemak?

Aztertutako egoera hori ez zen Ermuan bakarrik gertatu. Egoera hura nahiko zabaldua zegoen Espainiako landa-eremuetatik Madrilera, Bartzelonara edo Bilbora eta beste hainbat hiriburutara lan bila emigratzen zuten biztanle haiek guztiak hartzeko sortutako langile-auzo berrietan. Erregimen frankistak, propaganda-politika gisa agian, eremu askotako txabolismoa desagerrarazi nahi izan zuen, auzune berriak eraikiz haiek hartzeko. Etxebizitzak azkar eraiki ziren —eta behin baino gehiagotan—, baina zerbitzu publikoak berandu iritsi ziren. Hezkuntza-instalazioen faltak eragindako hezkuntza-arazoak nahiko zabalduak zeuden, hala nola gazte asko ez eskolatzea plaza faltagatik, eskola-emaizta txarrak, eskola uztea edo bigarren mailako ikasketak irisgarriarik ez izatea. Alderdi horiek aztertu dira, halaber, Otxarkoagaren kasuan Bilbon, Madrilgo San Blas auzoan⁵³ edo Barakaldon⁵⁴. Aipatutako adibide horietan egiaztatutako “esko-

⁵³ Iñigo López Simón (2022). *Los olvidados. Marginalidad urbana y fenómeno quinquí en España (1959-1982)*. Madrid: Marcial Pons.

⁵⁴ Antonio Francisco Canales Serrano, (2003). *Desarrollismo, inmigración y poder político: el problema escolar en Barakaldo*. *Historia Contemporánea*, 26, pp. 57-76.

la-defizita”⁵⁵ Ermuan ere baieztatu da, eta aipatutako adibide horiei gehitu beharko litzaieke.

Ermuak indar handiz bizi izan zituen berrogeita hamar eta hirurogeiko hamarkadetako Espainiako barne-migrazio prozesuen ondorioak, eta, harekin batera, izugarri hazi zen biztanle-kopurua (*baby booma*). Ermuak bete zuen langile askori eta inguruko familiei bizilekua emateko funtzioa, Eibarren leku gutxi egoteagatik. Kontsultatutako datuek argi utzi dute hezkuntza-sistema publikoak ezin izan ziola erantzun Ermuan zegoen eskaera handiari. Ikasgela gutxi, masifikatuak, egoera txarrean, irakasleentzat kudeatzen zailak seguruenik, eta egoera horretan ezaugarri endemikotzat har dezakegu eskola goiz uztea. Hezkuntza-sistema publiko horren arazoak arindu nahi izan zituzten hainbat eratako ekimen pribatu batzuek. Udalerrriak Bigarren Hezkuntzako ikastetxerik ez zuenez, asko eta asko ezin izan ziren hezkuntza-fase horretan sartu, ikasketak egiten jarraitzeko inguruko herrietara joan behar izateak sortzen zituen gastuak ordaindu ezin zituzten familiak behintzat ez. Hala eta guztiz ere, familia askok egin zuten gastu horiek ordaintzeko ahalegina. Hala ere, esan bezala, garai hartako hezkuntza-ibilbideek berek behartu zituzten gazte asko ikasketak goiz uztera. Lanbide Heziketa zen beste aukera, udalak Ermuan hartarako ikastetxea sortuta sustatu nahi zuena, baina jada hirurogeita hamarreko hamarkadan izan zen hori, nahiz eta beste batzuentzat Eibarrera ikastera joatea zen aukera.

Zaila da erantzun erabakigarria ematea goian planteatutako galdera horri. Zaila da azterlan honen bidez jakitea hezkuntza-sistema hark zer eragin izan zuen mutil gazteen laneratzean (eta beste neska gazte askoren bizi-itxaropenetan), ikasketa-urteetan lortu ahal izan zuten hezkuntza- eta prestakuntza-mailarengatik. Baina, aldi berean, azterlan honek balio du prozesua nolakoa izan

⁵⁵ Iñigo López Simón, (2002), *ibid*, 104.

zen egiaztatzeko, prozesu motelegia, hirurogeiko hamarkadan sortutako hiri handietako herri edo langile-auzo horien eskariari egokitutako eskola-sistema eraikitzeko. Hirurogeita hamarreko hamarkada modernizatze eta inbertsio handiak egiteko garaia izan zen, aurreko urteetan ikusitako hezkuntza-gabezia guztiak arintzeko. Hirurogeiko hamarkadan hasi zen ikasle-kopuruaren igoera nabarmena, “*eskola-eztanda*” deitu izan dena (Puelles, 1991:404), hurrengo hamarkadatik aurrera bideratu ahal izan zen arlo horretan egindako inbertsioekin, Ermuan egiaztatu den bezala. Horri guztiari esker, hirurogeiko hamarkadan hezkuntza-eskaintzan izandako muga guztien ondoren, hurrengo hamarkadan gauzak aldatzen hasi ziren. Aldaketa horiekin batera aldatu egin zen herritarrek hezkuntzaren garrantziarekiko zuten balorazioa, hirurogeiko hamarkadatik aurrera bizitako aldaketa sozioekonomikoekin lotura estua izanik horrek. Alderdi hori zehazten hasi gabe, modu laburrean aipatu behar da Espainiako ekonomiaren hobekuntzak eta gizarte-sektore handietan izandako aldaketa sozialek eta pentsamolde-aldaketek eragin zutela familien nahiak eta, beraz, haien ondorengoentzako hezkuntza-itxaropenak nabarmen aldatu izatea urte horietan. Bigarren Hezkuntzatik eta goi-mailako ikasketetatik “kanporatuak” egon ondoren, haiek izanik gizarte-sektore “ospetsuenak”, ordura arte mugatuago egon ziren hezkuntza-ibilbideak jarraitzeko aukera zabaldu zen. Ibilbide haiek, familiekin espero zuten bezala, hobekuntza ekarri zuten gazteak lanbideratzeko.

EKINTZAILETZA ERMUAN ETA EIBARREN. ENPRESAK ETA ENPRESARIAK.

Eduardo J. Alonso Olea¹

UPV-EHU

¹ Egilea Euskal unibertsitate-sistemako ikertalde finkatuko partaidea da, erref. IT 1441-22.

Gaur egun ezagutzen ditugun herri eta hiri askok hainbat mendetako historia dute: batzuek laburra, beste batzuek luzea. Baina “labur” edo “luze” hori beti beste egoera posible baten ondorio da. Gure kasuan, Ermuko hiribilduaren kronologiari erreparatu beharrean, haren kokapenari erreparatu beharko diogu; hau da, garrantzitsuena ez da noiz, baizik eta non, eta handik eratorriko dira zer eta noiz.

Erdi Aroko hiribildua da Ermua, eta kronologia ezezaguna du, baina, gure ondorioetarako, komunikazio-puntu interesgarri batean dago kokatua: Bizkaiko Jaurerriaren eta Gipuzkoako probintziaren arteko mugako puntu bat da, eta haren mugak Gipuzkoako Eibarko udalerriarekiko muga markatzen du. Hori ez da hutsala; izan ere, zenbait alderditan ikusiko dugunez, “marra” hori papezko mapa batzuetan baino ez da ageri, eta puntu batetik besterako distantzia pausu bat ematea bezain erraza da.


Ulertu behar da gaur egun erabiltzen ditugun komunikazio-bideak oraintsuko konexio-premiei erantzuten dietela, batez ere industrializazioarekin lotura handiena dutenak, hala nola autobideak edo trenbidea. Baina, aurreko hamarkada eta mende luzeetan, garraibideak lurrekoak ziren, bideetara mugatzen ziren, eta ibaietara; izan ere, ur-ibilgu baterako sarbide ona izateak nabarmen merkatzen zituen garraio-kostuak.

Adierazi dugu Ermua hiribildua dela, eta hori beste egitate garrantzitsu bat da. Izan ere, Bizkaiko Jaunaren borondatearekin identifikatzen da, gune bat eratzeko puntu jakin batean, eskuarki existitzen zena eta populatua zegoena, jurisdikzio zehatza eta Jaunaren interesetik menpekotasun argia zuena. Jaunak jurisdikzio bat eta pribilegio batzuk eman zizkien bertako biztanleei, baina haiek ere betebeharrak batzuk zituzten, eta, batez ere, jaunaren diru-sarreraren zati bat ordainduta lagundu behar zuten. Azken

batean, negozio horren bidez, jaunak gutxi kostatzen zitzaizkion pribilegioak ematen zituen haren babespeko eta haren borondatez onartutako jardueretatik eratorritako errenten truke. Egitate beraren alderdiak ziren merkatuak antolatzea, igarotze-eskubideak kobratzea, jaunaren ondasunak erabiltzeagatik errentak ordaintzea, hiribilduaren sortze-agirian zehaztutako baina herri-tarrek administratutako barne-antolaketa, etab².

Ermuaren kasuan, Gipuzkoarekin muga egiten duen hiribildua da, Probintziaren eta Jaurerriaren arteko igarobidea, baina, gainera, bidegurutze garrantzitsua, ekoitzi eta saleros zitekeenarengatik. Bideak gurutzatzeaz gain, hiribilduan ekoiztutako merkantziak ere joan zitezkeen bide horietatik. Bizkaiko hiribildu batzuk, hala nola Lanestosa, pertsonen eta merkantzien zirkulaziorako nahitaezko pasabidean zeuden, kasu horretan Santanderretik (Laredo) Bizkaia eta Burgoserantz, edo Bilbokoa, Begoñako portua zen, eta nahitaez igaro beharrekoa Durangotik Balmasedarako Done Jakue Bidean; horrez gain, Europako urruneko portuekin komunikatzen zuen itsasorako irteera –babestua– zuen. Ermua ez dago itsasotik hurbil, baina ibai txiki batek zeharkatzen du, eta nolabaiteko ibai-trafikoa zuen; halere, inguruan bazituen basoak eta burdina, eta, beraz, merkantzien trafikoa kontrolatzeaz gain, kanpoko eskaera nabarmena zuen zerbait sortzen zuen, burdina landua, esaterako.

² Hiribilduen sorreraren eskema orokor honen xehetasuna (ez da berariazkoa Bizkaian, ezta gutxiago ere) ikusteko, irakur Pinedo Otaola (1996). Testuinguru zabalago batean, ik. Larrazabal Basañez (2004).



Ermuko mapa (1925)

Iturria: Bizkaiko topografia historikoa. Diputación Foral de Bizkaia-Bizkaiko Foru Aldundia. (<https://www.bizkaia.eus/es/cartografia-y-ortofoto>)

Hain zuzen ere, hiribildu gisa sortu zeneko berrespenean (1372)³ lugorrietan errota edo burdinolak jartzeko askatasuna ezarri zen (Pinedo Otaola, 1996, 45). Beraz, ez zen bakarrik merkataritza-interkonexioko puntu bat, merkataritza-sareetan sartzen ziren ondasunak elaboratzeko gunea ere izango zen, eta horrek garrantzi berezia izango du.


Ermua guztiz bat dator Goi Erdi Aroan Bizkaian⁴ zabaldu zen siderurgia tradizionalaren garapen-baldintzekin. Erraz eskura zitekeen Bilbotik hurbil zegoen burdina, Durangotik hurbil da-

³ Ermuko hiribilduaren sorrera-data ez da segurua (XIV. mendearen erdialdean), baina bereziki interesgarria da 1372ko Berrespeneko errota eta burdinolei buruzko aipamen zehatza.

⁴ Bizkaiko mendietan burdinolak hedatzeak sektore zabala eratu zuen, siderurgia tradizionalari eskainia urtaroen arabera; burdinolak ibaien behe-ibilguetara mugitu zituztenean, komunikazio hobeak bilatu zituzten. Adibidez, XV. mendearen erdialderako bazeuden burdinolak Begoñan, ik. Alonso Olea (2016).

goelako; basoz —han lortzen ziren egur-ikatzaren kargak— eta aldapa handiak dituzten inguruko ibaiz inguratuta, hauspoak eta gabiak mugitzeko. Merkaturatzen ziren eta beharrezko merkantziak inportatzeko aukera ematen zuten produktuak, esaterako elikagaiak, eskualdean ez baitziren ekoizten. XV. mendetik aurrera, suzko armak agertu zirenetik, armak edo armen zatiak egiteko erabiliko zuen produkzioaren zati bat.

Aurrekari horiek, oso urrunekoak agian, benetan azaltzen dute Ermuko mendeetako dinamika (ondoko Eibar gehitu liteke); izan ere, enpresa-ekimenari buruzko ikerketan (“ekintzaile” terminoa, itxuraz modernoa, nahiz eta hala ez izan), funtsezko faktorea da historia, eskualde batzuetan enpresa-dentsitate kritikoa zergatik dagoen azaltzeko —kasu honetan, industria-enpresak— eta beste batzuetan, aitzitik, ez.




Ermua, Eibar ondoan, gaur egun.

Iturria: DFB-BFA. <https://www.bizkaia.eus/es/cartografia-y-ortofotos>.

Azken finean, kapitulu honetan hizpide izango ditugu enpresa-ekimenak, batez ere industrialak, eta haien sustatzaileak, XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen amaierara, bereziki 1950 eta 1980 artean gertatutakoa.

Bertako biztanleriari buruz dauzkagun datuak (XVIII. mendearen amaieratik) ez dira bolumenagatik nabarmentzen, eta, noski, ez eta hedaduragatik ere (ez da 6,5 km²-ra iristen); beraz, kopuru absolutuek ez gaituzte engainatu behar: Ermua hiribildu txikitzat hartu behar dugu, eta, beraz, biztanleria txikia oso mantso ari zen hazten. Populazio-dentsitateagatik nabarmendu zen.


1. grafikoa. Ermuko Hiribilduko biztanleak. 1787-1940. (bizt.)



Iturria: INE, kasuan kasuko erroldak.

Hiribilduko biztanle kopuru txikiak, lurralde txiki batean pilatuak, populazio-dentsitate handia erakusten du.

2. grafikoa. Populazio-dentsitatea. Ermua eta Bizkaia. 1787-2021. (Bizt. Km²)



Iturria: INE, kasuan kasuko erroldak.

2. grafikoari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu populazio-dentsitate nahiko handia izan zuela 1950era arte, baina Jaurerriko batez besteko orokorraren parean, gutxi gorabehera; hala ere, 1960tik aurrera, 20 urtean, biztanleen dentsitatea halako bost handitu zen. Aurrerago ikusiko dugu xehetasunez, baina bitartean esango dugu Ermuaren benetako hazkundea, hain zuzen ere, aztertutako aldian izan zela, 1950-1980 aldian.

Ermuari dagokionez, kontuan hartu beharreko beste faktore bat da izan zuen harreman zuzena Deba Garaiko hiriburuarekin, Eibarrekin; haren mugakide izan eta mendeetan zehar espazio ekonomikoa partekatu baitu. Izan ere, bi herrien arteko harremana hain da handia, zaila baita baten dinamika ekonomikoa aztertzea bestea kontuan hartu gabe.

INDUSTRIALIZAZIOA ERMUA INGURUAN.

Arestian ere esan dugu ekintzailetzari buruzko azterlanaren inguruan gero eta gehiago hartzen dela kontuan faktore historikoa. Bada elementu bat denboran zehar garatzen dena, “enpresa-kulturaz” ezagutzen dugun ingurune zabal batean, eta hori ere ez da oso kontzeptu zehatza, baina kultura horretako zenbait elementuren eragina ikertzeko aukera ematen digu; esate baterako, enpresa-ereduen etengabeko proportzio handia edo ekintzailetzarako nortasun-profila duten pertsonen presentzia (Fritsch & Wyrwich, 2022, 74). XX. mendearen erdialdeko hamarkadetan, garapen ekonomiko indartsua izan zen, mundua errotik aldatu zuen aurreko garai batean oinarritua, eta bide eman zion Bizkaian XIX. mendearen azken laurdenetik aurrera garatu zen industrializazio berri bati (eta hemen Eibarren gertatutakoa labur-labur azalduko dugu).

Burdinola zaharrak eta eskulangintza, XIX. mendean, industria modernora mudatu ziren. Hasieran, Ermuaren kokapena marjinala izan zen Abraren garapen indartsuaren aurrean (Bilbo, Ezkerraldea eta Meatzaldea) (González Portilla, 2001), baina, atzerapenez bazen ere, haren eragina Itsasadarraren garapenagatik baino Eibarretik gertu zegoelako iritsi zen. Izan ere, Eibarren, “kolmatazio” industrialaren fenomeno garatuko zen, eraldaketa metalikoko sektore batzuetan oinarritua, eta ondoko Sorailuzerekin batera armagintzaren garapenarekin (Real Fábrica de

Armas-ek mendeetan zehar mantendu zituen gremio-egitura eta merkatu eskusiboa Koroarekin).

Baina dena ez zen Eibar izan, harekin jarraituko dugun arren, armagintzatik hurbil baina desberdinak diren jarduera-zertzeladak aurkitzen baititugu Ermuan. Horrela aurkituko dugu⁵ Marcial de Uriolaveitia y Aguado ermuarrak 1887an hogeituroko erregistratu zuen askakuntza-patente bat: alarma-ohartarazlea eta txirrina zuen sarraila, *Polita* izenekoa.

Baina itzul gaitezen armagintzara. 1859an dekretu bat eman zen armak fabrikatzeko askatasuna ezartzeko. Hori dela eta, une hartatik aurrera, gremio-sistema zaharra desegin, eta Deba inguruan armak fabrikatzen hasi ziren, norbere konturako tailerretan eta merkatu zabal baterako.

Hala, 1915ean, Eibarren 65 fabrika eta lantegi inguru zeuden armak eta deribatuak egiten (Castells Arteché, 1987, 50). Lantegi txiki asko, artisauak berez, eta egunean gutxi ekoizten zutenek, 200 edo 300 arma baino gehiago ez, fabrika handiago batzuk nabarmendu ziren enpresaburu batzuen ekimenez. Garrantzitsuenetako bat Orbea fabrika izan zen. 1895ean 50 langile baino gehiago zituen, nahiz eta normalena zen 10 langile baino gehiago ez izatea.

Orbea y Cía enpresa familiarra. Sozietate komanditarioa; 1917an kalkulaturako kapitala, 4.777.500 pezetakoa zen. 1859an ezarri zen Eibarren, eta hauek izan ziren fundatzaileak: Juan Manuel (1826-1890), Mateo (1828-1900), Casimiro (1831-1869) eta Petra Orbea Murua. Garai hartako lantegi ospetsuenetako bat izan

⁵ 1887ko uztailaren 18an Bizkaiko Gobernu Zibilean aurkeztua. 1887ko abuztuaren 2an emana. *Gaceta de Madrid*, 1887ko irailaren 19an, 844 or. Anekdotak gisa esango dugu ETAK Frantzia heriotza eragin zuen azken ekintzan, 2010ean, jendarme bat hil zuela 1915ean Eibarren egindako pistola baten bidez. Pistola hura Frantziako armadak egindako 900.000 pistolen eskaera handi batekoa zen.

zen, eta lehena energia elektrikoa instalatzen, 1890ean⁶. Aldaketa teknologiko horren ondorioz, amaitu egin zen ur-ibilguek produkzioari eusteko zuten mendekotasuna; izan ere, ordura arte, gelditu egiten zen lana gurpil hidraulikoetan nahikoa emaria ez zegoenean.

1926an, zatiketa gertatu zen, eta familiaren parte batek “Orbea y Cía” sinadura mantendu zuen bizikletak ekoizteko, eta besteak “Hijos de Orbea S. en C” sozietate-izena hartu, eta Gasteizen jarri zen kartutxoak egiteko.

Baina kasu horrek ez gaitu uste okerrera eraman behar, armagintza-jardueraren zatirik handiena lantegi txikietan oinarritzen zen —baita etxean lan egiten zutenetan ere—; kasu askotan, garai bateko artisauen ekimena zen, eta, lan handia eta kapital gutxi izanik baina trebetasun eta ezagutza handiak berrikuntza teknikoren batekin batera, garrantzi berezia izan zuen sektore bat sortu zuten, esportazio-merkatuari esker.

Esan bezala, enpresarik garrantzitsuena Orbea Hermanos izan zen, baina beste hauek ere nabarmendu ziren. Trocaola, Aranzabal y Cía., 1895ean sortua, errebolberrak egiten zituen. Gárate, Anitua y Cía. 1892an sortua. Víctor Sarasqueta, 1887an sortua, tailerra zuen, eta eskopeta bikainak egiten zituen; 1899an Sarasqueta, Cortaberría eta Cía bihurtu zen, eta “Manufacturera Mecánica Eibarresa” izeneko tailerra jarri zuen, eskopetetan, eskopeteta-makiletan eta ehiza-errifleetan espezializatua. Azkenik, Arizmendi y Goenaga sozietatea dugu, 1906an sortua; Francisco Arizmendiren lantegiaren jarraipena zen, 1886an sortua, eta errebolberren fabrikazioan oinarritua. Fabrika horiek, batez ere Orbeak, sektoreko eskulan guztiaren ia erdia bildu zuten

⁶ Orbeak zenbait aurrerapen sartu zituen, eta gero orokortu egin ziren sektorean, hala nola leunketa mekanikoa gurpil hidraulikoek mugitutako harriekin (1868), edo galbanoplastia-nikeleztaketa, 1870ean. Ik. Castells Arteché (1987), 68. or.

(1906ko datuak), baina aldi berean existitu ziren lantegi txikiak eta etxetiko lana; 1908an kalkulaturakoaren arabera, lantegi handienek ekoizten ez zituzten zati edo piezak egiten zituzten langile guztien herena (guztira, 2.400 langiletik 800).

Fabrika modernoek eta handienak arma laburrak fabrikatzen aritu ziren batez ere, eta txikienak eskopetak fabrikatzen. Sarasqueta izan zen fabrikatzaile nagusia, baina 1915ean ez zituen 65 langile baino gehiago (Castells Arteché, 1987, 69). Oro har, ez ziren kalitate handiko produktuak, eta, kasu askotan, kanpoko fabrikatzaileen ereduak kopiak ziren —kapital urriak berrikuntza mugatzen du—, baina ekoizpenaren zati handi bat atzerrian saltzea lortzen zuten, eta, beraz, sektore hori bereziki sentikorra zen nazioarteko egoera politiko eta ekonomikoarekiko.

Atzerriko merkatu horietan lehiatzeko gaitasuna oso kostu mugatuetan oinarritzen zen, eta ohikoa zen “lanbidera” adostutako lana, destajuan. Orbea fabrika, esate baterako, gutxieneko bat ezartzen zen langileak soldata bat kobratzeko, baina, gutxieneko produkzio hori gaitasuna, aldeak langilearen eta enpresaren artean banatzen ziren. Nabaria zen produktibitateko pizgarria, baina ustekabeko ondorioak zituen. Eibarko langileen antolaketa indartu egin zen, eta lan- eta soldata-baldintza hobekien lortu ziren heinean, ondorioetako bat izan zen —eta kasurik argiena etxetiko lanarekin gertatutakoa zen— enpresek produkzioaren zati bat inguruko herrietara bideratu zutela, ez baitzen langile-mugimendu antolatua antzeko ezer, eta, beraz, eskulanaren kostu merkeagoa lortu zen:

Aspalditik iritsi da larritasun handikoa izatera herriko langileen eta inguruko herrietako landatarren arteko lehia, arma laburren limatzearen eskulanaren prezioari dagokionez. Lehia horretan, Eibarko langileek zenbait

hobekuntza dituzte, garai honetako espiritu sozialaren ezarpena, bai eta premia gehiago ere, hazten ari den biztanleria baten baldintza; gainera, desabantaila-egoeran daude mugarik gabe lan egiten duten eta beharrian txikiagoak dituzten kanpokoan aldean, eta, ekonomiak errairik ez duenez, (...) lana ekonomikoen zaien moduan, eta lan hori da kausa, aipatu dugun aurrerapenaren indar dinamikoa, ihes egiten du eta hiri-bildutik kanpo sakabanatzen da.

Ondorioa argia da: Eibarrek aurrera egitea eragin duen kontzentrazio-mugimendua dispertsio-mugimendu bihur liteke, eta horrek, aldi berean, hiribilduaren handamendia ekarriko luke⁷.

XX. mendean sarturik, industria-garapena “izugarri igo” zen garai koiuntural batean, hala nola Lehen Mundu Gerran. Prezioek gora egin zuten kanpoko eskaria handitu zelako, eta hazi egin zen Ermuan eta Eibarren fabrikatutako produktu askoren eskaria. Kontuan hartu behar da 1914an, gerra hasi zenean, soldaduak arma laburrez hornitu zituztela –fusilaz edo ohiko karabinaz gain–, baina arma-fabrikek ez zuten gaitasunik denbora gutxian milioika arma labur egiteko. Gainera, Europako arma-ekoizleen gune nagusietako bat Lieja izan zen, euskal armagintzaren zuzeneko lehiakidea⁸, 02111n^ç+6eta luze gabe alemaniarren eskuetan erori zen. Horregatik, aliatuen eskaera, batez ere Frantziakoa, hurbileko Espainia neutralera bideratu behar izan zen.

Gerraren lehen hilabeteetako merkatuaren etenaldi baten ondoren, 1915erako eskariak gora egin zuen, esportazioak esponent-

⁷ Bihargiñen Erresistentzia-Alkartasunen gutuna Eibarko Udalari, 1914ko martxoaren 28an. Eibarko Udal Artxiboa. Goñi Mendizabalek aipatua (2005), 20. or.

⁸ Hor sartzen dira Eibar, Elgoibar, Elgeta eta Soraluze udalerri gipuzkoarrak, eta Ermua eta Zaldibar udalerri bizkaitarrak; batzuetan beste udalerri batzuk ere sartzen ziren, hala nola Berriz eta Mallabia.

zialki hazi ziren, eta, gainera, prezioek gora egin zuten etengabe; hala, beste jarduera batzuetarako tailerrak ere arma-ekoizpe-
nean jarri ziren. Horren ondorioz, 1914 eta 1918 artean Eibartik
22,5 milioi arma baino gehiago esportatu zirela zenbatetsi zen,
horietatik 11,5 milioi herrialde aliatuetara, eta guztira 50 milioi
pezeta inguruko irabaziak utzi zituela. Halaber, jakina, merka-
tu amerikarra zegoen (Argentina edo Estatu Batuak) (Luengo
Teixidor, 1990, 131).

Baina gorakada horrek krisi sakona eragin zuen sektore meta-
lurgikoan, bereziki armagintzan. Europa, literalki, armaz beteta
zegoen gerraren ondoren; gainera, estatuak armak kontrolat-
zeko politikak aplikatzen hasi ziren. Ez da ahaztu behar 1917an
Errusiako Iraultza izan zela. Gerra amaitu ondoren, bolada irault-
zailea izan zen (Alemanian, Finlandian...), eta Espainian, ugaza-
ben pistolismoak eta terrorismo anarkistak, batez ere Kata-
lunian, Gobernua bultzatu zuten arma-salmenta kontrolatzeko
politikan pentsatzera. Krisia nabarmena eta larria izan zen; izan
ere, 1914tik 1918ra bitartean ia bikoiztu egin zen establezimien-
du bakoitzeko langileen batez bestekoa (5,2tik 10,2ra), baina
alderantzizko bidea izan zen koiuntura-aldaketaren emaitza:
jardueraren jaitsiera. Gainera, ez da ahaztu behar sektore hori
kanpoko eskaeraren mende egoteari buruz esandakoa; Ame-
rikako merkatuan, arazoak izan ziren Estatu Batuetan saltzeko
(arantzel-politika protekzionista, debekuetan oinarrituta baino
gehiago); eta, gainera, Nazioen Ligak armak saltzeko gero eta
araudi murriztaileagoa bultzatu zuen. Eibarren krisia saihestuko
zuen fusil-fabrika moderno bat jartzeko ahalegina egin zen, bai-
na azkenean proiektua ez zen gauzatu, eta langabezia eta ar-
ma-krisia larriagotu egin ziren gerra ondoko urteetan.

Gobernuak 1920ko irailaren 29ko Errege Dekretu bat onartu
zuen, arma-salmentaren kontrol handiagoa ezartzeko. Esan du-

gun bezala, atentatu askotan, batez ere urte horietan Katalunian gertatutakoak, “Star” pistola eibartarra agertzen zen. 1920ko apirilaren 29an, Gabino Bugallal Ogasun ministroak hainbat zergaren erreforma sakona onartu zuen lege baten bidez. Arma-lizentziei dagokienez, berrikuntza bat ekarri zuen:

Agiri berezi baten bidez egiaztatu beharko da era guztietako armak edukitzea edo jabetza izatea. Agiri berezi hori arma bakoitza erabiltzeko eskubidearen justifikazioa izango da, eta Guardia Zibilaren Institutuak ikus-onetsi beharko du. Agiri hori Estatuak salmentan jarriko dituen efektu tinbratueta jasoko da, eta bertan arma-mota, jatorrizko fabrika, fabrikazio-zenbakia eta legeak zehazten dituen antzeko beste ezaugarri guztiak jasoko dira⁹.

Beraz, Tinbrearen garapen arauemailean su-armen gida edo patente berri horiei zegokiena sartu behar izan zen. Irailaren 15ean Errege Dekretu bat onetsi zen, eta Guardia Zibilak kontrol horren mekanika ezarri zuen, egunero bisitak eginez:

Fabriken esku-hartzearen barruan sartzen dira beren izakinak eta produkzioa. Guardia Zibilak egunero egiaztatuko du hori, eta ulertuko da sortzen diren armak uneoro ezagutu eta haietatik ateratzen direnen destinoa bermatu besterik ez dela egingo¹⁰

Egun batzuk geroago, irailaren 29an, Errege Agindu baten bidez onartu zen giden eredu¹¹. Hortik abiatzen da “armagintzaren auzia” deituko dena. Aurrerago itzuliko gara gai horretara.

⁹ 14. art., 1920ko apirilaren 29ko Legearen 9. xedapena, *Gaceta de Madrid*, 1920ko apirilaren 30a. 121. zk., 378. or.

¹⁰ 1920ko irailaren 15eko Errege Dekretua. *Gaceta de Madrid*, 1920ko irailaren 16a, 200. zk., 1.024-1.026. or.

¹¹ 1920ko irailaren 29ko Errege Agindua, *Gaceta de Madrid*, 1920ko urriaren 2a, 276. zk., 27. or.

Krisia bete-betean kolpatu zuen sektorera, eta, beraz, enpresak hura gainditzen saiatu ziren. Hala, lehen kooperatibak agertu ziren, lehena, *Alfa*, sozialisten Herriko Etxearen ekimenez. Hasiera batean, armak egiten saiatu zen, baina handik denbora batera utzi egin zuen produkzio hori, beste produktu batzuetan arreta jartzeko, hala nola josteko makinetan.



*ALFA josteko makina. Sektore baten erresilientziaren erakusgarri.
Egilea: Eduardo J. Alonso Olea.*

Baina, noski, izan ziren mugimenduak sektorearentzat horren kaltegarriak ziren arau-berrikuntza horien kontra. 1923ko lege-gintzarako hauteskundeetan, Kongresuan arazo hori planteatzeko kandidatura bat antolatzea proposatu zen arma-eremu osoan. Inguruko *indar bizi* guztiak mobilizatu ziren, eta protesta-ekintzak antolatu ziren; 1923ko apirilaren 16an inguruko herrietako udal guztien dimisioarekin amaitu ziren: Eibar, Elgeta, Ermua, Zaldibar, Berriz, Elgoibar, Soraluze, Bergara eta Zuma-

rraga, eta, hurrengo egunean, Erreteria. 16an greba orokor handia izan zen, indar bizi horiek guztiak babesten zituen hautagaia nabarmentzeko hauteskunde-kanpainaren atarian: Juan Urizar y Eguidazu.

Juan Urizar y Eguidazu Eibarren jaio zen, 1888ko abuztuaren 17an. Aita Pedro Tomas Urizar Zalduegui Ariño zen, Mallabian (Bizkaia) jaioa, 1854ko irailean. Ama Juana Eguidazu zen, Eibarkoa. Aitona-amonak ere Mallabikoak ziren: Martín Antonio Urizar Apoita (1814) eta Justa Agustina Zalduegui Ariño Garitao-naindia (1819). Amaren aldeko aitona-amonak: Juan Eguidazu, armagina, Elgoibarren jaioa; eta Ramona Guisasola, eibartarra. Artisau-familia zen, aita grabatzailea zen, eta aitona armagina; beraz, Gorteetan probintzia tradizionalki ordezkatu izan zuten familia garrantzitsuetatik urrun zeuden.

Bere kontura ezarri zen, armagintza-tailer baten jabe, eta Eibar-ko tokiko politikan hartu zuen parte. Bergarako barrutiaren hautaketara aurkeztu zenean, Eibarko zinegotzia zen —nahiz eta zegoeneko dimititu zuen—. 1923ko apirilaren 29ko hauteskundeetan militante tradizionalista izan arren, emandako botoen % 75 lortu zuen; horrek argi eta garbi erakusten du eskualdeko “indar bizi” horiek Bergarako barrutian zuten garrantzia —haren bidez aurkeztu zen—, eta aulkia kendu zion Manfredo de Borboiri, Kongresuan apenas parte hartzeagatik *Duke mutua* deitua. Dinastiko, nazionalista, tradizionalista, integrista, sozialista, patronal eta sindikatuen botoa mobilizatzeko gai zen hautagai “herrikoia” izan zen.

Parlamentuko lanetan oso parte-hartze mugatua izan zuen, baina egia da 1923ko legegintzaldian oso laburra izan zela, irailean Primo de Riberaren estatu-kolpearen ondorioz, eta are gehiago kontuan hartzen badugu kargua ekainaren 12an hartu zuela.

Nolanahi ere, denbora eman zion Estatuko mendeko funtzionarioen estatutuari buruzko legez besteko proposamen bat egiteko, azken buruan postua eskuratzea eraman zuena, eta, batez ere, armak eduki eta erabiltzeko zigor berriei buruzkoa. Proposamen horretan, armagintza-sektorearen interesak defendatu zituen, eta arma-kontrol zorrotzaren ondorio kaltegarriak azpimarratu (Agirreazkuenaga, 2007).

Ahalegin guztiak egin arren, hogeiko hamarkadaren erdialderako, enpresa batzuek Estatuaren eskaerak jaso zituzten arren, gehienetan handienek, fabrikatzaile eta lantegien jabe askok ez zuten aukerarik izan armagintzarekin jarraitzeko. Hori zela eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, beren trebetasunen erabilera eta, gutxienez, beren makinaren zati bat beste eskaera bat zuten produktuak fabrikatzeko erabiltzea pentsatzen hasi ziren.



Pistola erdiautomatikoa, 7,65 mm-koa, "Looking Glas" markakoa, Domingo Acha y c. enpresak fabrikatua.

Iturria: <http://www.catalogacionarmas.com/public/recuerdos75.pdf>

Normalean, kooperatiba-mugimendua XX. mendeko hirurogeiko hamarkadako industria-hazkundearekin lotzen dugu, baina oso lehenagokoa da. Izan ere, arma-fabrika horietako askok beste ondasun batzuetara aldatu zuten beren ekoizpena —haietan

beren trebetasunak berrerabil zitzaketen—, eta, gainera, antolakuntza-aldaketak izan ziren, kooperatiba-formatua hartzeari dagokionez. Enpresaburuek, hainbat kasutan, “amore eman” zuten, eta sozietatea aurrera ateratzen saiatu ziren langileak. Dagoeneko aipatu dugu Alfaren kasua.

Eta, gainera, Alfak bezala, josteko makinak egiten hasi ziren, baina baita burdinazko hodia edo mekanismo engranatuak erabiltzen zituen beste produktu bat ere, hala nola bizikleta; BHrekin edo GACrekin gertatu zen bezala, Gárate, Anitua y Cía, arma-fabrikatzailea bizikletak egiten aritu zen 1927az geroztik, eta armak egiteari utzi zion 1930ean. Gero, bizikleten eta motozikleten fabrikazioan hartu zuen garrantzia, eta horien artean Mobylette ezaguna nabarmendu zen.

Ekoizpenean izandako aldaketa horien albo-ondorio bat izan zen fabrikazio berri horietarako kalitatezko burdina eskatzeari utzi zitzaiola, eta, beraz, egur-ikatzarekin lortutako burdina horren hornitzaileek lantegiak aldatu behar izan zituzten. Kasurik nabariena Boluetako Santa Ana da; 1925ean, egur-ikatzaren behar zuten labeak behin betiko itxi zituen —ia 80 urteko jardueraren ondoren—, eta ekoizpena aldatu zuen, lehenik bola forjatuarekin, eta, 1929tik, ijezketa-zilindroarekin, nahiz eta hirurogeiko hamarkadaren bukaera arte altzairua ekoizteko labe elektriko bat ustiatzen jarraitu zuen (Alonso Olea, 2016).

Ulertu behar da Ermuan izandako industrializazio-prozesuak Gipuzkoakoaren antz handiagoa duela Bizkaikoarena baino. Nerbioi-Ibaizabal ibaiaren behe-ibilguan siderurgia handia garatu zen, eta bertako produktuak ekipamendu-ondasunen industriek (Babcock & Wilcox), ontziolek (La Naval edo Euskalduna), metalurgiak (Basconia, Talleres de Deusto, Aurrerá), hodiekin (Tubos Forjados) ustiatu zituzten, ekoizpen handiko —eta meatze-esportazioko— ingurune batean, Bizkaiko eremu zabal batean, baina

ikusten dugu Durangaldea eta, zehazki, Ermua, eredu horretatik urrun zegoela, ez kapitalik ezagatik bakarrik – eta hori ez zatekeen oztopo nagusia izango; izan ere, zenbait jarduerak kapital zabalak behar izan zituzten, hala nola papergintzak –, baizik eta leku faltagatik eta merkantzia astunak eta bolumen handikoak garraiatzeko aukera emango zuten komunikazioen zailtasunagatik (itsasotik urrun eta orografia malkartsu batez inguraturik). Armagintzaren sektorea balio erantsi handiko produktu baten ia artisau-ekoizpenean oinarritzen zen, Estatu baten funtzionamendurako estrategikoa (armadak behar zituen), prestakuntza-prozesu luzeak zituen (horretarako, gremioak funtsezkoak izan ziren) eta kalitatezko materialak behar zituen (metala eta zura). Espazio txiki batean abantaila horiek erabil zitezkeen eta abantaila handi samarrarekin lehiatu. Ekoizpena modernizatu zenean XIX. mendean, eta gremioak desagertu zirenean, krisi-une nabariak egon ziren —sistema tradizionalekoak—, baina egoera berrietara egokitu ziren, hala nola arma-fabrikazioa Trubiara eramatea (Frantziako mugatik urrunago —Ermuko hiribildua ia-ia suntsitu zen Konbentzioaren Gerran— eta, geroago, baita karlismoaren gune batean ere). XVIII. mendearen amaieran Eibarko adituak ez ezik, inguruko zonaldekoak ere (Eibar edo Soraluze) joan ziren hurrengo hamarkadetan Trubiara, eta, hala, XIX. mendearen amaieran, armagintza-sektoreko artisauen familia-sareak aurkitu genituen, eta beste hiri batzuetan saltzen zituzten produkzioak¹².

Bada, esan bezala, aldaketa horiek egoera berrietara egokitzea eta produktu eta merkaturatze-sare berriak bilatzea ekarri zuten. Ez dugu enpresa handirik aurkituko, ez ziren izan lehenago

¹² Kasu bat aurkitu dugu Bilbon. Ascao kalean arma-denda bat zegoen, Aranguren Armería, eta, besteak beste, Soraluzeko jabearen lehengusu batek egindako eskopetak saltzen zituen.

eta ez dira izango gerora¹³; horregatik, zaila da horiei buruzko datuak aurkitzea. Adibidez, Gerra Zibila arte Bizkaian sortu ziren sozietate anonimoen artean, ez dago Ermuan helbideratutako sozietaterik (Alonso Olea, 1995). Bistan denez, horrek ez du esan nahi enpresarik ez zela egon, baina ez zuten behar adinako kapital-premiarik, Ezkerraldeko edo Bilboko industria-inguruneetan hain ohikoa zen sozietate-figura hori eskatzeko.

Izan ere, aurkitu ditugu konpainia batzuk, hala nola Zubizarreta, Iriondo y Cía, eta 1929an armak eta errebolberrak mekanizatzen zituela agertzen da; 1933an Cosme Zubizarreta izena hartu zuen, baina esku-erremintak egiten zituen (mailuak, aliketak, etab.); 1970erako —Zubizarreta-Iriondo SL— langile gehien zituen herriko enpresa zen (Obaldia Undurraga, 2018).



Zubi-Ondoren instalazioak, 70eko hamarkadaren amaieran.

Iturria: <https://www.ermua.eus/es/dosieres/industria-demografia-urbanismo-ermua>

¹³ Ez dugu ahaztu behar esku-erreminten lantegi nagusietako bat, Patricio Echevarría SA, errementari batek Legazpin sortua, 1908an. Mundu Gerraren aukera baliatu zuen ekoizpena ingurune urrunetan kokatzeko, hala nola Hispanoamerikan, Bellota marka ezaguna erabiliz (ezaguna da oraindik ere, baina beste sozietate bati saldua). Ik. González García (2005).

ERMUA, GERRA ZIBILAREN ONDOREN, KRISIA ETA INDUSTRIAREN GOREN ALDIA.

Gerra Zibilak ageriko kolpea ekarri zion ekonomiari, ez bakarrik Ermuan. Hiribildua frontetik hurbil egon zen, baina kalte gutxi jasan zituen gerraren ondorioz, Eibarrek ez bezala, oso kaltetua gertatu baitzen.

Bakera itzultzeak ez zuen lasaitasunik ekarri; izan ere, 1939az geroztik —nahiz eta gerra bi urte lehenago amaitu zen Euskal Herrian—, ezarritako erregimen berriak, batez ere lehen urteetan, biztanle gehienentzako zoritxar handiak ekarri zituen. Jazarpen-politika oposizioa zirudien guztietara zabaldu zen, eta, horrez gain, politika autarkikoak onartzeak lehengaiak lortzeko edo merkatu berrietan kokatzeko zailtasun nabarmena ekarri zuen. Epe laburrean behintzat, hau izan zen abantaila bakarra: merkatu-erreserba handia zegoen, kanpoko produktuen inportazioa benetan zaila eta, askotan, ezinezkoa baitzen, eragin edo adiskideen bidez lortutako inportazio-lizentzien arabera, edo eroskeriaren bidez ez bazen. Beraz, lantegi txikiek biziraun ahal izan zuten lehia faltaren aurrean, baina alde negatiboa ere izan zen: zailtasun handiak lehengaiak, erregaiak lortzeko (kontingenteei lotu zitzaizkienak), eta, jakina, errazionamendua, 1952ra arte mantendua; horrek merkatu beltza ekarri zuen. Elikadura txarrak ere eragina izan zuen enpresetan; izan ere, enpresa asko kexu ziren langileek indarra galdu zutelako: ez ziren gai eskatu-

tako erritmoan lan egiteko, eta handitu egiten zen lan-istripuen kopurua.

Bizkaiko eta Gipuzkoako ekonomientzat beste faktore negatibo bat ere izan zen, hala nola 1937ko ekainean Ekonomia Ituna indargabetzea —Arabak eta Nafarroak Hitzarmen Ekonomikoarekin jarraitu zuten—, eta, beraz, erregimen komunean integratuta, inbertsio publikoaren urritasuna jasan zuten bereziki, Frankismoan lurralde osoan gertatu zen bezala.

Horri guztiari lan-araudiaren ondorioak gehitu behar zaizkio. Ez da kasualitatea Erregimenaren Oinarrizko Legea (eta zortzi izatera iritsi ziren) *Fuero del Trabajo*¹⁴ (Lanaren Forua) izatea, 1938an onartua, artean gerra amaitu gabe. Jakina, jabetza eta ekimen pribatua onartzen ziren, baina Organización Nacional-Sindicalista del Estado osatu zen, nahitaezkoa zen bertara afiliatzea. Prezioak, soldatak, lan-baldintzak, salgai- eta lehengai-kontingenteak edo energia iturriak Estatuak arautu eta kontrolatuko zituen.


Politika horren ondorioak kaltegarriak izan ziren. Alde batetik, enpresaburuek irabazi edo galdu egiten zuten, edo lehiakorrak ziren ala ez, erregimenetik hurbil edo urrun bazeuden; eta, bestetik, langileek enpleguan segurtasuna irabazten zuten, ekoi-zpen-masa diziplinatu gisa jardutearen truke. Autarkiak ez zuen ezer onik ekarri, eta, hain zuzen, prezioek gora egin zuten, batez ere berrogeiko hamarkadaren bigarren erdian. Katetoria batzuek erosteko ahalmen txiki bat mantendu ahal izan zuten, beste batzuek, hala nola metalurgikoek ez horrenbeste (Carreras, 2005, 1.180). Azken batean, langile batzuk, ez langabetuak, literalki gosez hil ziren¹⁵.

¹⁴ *Fuero del Trabajo*. 1938ko martxoaren 9a. *BOE*, 505 zk., 1938ko martxoaren 10a, 6.168-6.181 or.

¹⁵ Horixe gertatu zen, esaterako, Bizkaiko Labe Garaietan. Alargunak lan-istripuaren estaldura aplikatzeko eskatu zuen, baina mutuak ukatu egin zuten, gosez hiltzea ezin baitzen lan-istripuztat hartu. Ik. Alonso Olea (2000)

Dena den, erregimen berria iristean alderdi positibo batzuk ere izan ziren. Besteak beste, enpresek hileko soldata finkoak ordaindu behar izan zituzten, ordura arte ohikoena produkzio errealean oinarritutako asteko orduengatik bakarrik kobratzea baitzen (edo adostutako destajuan, piezako hainbat). Igandea jaiegun eraginkorra izateaz gain —Eliza Katolikoak erregimen frankista berrian duen pisu nabarmenagatik—, ordaindutako oporrak sartzen joan ziren; alegia, familia-ekonomia (eta denbora) hobeto planifikatu zitekeen. Gainera, jakina, prestakuntza hedatzeak eragindako ondorioak ditugu, nabarmentzekoa Eibarko Armeria Eskola (1913an sortua). Handik atera ziren eskualdeko langile asko, eta batzuk enpresaburu bihurtu ziren independizatzeko.

3. grafikoa. Bizitzaren kostuaren indizea. 1936ko uztailleko oinarria = 100



Iturria: CARRERAS, Albert, TAFUNELL, Xavier (koord.). Estadísticas históricas de España. Siglos XIX-XX. 2. argit. Bilbo, BBVA Fundazioa, 2005. 16.21 taula.

Berehalako gerraostean, ekonomiaren geldialdiaren eragin bixia gertatu zen, hala nola enpresak sortzea, txikiak gehienak, merkatu-hobiak aurkitu baitzituzten produktuen inportazioa oso zaila zela esaten dugun uneetan. Adibidez, Manufacturas GESeK, 1941ean Eibarren sortuak, bizikletentzako piezak egiten

zituen. 1970ean Ermura lekualdatu zen, eta, gaur egun, bizikleta-ren sektorerako hainbat produktu egiten ditu.

Ermuan ere enpresa txiki berriak ezarri edo lehenagokoak handitu egin ziren, eta ez guztiak metalaren sektoreari lotuak. Adibidez, Udalbatzak baimena eman zion César Bengoechea Quintanari erretxina-olioaren (errizinoaren) fabrika bat instalatzeko, 1943ko martxoan¹⁶. Hurrengo urtean, Miguel Gárate eta Bernardo San Ildefonso Industrias AGIren jabeai (besteak beste, kafe-makinak egiten zituzten) baimena eman zitzaion industria-pabiloi bat eraikitzeko. Ermutik Arangizanara doan errepidean, orduan hiribilduko zeharbidetzat jotzen zen hartan. Beste batzuk, ordea, instalazioak handitzera mugatu ziren, hala nola Lejardi¹⁷ y Múgica, hiribildutik Mallabirako irteeran egin zuten tailerrean.

Oraindik ere, eraikin berean tailer eta etxebizitzak uztartzen ziren garaian gaude; Anastasio Mújicak eraikitakoaren moduko pabiloiak, 1946ko maiatzean emandako baimenarekin, garai hartan Ignacio Olañeta kalean zeuden lurretan, orain, Zubiaurre kalea.

Enpresariak negozioa ezarri (eta are aldatu eta hobetzeko ere) zuen kontrol handiak lehen eskuko iturria eskaini digu berrogei hamarkadako urte horietan Ermuko enpresa batzuen ekimenak ezagutzeko. Kontua ez zen jarduera berri bat zabaltzeko edo instalatzeko baimena lortzea soilik, baizik eta ekimen horien berri ematea, Espainian kokatutako ekoizleek beren burua proposa zezaten inportatzea aurreikusten zuten bitarteko edo lehengaien hornitzaile gisa. Horrela, Domingo Acha y cía. enpresak baimena eskatu zuen umeentzako autoentzako eta jostailugintzarako osagarrien ekoizpena handitzeko, eta bertan behera utzi zuen

¹⁶ Ermuko Udalaren akta. 1943ko martxoaren 12a. Azcona Pastorrek aipatua (2003), 524. or.

¹⁷ Hilabete batzuk geroago, etxebizitzak dituen pabiloi bateko obra-baimena eskatuko du.

burdingintzako ekoizpena. Makinerian aldaketa txiki batzuk eginenez, ekoizpena handitzea proposatu zen: 10.000 lasterketarako bizikleta, jostailuzko 15.000 eskopetatxo eta haur-kotxeentzako 6.000 abatz eta abatz-estalki¹⁸.

Asmo handiagokoa izan zen Garate y San Ildefonso, S. R. C. "Industrias Agir"en proposamena, eta baimena eskatu zuen magnitude hauetan ekoizpena handitzeko: etxeko erabileretarako material elektrikoa, bizikleten osagarriak eta burdindegiko artikulak (8 orduko lanaldiekin, hau da, aparteko orduak aurreikusi gabe)¹⁹.

¹⁸ Iragarkia, 1947ko irailaren 18an egina, *BOEn*, 274. zenbakian, 1947ko urriaren 1ean, 2.396. orrialdean. Iragarki horiei, sistematikoki, erreferentzia hau eranstean zitzaien: erabili beharreko makineria eta lehengaiak nazionalak izango zirela, eta ekimenak eragiten ziola uste zuenari 10 eguneko epea ematen zitzaion aurka agertzeko Bilboko Industria Ordezkaritzan.

¹⁹ Iragarkia, 1947ko ekainaren 25ekoa, 1947ko uztailaren 12ko *BOEn* (193. zk.), 1.839. or.

1. taula. Artikuluen objektu eta magnitudeen dibertsifikazioa

Kafe-makina misto elektrikoak eta alkoholezkoak	6.000
Plantxa elektrikoak	30.000
Su txiki elektrikoak	20.000
Ontzi elektrikoak	7.000
Berogailuak	6.000
Su-ontziak	5.000
Ordezko erresistentziak	10.000
Bizikletentzako txirrikak	72.000
Bizikletentzako pedalier-platerak	10.000
Torloju beltz burubiribil lepokarratuak	900.000
Azkoinak	900.000
Sarrailak	10.000
Irrati-bozgorailuak	10.000

Ikus daitekeenez, era askotako objektuak egiten zituzten: bizikleta-ardatzak, berogailuak, su-ontziak edo irratiko bozgorailuak, edo, behintzat, hori egin nahi zuten.

Jarduerak zabaltzeko prozesuak ez ezik, enpresa berriak ere aurki ditzakegu, hala nola Vicente Izarra Larreak²⁰ eskatutakoa. Izan ere, 1948ko uztailan, makina-erremintak eraikitzeke industria berri bat ezartzeko baimena eskatu zuen, urtean puntarik gabeko 36 artezgailu, 36 leungailu eta 240 giltza-sorta sortzeko ahalmena izango zuena²¹.

Ekimen horiek guztiek ez zuten zerikusirik metalaren sektorearekin. Beste batzuk ere bazeuden, hala nola Serrerías Norteñas S.L.k (San Roman auzokoa) sustatutakoa, baimena eskatu baitzuen zerra-parkea handitzeko eta, hartara, taula, ohol eta ohol-txotan urteko produkzioa 4.000 metro kubikoraino handitzeko.

²⁰ Orduan 34 urte zituela, eta 1969an, hauteskunde-errolan mekanikari-lanbidea ageri zela, eta helbidea zuela Apirilaren 26 hiribidea 3.a-n (orain Zearkale).

²¹ Iragarkia, 1948ko uztailaren 6koa, BOEn, 214. zenbakian, 1947ko abuztuaren 1ean, 1.791. orrialdean.

Kontuan hartu behar da lehengaien erosketak mugatuta zeldela, eta, beraz, kontua ez zen makineria gehiago edo gutxiago izatea, baizik eta zegokion lehengaia izatea. Hain zuzen, 1954an, enpresa hori laugarrena zen zura erosteko “rankingean”, Gernikako Toña y Leguinecheren, Zornotzako Compañía Vizcaina de Maderas eta Derioko Zubiaur enpresen atzetik²².

Oro har, hala ere, metalurgia-sektoreko enpresak izan ziren; izan ere, hamarkada amaitu baino lehen, Ermua S.L. sozietatearen negozioak handitzeko instantziak aurkitu ditugu, «Bergman»²³ hodia fabrikatzeko instalazio bat jartzeko, hotzean ijetzitako burdinazko zumitzez egina, urtean 960.000 metro inguruko ekoizpen-estimazioarekin²⁴, eta Zubizarreta e Iriondo, Sociedad Limitado-ren baimenarekin. Sozietatea garai batean Mola Jeneralaren kalean zegoen (orain, Izelaieta). Sozietate horrek baime-na eskatu zuen «Crescent» giltza doigarrien (normalean giltza ingelesak) fabrika bere erabilerarako forja bat instalatzeko, urtero tamaina guztietako 100.000 giltza forjatu arte fabrikatzeko helburuarekin²⁵.

Ekimen horiek eta beste batzuek, beste datu batzuekin batera, hiribilduko biztanlerian duten eragina adierazten dute. Hala, izatezko eta zuzenbidezko populazioaren arteko aldea ikus daiteke²⁶. Horrela, 1946ko abenduaren 31n, Ermuako izatezko biz-

²² Iragarkia, 1948ko irailaren 22an egina, *BOEn*, 299. zenbakian, 1948ko urriaren 25ean, 1.570. orrialdean. “Rankingaren” erreferentzia 1954ko irailaren 1eko *BOEn* jaso da, 244. zenbakian, 6.044. orrialdean.

²³ Burdinazko xafrazko hodia, barruan isolatua, egun erabiltzen ez dena, eta hodi elektrikoetarako erabiltzen zena.

²⁴ Iragarkia, 1948ko azaroaren 27koa, *BOEn*, 344. zenbakian, 1948ko abenduaren 9an, 3.058 or.

²⁵ Iragarkia, 1950eko urtarrilaren 12ko *BOEn*, 25. zenbakian, 1950eko urtarrilaren 25ean, 114. orrialdean.

²⁶ Bereizketa juridiko administratiboa da. Zuzenbidezko biztanleria leku jakin batean erroldatuta dagoena da («egoiliarrak»), eta, beraz, han erabiltzen ditu eskubide zibilak (adibidez, botoa). Baina pertsona baten benetako kokapena beste bat izan daiteke biztanleria zenbatzeko eragiketa bat egiten den unean, hala nola errolda. Orduan, izatezko biztanleriaz hitz egiten da, dagoen tokian erroldaturik egon ala ez. Horregatik, ohikoa da bi populazioak bat ez etortzea.


tanleria 1.411 biztanlekoa zen, baina zuzenbidez 654 besterik ez ziren, hau da, biztanleen ia erdia beste leku batean erroldaturik zegoen. Biztanleria-hazkunde horren ondorioz, urte horretako maiatzean onartu zen hiribilduan nahiko etxebizitzarik ez zegoe-la, eta, beraz, Udalak San Pelaio basilizaren ingurua izan zuen aintzat, Hiribilduaren ekialdean, hiribilduaren zeharbide edo lu-zapen gisa (Azcona Pastor, 2003, 526).

1950EKO HAMARKADA: HAZKUNDE-HASIERA.

Berrogeita hamarreko hamarkadaren hasiera ez zen berrogeiko azken urteak baino askoz hobea izan, errazionamendu-kartillak 1952ra arte erabili baitziren gerraren ondorioen itzal luzearen erakusgarri. Hala ere, zerbait aldatzen hasi zen, pixkanaka bazen ere. 1945ean Bigarren Mundu Gerraren amaierak eta Gerra Hotzaren hasierak Francoren erregimenak izandako isolamendu-egoera nabarmen arintzea ekarri zuen handik gutxira. Iparramerikarrek, Mundu Gerrako irabazle argiek, argi ikusi zuten 1947az geroztik erregimen antikomunista bat bazegoen Europan Francorena zela, eta, beraz, beste inguruabar batzuk alde batera utzi zituzten komunismo estalinistaren aurkako defentsan aliatu guztiak gutxi zirelako ustetan. Ideia horien ondorioz, 1953an Estatu Batuekin sinatu ziren lehen merkataritza-akordioak, eta, pixkanaka, Espainiako ekonomia hobetzen hasi zen. Hain zuzen, 1955erako iritsi ziren Gerra Zibilaren aurreko produkzio-mailak.

Gure kasuan, Ermuan, joera-aldaketa hori islatzen hasi zen immigrazio-prozesu indartsu baten hasierarekin. Ikusi dugunez, 1940ra arte populazio-dentsitatea Jaurerri zaharraren batez bestekoaren inguruan egon zen, baina 1950etik aurrera joera hori aldatzen hasi zen; ez zen hurrengo hamarkadan gertatuko zen bezala igo, baina joera bat ageri zen, eta, egia esan, joera horrek hazten jarraitu zuen 30eko hamarkadan.

4. grafikoa. Ermuan erroldatutako biztanleak. 1930-1950. (bizt. kop.)



Iturria: Kasuan kasuko erroldak.

Horrela, 1950erako, biztanleria 400 biztanle baino gehiago hazi zen, eta 1930etik 1940ra bitartean izandako hazkundera bikoiztu egin zen.

Hazkunde horretatik asko izan zen hazkunde naturalaren ondorio, baina argi ikusten hasi zen prozesu bikoitza. Alde batetik, Eibarrek izan zuen hazkundearen eragina, eta, bestetik, emigratio-prozesu handi baten hasiera; horren ondorioz, 1940 eta 1980 artean, ez zen Espainiako populazioaren bolumena bakarrik aldatu, banaketa espaziala ere aldatu egin zen.

VARIACIÓN DE LA POBLACIÓN ESPAÑOLA 1950-1981



Iturria: INE.

Gerraosteko lehen urteetan nolabaiteko “birlandatartze” prozesu bat izan zen, landan janaria lortzeko larritasuna askoz txikia goa zelako; behin premia horiek arinduta, Berrezarkuntzaren garaitik, hiriranzko joera hartu zen berriro. Prozesu hori bereziki argia izan zen Euskadin, baina Ermuak, Bizkaiko industria astu-naren jarduera-zentrotik urrun, ez zuen hazkunde hori izan, ikusi dugunez, XX. mendera arte.

Kontuan hartu behar den beste elementu bat da, berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan, Eibarrek zituen 24 km² baino gehixeagotan lurzoru industrial nahikorik ez zela (Ermuak 6,5 km² zituen; ez zen konponbide handia, baina zerbait bazen). Ez hori bakarrik, immigranteen etorrera ez zen konpentsatzen etxebizitzaren eskaintza handitzearekin. Eta berrogeita hamarreko hamarkadan enpresa ugari zabaldu eta ezarri ziren.

1956an, hormigoizko blokeak egiten zituen Eibarko (Urko) enpresa batek eskaera egin zuen produkzioa Ermuko Heredad de Errecaldera lekualdatzeko²⁷. Urte horretan mekanika- eta trokelgintza-tailer bat jartzeko baimena ere eskatu zuten (Valdespinako Markesaren kaleko 7.ean). Urte horretako abuztuan, Cuchillería del Norteko Pedro M. Izaguirre Achak instalazioak handitzeko baimena eskatu zuen. Gauza bera eskatu zuen Santiago Salaverría S.A. arma-etxeak, baina kasu horretan pabiloi industrial bat eraikitzeko. Zubizarreta e Iriondo ezagunak, 1958ko urrian, industria-pabiloi bat bilatu zuen (bost urte lehenago baimena eskatu zuen pistola automatikoen fabrikaziora itzultzeko, urtean 500 ale arte²⁸). Eraikin mistoen garaia pasatzen ari zen (etxebizitza/industria). Otsailean, Izarra y Cía. enpresako Isaac Izarra Larreak²⁹ baimena eskatu zuen tailerra lur-erauzketa baten bidez handitzeko, eta Félix Fuldain Zabalak³⁰, berriz, baime-na eskatu zuen San Lorenzo auzoan beste pabiloi bat egiteko. Eugenio Unamuno Urtiagak baimena eskatu zuen 1955ean bere makina-parkea handitzeko: motelgailuak ekoizteko ahalmena³¹, urtean 1.000 motelgailutik 2.000 motelgailura handitzeko, 130.000 pezetako inbertsioarekin³². Lau urte geroago, gauza

²⁷ Ermuko Udalaren akta, 1956ko abuztuaren 9koa, 171. or., Azcona Pastorrek aipatua (2003), 530. or.

²⁸ 1953ko urriaren 20ko data duen eskaera, ik. *BOE*, 1953ko azaroaren 6a, 310. zk., 3.134. or.

²⁹ Orduan, 36 urterekin, 1969ko erroldan industrialaritzat ageri da, eta Apirilaren 26a 3.a hiribidean zuen bizilekua.

³⁰ Félix Fuldain Zabala odontologoa zen, eta Ignacio Olañeta kalean bizi zen, 35 urterekin. Ikusiko dugunez, beste bi anaia negozioari lotuta zeuden. Horiek horrela, aita ere odontologoa zen, Jose, eta Ermua eta Eibar inguruan jarraitzen zuen. Ik. "Los Fuldain, una saga de 80 años de dentistas en Eibar y Ermua". *El Diario Vasco*, 2018ko abenduaren 22a.

³¹ Unamunok (gerora, Unamuno S.A.) Junior markako motelgailuak egiten zituen; gero, hirurogeita hamarreko hamarkadan, Monroe markarekin ere egin zituen, Teneco iparramerikarra sozietatean sartu zenean. Gaur egun, Ureta industrialdean, marka horrekin jarraitzen du ekoizpenak.

³² 1955eko azaroaren 29ko data duen eskaera, ik. *BOE*, 1955eko abenduaren 18koa, 352. zk., 4.369. or.

bera egin zuen urtean 6.000 motelgailu inguru fabrikatzeko³³.

Larrañaga Hermanos enpresak 400.000 pezetako inbertsioa egin zuen, eta baimena eskatu nikeleztatze-industria eta galdaketa-industria handitzeko; makinak instalatu zituen gasa eta aire konprimitua eramateko balbula eta zorro bereziak egiteko, bai eta automobiletarako osagarriak egiteko. Aurreikuspenen arabera, urtean 30.000 balbula berezi, 20.000 lotura eta 15.000 lotura-zorro fabrikatu behar ziren³⁴.

José Luis Madariaga Guisasolak, hasieran 450.000 pezetako inbertsioarekin, baimena eskatu zuen nekazaritzako makinatarako osagarriak egiten zituen industria bat instalatzeko. Urtean gutxi gorabehera 300.000 unitate ekoizteko: golde-heldulekuak, lotzaileetako hatzak, sega-makinak eta azaoak egiteko makinak. Golde-belarriak, buloiak, eserlekuak eta hainbat pieza ere egingo lituzke, urtean 240.000 ale gutxi gorabehera³⁵.

Ermuko Talleres S. A. G. enpresak baimena eskatu zuen kapitala 400.000 pezetatan handitzeko, helburua izanik estanzio-tailerretarako makina berriak instalatzea autoen osagarriak ekoizteko: autoen edergarriak (60.000 unitate urteko) eta kolpe-leungailuak (20.000 unitate urteko³⁶). Aste batzuk geroago³⁷, inbertsioa 600.000 pezetatan handitzeko baimena eskatu zuen, makina berriak instalatzeko estanzio-lantegian, eta, horrela, automobilen, motozikleten eta abarren osagarriak egingo zituen, urteko ekoizpenaren estimazio hauekin:

³³ Eskaera, 1959ko apirilaren 17koa, ik. *BOE*, 1959ko maiatzaren 8a, 110. zk., 6.783. or.

³⁴ 1956ko urriaren 26ko data duen eskaera, ik. *BOE*, 1957ko urtarrilaren 30ean, 30. zk., 369. or.

³⁵ 1957ko urtarrilaren 31ko data duen eskaera, ik. *BOE*, 1957ko apirilaren 5ekoa, 95. zk., 128. or.

³⁶ 1957ko otsailaren 15eko data duen eskaera, ik. *BOE*, 1957ko apirilaren 20koa, 98. zk., 543. or.

³⁷ 1957ko abuztuaren 13ko data duen eskaera, ik. *BOE*, 1957ko azaroaren 13koa, 285. zk., 6.528. or.

2. taula. Ermuko Talleres S. A. G. enpresaren urteko ekoizpenaren zenbatespena

Auto-apaingarriak	15.000
Auto-argien eraztunak	20.000
Zirrindolak	8.500.000
Direkzio-plakak	25.000
Motelgailu-euskarriak	50.000
Ziklomotor-urkilak	5.000
Ziklomotor-deposituak	5.000
Kate-estalkiak	10.000
Astoak	10.000

Aguirregomezcorta, S.A. enpresak, 1959ko hasieran, baime-na eskatu zuen automobil-osagarrien multzo berri baterako produkzioa handitzeko: 2.000 katu hidrauliko eta mekaniko, bankuko 2.000 torloju paralelo eta 5.500 sarraila³⁸.

Ignacio Arin Unamunok gauza bera egin zuen, bere tailer me-kanikoan eta trokelgintzan makineria instalatzeko, 420.000 pezetako inbertsioa egin ondoren, makineriako eta automobil-gintzako osagarri batzuk egiteko. Urtean 1.500 diferentzial-sor-ta inguru, 1.350.000 Rashing zirringola eta nekazaritzako ma-kinetarako beste pieza batzuk³⁹ egiteko zenbatespenarekin. Ikusten denez, ekoizpen-ahalmena handitzearen ardatza, batez ere, automobiletarako elementuak fabrikatzeko sektorea izan zen. Handitze eta gehitze horien emaitza izan zen 1957ko aben-duaren 31n Ermuak 2.260 biztanle izatera pasa zela (1.143 gizon eta 1.117 emakume) (Azcona Pastor, 2003, 531).

Hamarkadaren lehen urteetan errazionamenduaren mende zegoen populazioa, eta aparteko mantenua bilatu behar zuen

³⁸ 1959ko urtarrilaren 21eko data duen eskaera, ik. *BOE*, 1959ko otsailaren 14koa, 39. zk., 2.658. or.

³⁹ Eskaera, 1959ko urriaren 15ekoa, ik. *BOE*, 1959ko azaroaren 2koa, 262. zk., 13.978. or.

inguruko landa-eremuan. Baina, beste alde batetik, produktu batzuen fabrikazioaren eksklusibotasunak —ez bakarrik Ermuan, baizik eta “arma-eremu” osoan— produktu horien eskaria oso handia izatea eragiten zuen; asko ekoizten zen, ahal zen guztia, eta, saldu ere, asko saltzen zen”⁴⁰. Esan dugun bezala, biztanleria handitzeaz gain, batez ere jatorrizko eskualde batzuetan (Galizian, esaterako) kontzentratutako immigrazio-prozesu indartsuan oinarritua, dinamismo handia zegoen, eta horrek lan-baldintza hobeak bilatzea ekarri zuen. Biztanleria handitzearen adierazgarri garbia izan zen hiri-hazkundera eta ekimenak, hala nola Teodoro Zuazua apaizak bultzatutakoak; izan ere, etxebizitza-kooperatiben bidez —oso ohikoa orain—, Santa Ana, San Ignazio eta Ongarayko etxebizitzak eraiki ziren.

Ermuko etxebizitza-beharraren erakusgarri da hiribildua Bizkaiko Gizarte Larrialdietarako Planaren estaldura-eremuaren barruan sartu zela. Plana ezaguna zen, batez ere Bilboko auzo berri bat, Otxarkoaga, eraikitzeko operazioaren oinarria zelako⁴¹.

⁴⁰ Ignacio Urretaren testigantza, Azcona Pastorrek aipatua (2003), 532. or.

⁴¹ Maiatzaren 27ko 876/1959 Dekretua, Bizkaiko Gizarte Larrialdietarako Plana ezartzen duena. *BOE*, 132. zk., 1959ko ekainaren 3koa, 7.952tik 7.954ra.

HIRUROGEIKO ETA HIRUROGEITA HAMARREKO HAMARKADAK: GORALDIA

Gauzak geografiaren eta denboraren ikuspegitik ikusita, pentsa daiteke Ermua ez dela Ermua bakarrik, inguruko espazioa ere badela. Hiribilduan arreta jartzen ari garen arren, ezin da inguruetik bereizi, eta ingurunea ez da bizkaitarra soilik, gipuzkoarra ere bada; hori agerian utzi dugu dagoeneko. Nolanahi ere, ekintzailtza ikusita —ez gara Ermuaz bakarrik ari—, oro har, hari eta haren historiari buruzko azterketek gero eta argiago uzten dute badirela haren iraunkortasun handia duten eskualdeak, nahiz eta talkak, gerrak, iraultzak, erakundeetako aldaketa erradikalak edo egoera ekonomiko orokorra izan. Eta, gainera, ekintzailtza hori errendimendu ekonomiko nabarmenarekin dago lotuta (Fritsch, Pylak et al., 2019). Oro har, sustrai historikoek funtsezko azalpena ematen dute epe luzeko ibilbideetan zehar eskualdeak garatzeko, “ekintzailtza, ezagutza eta erakunde informalak kobilakaera ezaugarri dutenak”⁴².

Frankismoak bakea ekarri zuen, edo behintzat irabazleen bakea, eta bake horretan haien helburu nagusia ez zen izan askatasun ekonomikoa. Ordena eta hierarkia izan ziren, noski, baina liberalizazioa 1959ko udako Egonkortze Planetik iritsi zen neurri batean.

⁴² Fritsch & Wyrwich (2022), 2. or. (gure itzulpena). Lan horri buruzko ñabardura bat da zuzenean erlazionatzen dituela ekintzailtza eta autoenplegua, eta lotura estua dutela, nahiz eta ez izan guztiz berdina. Ez da hemen ñabarduretan sartzeko lekua; beraz, oraingoz horrela utziko dugu.

Erregimenak 1957tik⁴³ hartutako zenbait neurritan zituen sustrai nabarmenak —autarkia irteerarik gabeko kalezuloa zen—, eta, 1959ko uztaillean liberalizazio ekonomikoaren oinarriak jarri zirenean, hazkunde ekonomiko handiaren oinarriak ere jarri ziren.

Nazioarteko Diru Funtsean sartu izanak, 1958aren amaieran, atea ireki zion Espainiako politika ekonomikoaren beharrezko birmoldaketari. Estatu Batuetako bazkideek eskatu zuten hori, baina ez zen begi-bistakoa, zeren eta, teknikoki, Espainia ordainketa-etenduraren zorian baitzegoen 1957aren amaieratik. NDFk baldintza onuragarriak jarri zituen laguntzeko, baina trukean gidaritza-aldaketa ekonomikoa eskatu zen. 1959ko uztailaren 20an iragarri zen Egonkortze Planaren onartzea, 375 milioi dolarreko maileguarekin batera.

1959ko uztailaren 21ean, iragarpenaren biharamunean, Espainiako Gobernuak Ekonomia Antolamenduari buruzko Lege Dekretua onartu zuen⁴⁴, eskuarki Ekonomia Egonkortzeko Plana izenekoa, eta Espainiako ekonomiak Gerra Zibilaren amaieratik bizi izan zuen autarkiaren amaiera ekarri zuen; herrialdea modernizatzeko prozesu bati ekin zion, eta horrek Espainiako *mirari ekonomikoa* deiturikoa sortu zuen.

Egonkortze Plana diru, finantza, zerga eta kanpo merkataritzako neurriek osatu zuten, oinarritzko hiru helbururekin: egonkortze makroekonomikoa, kanpoko irekiera eta Espainiako ekonomia-
ren liberalizazioa.

Plana ezarri aurretik, Espainiako ekonomiak inflazio-tasa handia zuen, diru-eskaintza handiegia eta soldata-igoera garrant-

⁴³ Adibidez, 1958ko apirilaren 24ko Legea, hitzarmen kolektibo sindikalei buruzkoa. BOE, 99. zk., 1958ko apirilaren 25ekoa, 739-740 or. Lege horrek esan nahi zuen, azkar esanda, enpresaburuek langileekiko soldatei buruz hitz egin zezaketela, Lan Ministerioak nahitaez finkatu gabe.

⁴⁴ BOE, 174. zk., 1959ko uztailaren 22koa, 10.005- 10.007 or.

zitsuen ondorioz; ordainketa-balantzan defizit handia zegoen, kanpo-erreserbak ia agortuta zeuden, eta defizit publikoa gero eta handiagoa zen. Azken batean, Espainiako ekonomia ia azken beltzean zegoen, eta politika ekonomikoan norabide-aldaketa sakona eskatzen zuen, inflazioa, kanpoko isolamendua eta esku-hartze ekonomikoa amaitzeko. Beraz, neurri horiek ekarri zuten autarkiaren amaiera, liberalizazioa –erlatiboa– eta Espainiako ekonomiaren irekiera. Hartutako neurriak gogorak izan ziren epe laburrean: pezetaren debaluazioa, maileguaren murrizketa, soldatak izoztea... Baina, epe laburrean jarduera ekonomikoaren “geldialdia” izan bazen ere, hirurogeiko hamarkadako hazkunde ekonomiko handiaren oinarriak izan ziren. Hori bai, esparru sozioekonomikoan aldaketa handiak izatearen kontraesana nabari zen, baina erregimen politiko guztiz immobilista batek ezarriak. Hain zuzen, iparramerikarrek Espainiako arazo ekonomiko larriak gainditzeko egindako presioak erreforma ekonomikoan jarri zuten arreta, ez zen inola ere alderdi politikoan sartu. Arrazoi horregatik, seguru asko, Francok politika autarkikoa atzean uzteko zuen erresistentzia espero zuena baino askoz txikiagoa izan zen.

Pentsatzekoa denez, hazkundea Ermuko egoera berezian islatu zen. Neurri batean berezko hazkundea izan zen, baina ez da ahaztu behar Eibar hurbil zegoela. Industria asko garatu zen Eibarren, eta lurzorua bete egin zen. Horren ondorioz, hazkunde horren zati bat Ermura joan zen (edo urrunagoko herrietara, hala nola Gasteizera).

Eibarren hirigintza-plan bat zegoenez, argi geratu zen ezinezkoa zela tailerrak eta etxebizitzak batera edukitzea (immigrante-saldo handiak bizi behar zuen bertan), baina Ermuan 1966ko⁴⁵

⁴⁵ Ermuko Hiri Antolamenduko Plana hasieran onartu egin zuen Bizkaiko Foru Aldundiak, baina Etxebizitza Ministerioak baztertu egin zuen; beraz, hiribilduaren hiri-plangintza linbo juridiko batean geratu zen. Ik. Sapsootham Arévalo (2018).

hiri-planak huts egin zuenez, Eibarko hazkunde potentzialaren zati bat harantz itzuli zen. Industria-lurzoru falta izugarria eta prezioen garestitzea faktore erabakigarriak izan ziren “leherketa” demografikorako, baina baita hiriko industria-jarduerarako ere. Era berean, ondorio argiak izan zituen, Ekonomia Ituna zela eta, Arabako Foru Aldundiak frankizia fiskalak erabiltzearekin batera, beste espazio batzuen garapenean, hala nola Gasteizkoa, baita urrunagoetakoa ere, Oion kasu.

Etxebizitzaren arazoa ez zegoen lurzoru industrialaren arazotik bereizita, ohikoa baitzen erabilera mistoko eraikinak, zati bat etxebizitza izatea eta beste zatia tailerra. Hori da, hain zuzen ere, herrian ekintzailetzaren azterketa zehatza egiteko arazoa, enpresa horietako asko txikiak baitziren, datu gutxi zeuden, eta horietako asko zeharkakoak ziren.

Hala, dokumentazioaren baten harira dakigu espazioan duen kokapena, adibidez, 1964ko jarduera gogaikarrien zerrenda dela eta. Bistan da industria-jarduerak, mekanizatzen diren neurrian, gero eta gogaikarriagoak direla (ez bakarrik kearen ondorioz, baita zaratengatik eta jardueraren beraren hondakinengatik ere), eta enpresa gogaikarrien zerrenda horretan erregistratu ziren⁴⁶. Jarduera gogaikarrietako 80 fokuren artean, erdiak baino gehiago industria-jarduerak ziren, batez ere jarduera metalurgi-koak eta tailer mekanikoak.

⁴⁶ Ermuko Udalaren 1964ko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen erregistro-liburua. 1964ko abenduaren 10ean bidalia. Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa. Udal-araubidea eta hirigintza. AR04846/010.

4. taula. Jarduera gogaikarri eta arriskutsuen erregistroan sartutako establezimenduak. Ermua, 1964.

Jarduera-mota	koop.
Lantegi mekanikoak	24
Tabernak	7
Jatetxeak	7
Urdaitegia-Harategia	5
Forja-lantegiak	4
Okindegiak	3
Upeltegiak	3
Iturgintza-lantegia	3
Burdina-biltegia	3
Harrobiak	2
Zereal-biltegia	2
Zurgindegi/ebanisteria	2
Zur-zerrategiak	2
Automobilen konponketa	2
Hiltegia	1
Udal-azoka	1
Gaseosa-fabrika	1
Inprimategia	1
Ikatz eta materialen biltegia	1
Estanpazio-tailerra	1
Leunketa-tailerra	1
Torloju-denda	1
Kromaketa-tailerra	1
Lantegi elektrikoa	1
Jolas-jardueren elkarte eta ikuskizunak	1
GUZTIRA	80

Iturria: Guk egina, Ermuko Udalaren 1964ko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen erregistro-liburuan oinarrituta. 1964ko abenduaren 10ean argitaratua. Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa (BFAH). Udal-araubidea eta hirigintza. AR04846/010.

Bistan denez, erregistratutako negozio guztiek ez zuten bolumen bera. Hala, tailer mekanikoen artean aurkitzen ditugu Idesa (Industrias Decoletaje Estampación S.A., piezak mekanizatzen zituzten) edo Izaguirre Hnos. sozietatea. Baina garrantzitsuenak ziren Forjas Ermua S.A., Izarra y cía., eta Zubiuzarreta-Iriondo S.L. edo Agirregomezcorta S.A.; azken horrek torlojuak eta katu hidraulikoak egiten zituen. Bazen Engranajes Ureta ere, José Ormaechearen eta Pablo Guridi Uriberen ekimenez sortutako enpresa.

Esan dugun bezala, ondorioak handiak izan ziren: Ermuak bost bider handitu zuen biztanleria hamarkada horretan. Eibarko hazkundeaz gain (ia ezinezkoa), Bilbo⁴⁷ inguruko industria-lurzorua agortzeaz ere baliatu zen; eta Ermua, hain zuzen ere, garapen-ardatz horretan dago, Durangaldearen luzapenean, eta bertara eramango ziren jada Ezkerraldeko eta Bilboko eremu superpopulatuan (eta garestian) sartzen ez ziren jarduerak.

Gero ikusiko dugu zer ondorio dituen Bilbo-Durango-Eibar ardatz horren antolaketak, baina oraingoz esan dezagun leku geografiko horrek, zenbait unetan ikusi dugun bezala, ekarri zuela Ermua jarduera erakartzeko gune bihurtzea, eta, ondorioz, jarduera horretan diharduen biztanleria erakartzea, batez ere jarduera industrialean diharduena.

Baina Ermuko etxebizitza-eskaera handia ez zen soilik Ermuko jardueren hazkundearen ondorio izan, baizik eta Eibarko jardueraren hazkundearen ondorio, eta hain espazio txikian giza marea gero eta handiagoa hartzeko ezintasunaren ondorio. Etxebizitza garestitzeak, beraz, Eibarko langile asko Ermuan bizitzera bultzatu zituen. Eta ez da bakarrik pentsatu behar Ermura joaten

⁴⁷ Ik.. Gonzalez Portilla (2009), batez ere, II. bol.

zen familian, baita Ermuko familien zereginean ere, beren etxeetan kanpoko langile horiek hartzen baitzituzten. Ereditu hori oso zabaldua egon zen; izan ere, etxebizitza-beharrari —muturreko kasuetan, txabolismoa ekarri zuen—, hein batean behintzat, ugazabandreek erantzun zioten, eta familia-errentak handitzea lortzen zuten, hori bai, familia-espazioa partekatzearen truke. 1966an —immigrazio-fluxurik handiena 1960tik 1965era bitartean izan zen— 125 ugazabandre zeuden, gehienak ezkonduak eta bi seme-alaba zituzten, batez beste. Bestalde, apopiloak, gehienak gazte etorkin ezkongabeak, egoera horretan egoten ziren independizatu edo ezkondu arte (Afranda, Astarloa et al., 2000, 15-20). Ostatu-sistema horrek, inolako kontraturik gabe eta ezkutuko ekonomiarekin lotuta, hiribilduko biztanleriaren azpibanaketa nabarmena eragin zuen. Izan ere, industria-gune berrien eskaera handiari aurrekoak handitzea gehitu zitzaion.

1961eko otsailaren 10ean, Industrias Rapid de Ermuak memoria, planoak eta aurrekontuak aurkeztu zituen, eta baimena eskatu zuen bere jabetzako industria-pabilioian bi solairu altxatzeko⁴⁸, San Pelaio zeharbidean dagoen Arín anaiak egin bezalaxe⁴⁹. Urte hartako ekainaren 9an, Muguerza, Lasa y Mújikak Eibarren zuen egoitza, eta San Pelaio auzunean industria-pabiloi bat eraikitzeke lizentzia eskatu zuten. 1962ko urriaren 11n, Manuel Etxebarriak torlojugintzarako tailer mekanikoa instalatzeko baimen ofiziala eskatu zuen. 1963ko urtarrilaren 11n, Pedro Lejardik, Industrias Echarteren izenean eta ordezkartzan, negozioa handitu zuen, eta pabiloi berri bat eraiki.

⁴⁸ Ermuko Udalaren akta, 1961eko otsailaren 10ekoa.

⁴⁹ Arin Buruaga anaiak, Eusebio, Cosme eta Eloy, hurrenez hurren, 1969ko hauteskunde-eroldan ageri dira 52, 49 eta 43 urteko industrialari gisa. Erdikoa, Cosme, ikasle gisa agertzen da Eibarko Armeria Eskolan, 1934ko urrian. Ik. Ermuko hauteskunde-errola zuzendua. 1969. AFB AJ 02164/002. Eibarko Mekanika, Zehaztasun eta Armeria Eskola (1935), 24. or. Empresa Estampaciones metálicas Arin izenarekin iragartzen zen.

Negozioak handitzeko edo alde zurreratik zeuden enpresen izenak aldatzeko eskaeren erreferentzia gehiago ditugu, hala nola Industrias Escalanterena: 1969ko maiatzan, baimena eskatu zuen Codestan enpresaren izenean lanean jarraitzeko, Bilborako errepidean, eta metalezko piezen estanzazioarekin lotutako jarduerak egiteko⁵⁰.

Espazioaren erabilera hobetzeko ekimen publiko eskasaren erakusgarri ditugu ekimen pribatuak, enpresek ibaien edo ur-ibilguen gainean okupatzen duten espazioa handitzeko. Logikoa denez, instantzia ofizialek bideratu beharko lukete, Alejandro Bello Benés-en eskaera onartu izanak erakusten duen bezala; izan ere, Imiñaga edo Ego ibaiaren zati bat estaltzeko eta haren gaineko zubi bat ordeztzeko lanak amaitzeko eskatu zuen⁵¹.

Hurrengo hilabeteetan, antzeko baimenak jaso zituzten beste enpresa batzuek (edo haien ordezkariak), hala nola IDESAk, Urkia erreka zati bat bideratu eta estaltzeko⁵², edo José M^a Berasalucek⁵³.

⁵⁰ Ermuko Udalaren akta, 1969ko maiatzaren 23koa.

⁵¹ Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiaren 1964ko urtarrilaren 18ko Ebazpenaren bidez baimendua. Ik. BOE, 1964ko urtarrilaren 29koa, 25. zk., 1.298-1.299 or.

⁵² Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiaren 1964ko urtarrilaren 18ko Ebazpenean iragarri zen baimena eman zitzaiela «I. D. E. S. A.», José Ormaechea, Juan Luis Aguirre, Pedro Barinaga eta Félix Erausquini, Ermuan (Bizkaia), Urkia erreka zati bat bideratu eta estaltzeko. BOE, 42. zk., 1964ko otsailaren 18koa, 2.168-2.169.

⁵³ 1966ko urtarrilaren 21ean Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak emandako ebazpenean argitaratu zen José María Berasaluce Ariñori Ermuko (Bizkaia) udal mugapeko Urtia erreka zati bat estaltzeko emandako baimena, eskatzailaren industria-pabiloi baterako sarbidea errazteko. BOE, 43. zk., 1966ko otsailaren 19koa, 2.076-2.077 or.



Ermua erdialdeko zokoa, Verano erreka. 1969. Erabat aprobatutako espazio batean tailerrak eta etxebizitzak elkarren ondoan daudela ikusten da. BFA, Udal eta Hirigintza erregistroa. AR03700/018.

Historia luzea zuten enpresek gero eta instalazio gehiago zituzten, eta horrek erakusten du eskariak hazten jarraitzen zuela; hala, Zubizarreta e Iriondo enpresako zuzendari kudeatzaileak—José Luis Zubizarreta Garro— 1970aren amaieran baimena eskatu zuen instalazioak bi solairuko pabiloi batekin handitzeko⁵⁴. Hurrengo urteetan, eskaera gehiago egin zituzten Forjas Ermuak (1972ko apirilaren 29a), Unamuno S.A.k (ekainean) edo Jesús Aguirregomezkortak⁵⁵. Beste adibide bat da Eibarretik Ermura egindako lekualdatzea; esaterako, Manuel Fernández Ciden enpresa, Donostiatik Bilbora doan errepidearen eskuinaldean kokatu zen⁵⁶. Eibarko “abandonu” horren beste adibide bat


⁵⁴ Ermuko Udalaren akta, 1970eko abenduaren 17koa.

⁵⁵ Jesús Aguirregomezorta Isasi-Isasmendi industrialaria zen, 47 urte zituen, eta General Mola 14an bizi zen; haren anaia Lucio, industrialaria, enpresari lotua, 1969an 50 urte zituen.

⁵⁶ Azcona Pastor (2003), 572. or. Manuel Fernández Cid metalurgiako lanbidea zuela agertzen zen, eta Ermuan bizi zen 1969an, 35 urterekin (Ik. Hauteskunde-errola, 1969an zuzendua, Gobernua eta Elizaren Gaiak, AJ02162/002, 2. atala, 11. orria)

da. Izan ere, herria oso betea zegoen, leku gutxi zuen, eta lur-zoru-prezio handiegiak; horren ondorioz, espazio berriak bilatzen ziren, merkeagoak eta hedadura mugarik gabeak. Kasurik argiena eta adierazgarriena izan zen BH (lehenagoko Beistegui Hermanos), 1909az geroztik arma-fabrikatzailea; 1923tik bizikletak egiten aritu ziren, eta 1959an instalazioak Gasteizera eramantuzten. Arabako hiriburua, espazio libre eta merkeei esker eta Itunak Arabako agintariei ematen zizkien abantailekin, oso erakargarri egin zen industria-instalazioak ezartzeko leku bila zebiltzan enpresentzat. Kasu batzuetan lehenagotik, BH bezala, baina beste batzuetan berriak, hala nola Imosa⁵⁷, Bizkaiko eta Kataluniako enpresaburuek sustatua, gaur egungo Mercedes-Benz instalazioaren hazia.

5. grafikoa. Ermuko sektorekako egitura. 1886-1986. (%)



Iturria: Geuk egina, kontuan hartuz Pinedo Otaola, 1996, 198.

⁵⁷ IMOSA, Industrias del Motor S. A. 1950ean eratu zen, Euskadiko eta Kataluniako industria-talde baten ekimenez. Sorrerako kapitala 5.000.000 pezetakoa zen. Hurrengo urtean, lankidetzaz hitzarmena sinatu zen Alemaniako Auto-Unión G.m.b.H enpresarekin. (Daimler-Benz taldea) DKW ibilgailuak fabrikatzeko. 1960an sinatutako bigarren kontratu batean, IMOSAK DKW furgoneten fabrikazio eskusiboa izango zuen mundu osorako. Gaur egun Mercedes Benz EAEko industria-enpresa nagusiaren instalazioaren aurrekaria da sozietate hori.

Goiko grafikoan (100 urteko bilakaeraren datuak biltzen ditu) ikusten denez, XIX. mendean, industria-jarduerak garrantzi handia zuen hiribilduan; izan ere, biztanleria aktiboaren erdia baino gehiago industrian aritzen zen, eta 1981ean lortu zuen mailarik gorena —krisialdia hasi zenean, ikusiko dugunez—: biztanleria aktiboaren ia % 80 industriako langileak ziren. Azken finean, “monolaborantza” industrialak metalurgiaren sektorean oinarritzen zen, eta Ermuko enpleguaren oinarria sektore horretan egotea ekarri zuen.

1970eko udan, Ermuko industriaren egiturarik zehatzena honela banatu zen:

2 taula. Ermuko industria-enpresak. 1970eko uztaila. (kop. eta %)

Helburua	enpresa-kop.	Enplega-tuak	Langileen %	Jardueraren hasiera	kop.	%
Lantegi mekanikoa.	7	140	% 17,4	1900 baino lehen	1	%24
Forja	4	137	% 17,1	1900etik 1939ra	5	%122
Doitasunezko txantiloak	1	102	% 12,7	1939tik 1952ra	12	%293
Torlojugintza	3	88	% 11,0	1952aren ondoren	23	%56,1
Aiztogintza fk.	1	65	% 8,1	GUZTIRA	41	%1000
Estanpazioak.	1	50	% 6,2			
Zerrategia.	3	32	% 4,0			
Motelgailuak	1	28	% 3,5			
Bizikleta-osa-garriak	1	26	% 3,2			
Jostailuak	1	22	% 2,7			
Galdaketak	1	20	% 2,5			
Autoetarako ordezeko piezak	1	16	% 2,0			
Erreminta-fk.	1	12	% 1,5			
Zurgintza	3	11	% 1,4			
Kromatuak	1	10	% 1,2			
Konponke-ta-garajea	4	9	% 1,1			
Okindegia	2	9	% 1,1			
Etzetresna elektrikoen fk.	1	8	% 1,0			
Leungailu-tailerra	1	7	% 0,9			
Zerren fk.	1	5	% 0,6			
Makinen konponketak	1	3	% 0,4			
Latorritegia	1	2	% 0,2			
GUZTIRA	41	803	% 100,0			

Iturria: Durangaldeko Hiri Antolamenduari buruzko Azterlana, Ermuko Udalaren mugapeari buruzko informazio estatistikoari dagokiona, "Arvay" Merkatu Azterketek Bizkaiko Lurralde Aldundiarentzat egin, 1970eko uztailan. BFA, Udal eta Hirigintza erregistroa. AR04808/002.

Argi dago, orain arte esan dugun bezala, industria-jardueraren pisu argiena metalaren sektorearena dela, eta jostailugintza, zerrategiak edo okindegiak hondarrak direla Ermuko industria osoan. Beste datu interesgarri bat da erdiak baino gehiagok 20 urte baino gutxiago zituztela, eta horrek berriro adierazten digu hiribilduaren industria-booma gerra osteko urte horietan gertatu zela, hain zuzen ere.

Enpresa batzuk ikusi ditugu, baina adierazgarria da 10 urte pasatxoan metalaren sektoreko 16 enpresa izatea:

3 taula. Ermuan dauden enpresa nagusiak. 1960-1970.

Sozietate-izena	Jarduera	Langileak
Zubizarreta e Iriondo S.L.	Esku-erremintak	321
Precicontrol	Ebaketa-erremintak, galgak	165
Industrias Decoletaje Estampación S.A. (Idesa)	Estanpazioa	158
Cuchilerría del Norte	Aiztogintza	96
Teodoro Izarra S.A.	Esku-erremintak	75
Estanpaciones metálicas EGUI	Estanpazioa	58
Forjas de Ermua S.A.	Estanpazioa	53
Imigas	Sukaldeak	25
Industrias San Lorenzo	Torlojuteria beltz estanpatura	23
Fundiciones Gorospe	Burdin galdaketa	22
Industrias Irulita	Itsas burdindegia	13
Industrias Olaiz	Torlojugintza dekoletatua	12
Talleres Agga	Industriako eta ontzigintzako artikulak	8
Galvanotecnia Viguri	Bainu elektrolitikoak	5
Angel Gonzalez del Agua	Piezen mekanizazioa	3
Industrias Corsan	Soldadura osagarria	3
Guztira		1.040

Iturria: Pinedo Otaola, 1996, 208.

3. taulan ikusten denez, enpresa gehienak txikiak eta ertainak ziren, eta, oro har, transformatu metalikoaren sektorean aritzen ziren. Kontuan hartu behar da sektore horren garapena Gipuzkoako industrializazio-ereduari zor zaiola Bizkaikoari baino gehiago, enpresa handiari lotuagoa, baina egia da Euskadik industria-sektorean izan zuen hazkunde handiak Ermuan (eta Eibarren) egiten ziren produktuen eskariari eragin ziola, eta, hori dela eta, Deba Bilararen ardatzak Ermurantz eta Mallabirantz zuen proiektzioak eta Durangaldearekin zuen loturak, eta Ibaizabalerantz zuenak mesede handia egin zioten industria-jardueraren hazkunde orokorrari eta haren ondorio demografiko eta sozialei.



Precicontrolleko instalazioak, ondoan Fuldain S.A. (ezk.). 70eko hamarkadaren bukaera (esk.). Ermuko Udala.
<https://www.ermua.eus/es/dosieres/industria-demografia-urbanismo-ermua>

Nolanahi ere, industriaren kontzentrazio-prozesua metalurgiara bideratu zen, eta, hori ez da harritzekoa, kontuan hartuta hiribilduak –eta inguruneak– tradizionalki su-armei eskainitako dedikazioa; 1975ean, Ermuan kokatutako enpresen % 88,2 hauen fabrikazioan aritu ziren: burdindegiko artikulua, industria- eta ontzi-produktuak, esku-erremintak, askotariko torlojuak, aizto-gintza, estanzio- eta galdaketa-piezak, makina-erreminta, au-

tomobilaren osagarriak, bizikletentzako piezak, eraikuntzarako elementu metalikoak, askotariko motorren osagaiak, katuak eta bestelako osagarriak, moteltzaileak, etxeko kontsumorako elementu metalikoak eta garraiorako metalezko piezak (Azona Pastor, 2003, 578).

Hala, 1970ean Ermuan helbideratuta zeuden enpresa nagusietako asko lan hauetan aritzen ziren:

4 taula. Egoitza Ermuan duten enpresa nagusiak. 1970.

Enpresaren izena	Jarduera
Talleres A.G.G.A.	Burdindegiko artikulua
Cuchillería del Norte	Aiztogintza
Imigas	Sukaldeak
Teodoro Izarra, SA.	Esku-erremintak
Industrias Irulita	Itsas burdindegia
Zubizarreta e Iriondo SL.	Esku-erremintak
Precicontrol	Ebaketa-erremintak, galgak
Industrias San Lorenzo	Torlojuteria beltz estanpatua
Industrias Olaiz	Torlojuteria dekoletatua
Estampaciones Metálicas Egui	Estanpazioa
Forjas de Ermua SA.	Estanpazioa
Industrias de Decoleta y Estampación	Estanpazioa
Fundiciones Gorospe	Burdin galdaketa
Galvanotecnia Viguri	Bainu elektrolitikoak
Angel González del Agua	Piezen mekanizazioa
Industrias Corsan	Soldadura osagarria
Industrias Rapid	Osagarriak, makina-erreminta
Industrias Amaya Telleria	Automobiletarako osagarriak
Talleres T.V.A.	Automobiletarako osagarriak
Manufacturas G.E.S. S.A.	Bizikleta/motozikleten osagarriak
Unamuno	Motelgailuak
Agirregomezhorta	Katuak, ibilgailu/motorren piezak
Fuldain	Motelgailu hidraulikoak
Vicente Alberdi	Automobilen ordezkio piezak
Industrias Iru	Motelgailuak
Talleres Efa	Harri naturalaren industria
Canteras Urko-Alde	Zerrategia
Antonio Erauzkin	Metal-arotzeria
Antonio Verguiza	Inprimategia
Imprenta Garde	Inprimategia

Iturria: Azcona Pastor, 2003, 579.

Garapen handi horrek arazoak sortu zituen, batez ere hiri-garapenaren prozesu azkar eta anarkikoagatik, eta ez dugu ahaztu behar industria-eremuarekin partekatzen zuela espazioa. Ermuako Udalak Foru Aldundiari (eta beste erakunde batzuei) egindako erreklamazioak eta funts-eskaerak errepikatu egin ziren 60ko eta 70eko urteetan; udal-baliabideak ez ziren nahikoak hazten ari zen populazioaren gero eta eskari handiagoari erantzuteko⁵⁸. Eskaera horiei, oro har, luze-labur txikiarekin erantzun zitzaien, eta, beraz, ermuar batzuen bizi-kalitateak nabarmen egin zuen okerrera, hazteko baliabide gutxi zituen hiri-espazio batean.

Udalak berak onartu zuenez, 1967an erroldatutako populazioa 12.000 biztanle ingurukoa zen arren, Eritasun Aseguruaren erregistroen bidez egindako azterketa ofiziosoaren bidez, 1967ko abenduaren 31n hiribildu horretako biztanleria erreala ez zen 16.000 biztanle baino txikiagoa. Etengabeak izan ziren saneamendua hobetzeko edo ur-bilketak handitzeko funts-eskaerak —oinarrizkoa, ez bakarrik biztanleentzat, baita industrientzat ere—, baina, azken batean, Espainia frankistaren arazo orokorrenekin bat zetorren: inbertsio publiko eskasa, zerga-bilketaren eraginkortasun urriagatik. Beraz, oso mugatuak ziren aukera errealak erakundeek planifikatutako kudeaketa egiteko, etxebizitza eraikitzeke espazioa lortzeko presio handiak zeudelako, kostua edozein izanik ere⁵⁹.

⁵⁸ Adibidez, ik. Ermua Hiribilduko alkateak Bizkaiko Foru Aldundiari egindako memoria. 1969ko urtarrilaren 31. BFA. Administratiboa. R-03700/018

⁵⁹ Bizkaiko herrien etengabeko eskaerei erantzuteko Diputazio probintzialak dituen arazoak, Alonso Olean (2014). Udalerrri handienek ere, Bilbok esaterako, antzeko arazoak eta arazo larriak izan zituzten zerbitzu publikoen eskaera gero eta handiagoari aurre egiteko. Bilboko alkateak 1959 eta 1963 artean esan zuen bezala, bilbotarrak aberatsak dira, baina Bilbo ez. Ik. Alonso Olea (2008)



Garai hartan, 1969an, General Mola eta Santa Zeziliako Musika Bandaren kaleen egoera (gaur egun, Izelaieta eta Goenkale) Guardia Zibilaren kuartela da markatutako eraikina.

Iturria: BFA, Udal Erregistroa eta Hirigintza. AR03700/018.

Batzuetan, “kexak” enpresa batzuetatik etortzen ziren, ez baita ahaztu behar azpiegitura, ur edo komunikazio faltak partikularrei eragiten ziela, baina baita merkantzien mugimendu neurri-gabekoa jasateko zaharkitutako bide-sare baten ezintasunagatik uste gabeko kostuei aurre egin behar zieten enpresei ere.

Ermua N-634 errepidearekin komunikatuta zegoen, eta trenbidez Bilbao-Donostia linearekin. Hirurogeiko hamarkadaren amaieran, Espainiako lehen ordainpeko autobideak planifikatzen hasi zirenean, diseinatu beharreko lehen ardatzetako bat izan zen Bilbo Frantziako mugarekin komunikatzea, Bilbao-Behobia autobidea. Bilbo-Behobia autobidea Galiziaraino doan ardatz

kantauriarraren zati bat izango zen⁶⁰. 1968an hasi ziren eraikitzen, eta inauguratutako lehen zatiak ziren Basauri-Zornotza eta Zornotza-Durango tarteak, 1972an. Hurrengo urtean Durango eta Eibar arteko zatia inauguratu zen; hau da, Ermuak askoz komunikazio hobeia izan zuen Durangaldearekin (Bilborekiko lotu-neak 1975 arte itxaron behar izan zuen, eta Donostiarekiko eta mugarekiko 1976ra arte). Nolanahi ere, N 634 errepideak, Ermutik pasatzean, arazoak eta protestak sortzen jarraitzen du, saihesbiderako aurreikusitako hiru tarteetako bat besterik ez baita eraiki⁶¹. Gabezia horiek eragin handia izango dute Trantsizioan dinamika sozial eta politikoan, baina aurrerago aztertuko dugu hori.

Esan bezala, garapen-eredu horren ardatz nagusia enpresa txiki eta ertainak izan ziren, langile gutxikoak, eta enpresaburu baten ekimen txikian oinarrituak. Enpresaburu hori, askotan, familia-tradizioari lotuta zegoen, eta kapital gutxi zuen, baina jarduerari buruzko ezagutza zabala eta arriskuak bere gain hartzeko gaitasuna zuen. Enpresa txiki eta ertainak direnez, ez ditugu biografia oso ezaguna duten enpresaburuak aurkitzen, baina interesgarriak izan daitezkeen zenbait datu baditugu.

⁶⁰ Lehen zatia 1971n inauguratu zen, eta azkena, berriz, 2014. urtean. Bitxia da bai Mallabiko Udalak bai Ermukoak proiektuari aurka egitea, bi txostenetan beste udalerritik lotura egitea gomendatu baitzuten. Lehenengo kasuan, herriaren hazkundearen aurreikuspena mozten zuelako, eta, bigarrean, San Pelaioko lur-sail asko jarduera industrialak, etxebizitzek eta eskola batek okupatzen zituztelako. Diputazioari iritzia eskatu zitzaion, eta Mallabiko lotura egitea gomendatu zuen –eskumena Herri Lan Ministerioarena zen–. Ik. Proposamenen txosten teknikoa Zaldibar-Elgoibar zatia Ermuarekin lotura egiteko, Bilbotik Behobiarako autopistan, Aldundiak egina eta Fernando de Ybarra presidenteak Bizkaiko Errepideen Hirugarren Buruzagitzako ingeniari buruari bidalia. 1969ko irailaren 20a. Gobernua eta Elizaren Gaiak AJ02470/011.

⁶¹ Protestak izan dira kamioiek hiribildua zeharkatzen dutelako, 2003ko abenduan, 2012ko otsailean eta, azkenengoa, 2023ko otsailean. Ik. Lasuen, Ainhoa. “Ermua se echa a la calle para reclamar la construcción de su variante”. *El Correo*, 2023ko otsailaren 4a. <https://www.elcorreo.com/bizkaia/ermua-variante-manifestacion-20230204150014-nt.html>

Garai hartan, familia-buruek eta ezkonduetako emakumeek bakarrik zuten boto-eskubidea (Tercio Familiar⁶²), baina Ermuko hautesle-errolan, 1969ko abenduaren 31n itxia, zenbait datu interesgarri aurkitu ditugu industriari lotutako jarduerak nork eta zenbatek zituzten jakiteko.

Nahi dugun kategoria “industrialarena” da, eta horietako asko aurki ditzakegu; adibidez, Lorenzo Aguirregomezhorta Isasi-Isasmendi⁶³, edo Juan Pedro eta Víctor Fuldain Zabala anaiak⁶⁴. Eta ez ditugu gizonak bakarrik aurkitzen, baita emakume industrialak ere, hala nola M^a Dolores Astarloa Begoña, 1969an 56 urte zituen, ezkongabea, eta Serrerías Norteñasekoa⁶⁵.

1973an, urrian, Yom Kippur gerra hasi zen, eta horren ondorioa izan zen petrolioaren kartelak (LPEE) petrolioaren prezioa igotzea. Ordura arte oso merkea zen energia-iturri horren bat-bateko garestitzeak hankaz gora jarri zituen kalkulu guztiak. Hala, ekonomia-krisi larri bat hasi zen, eta atzerapen pixka batekin iritsi zen Espainiara; izan ere, Francoren erregimena, jada azkenetan, hura saihesten saiatu zen, arazo koiunturala zela pentsatzen baitzuen, eta prezioen igoera-efektuak —inportatutako petrolioaren mendeko herrialdeetan gertatzen ari zena— ez zuela erregimenaren onarpenik eza areagotuko (ez da ahaztu behar frankismo berantiarrean protesta politiko eta sozialak gero eta gogorragoak izan zirela). Beraz, kanpoko prezioak konpentsatu zituen, barruko prezio aldaezinei eusteko aldea estaliz. Jakina, denboraren joanean politika hori bideraezina izan zen: prezioek

⁶² Hauteskunde prozedurari buruz, ik. 26/1967 Legea, ekainaren 28koa, Representación Familiar en Cortes. *BOE*, 156. zk., 1967ko uztailaren 1ekoa, 9.181-9182 or.

⁶³ Jesusen eta Lucioaren anaia, lehen aipatuak, Ignacio Olañeta kaleko 27an bizi zen, eta 55 urte zituen.


⁶⁴ Lehenak 46 urte zituen 1969an, eta bigarrenak, 42.

⁶⁵ Hautesle-errola zuzendua, 1969koa, Ermuko udalerrian adinez nagusi diren egoiliarrena, familiaburuena eta ezkonduetako emakumeena. BFA. Administratiboa. Gobernu eta Gai Eklesiastikoak AJ02162/002.

gora egiten zuten, eta Estatuak ez zuen baliabiderik faktura gero eta handiagoa ordaintzeko.

Berehalako ondorioa izan zen krisi ekonomiko gero eta handiagoa, eta, luze gabe, nabarmen handitu zen langabezia (ik. 6. grafikoa), ordura arte ia ezezaguna, eta inflazio handiko prozesua ekonomia-geldialdi orokorraren erdian. Beraz, estualdi handian sartu ziren ekipo-ondasunen, ontziolen eta siderurgiaren arloko Bizkaiko enpresa handiak.

6. grafikoa. Euskadiko eta Bizkaiko langabezia-tasa (1964-1985) (%)



Iturria: Geuk egina, kontuan hartuta urteroko biztanleria aktiboari buruzko inkesta (4. hiruhilekoa).

Beraz, kanpoko eta barneko faktoreen konbinazioak krisi larria eragin zuen Bizkaiko ekonomiaren sektore tradizionaletan. Giro politikoa gero eta zapuztuagoa ETAren jardura terroristak jarraitzearen ondorioz, enpresaburu askok jardura aldatu zuten, baina baita egoitza ere. Trantsizioarekin, Gorteak aukeratuzeko hauteskunde demokratikoak iritsi ziren, eta horiek 1978an konstituzio bat onartu zuten; lan-arloan sindikatuak agertu ziren

(sindikatu bertikal frankistaren “leherketa kontrolatuaren” ondoren), eta 1978ko hasieran demokraziaren lehenengo hauteskunde sindikaletan lehiatu behar izan zuten.

Ez gara emaitza zehatzei begira jarriko, baizik eta baieztatuko dugu Ermuko emaitzek ordezkari gutxi dituzten enpresa txiki batzuk erakusten dituztela. Salbuespena dira enpresa handiak, eta, beraz, ordezkari gehiago aukeratu zituzten: Zubiondo (gero, Ermua Tools S.A.L.) eta Unamuno, 13 ordezkari sindikal arte⁶⁶; une horretan 300 langile baino gehiago zituzten, eta Hiribilduan enplegu gehien sortzen zuten enpresak ziren. Harritu behar ez gaituen beste ezaugarri bat da hauteskunde horietan ordezkariak aukeratu zituzten 18 enpresetatik guztiak zeudela metalaren arloan bat izan ezik⁶⁷. Beste azterketa batzuen osagarri, esan dezagun UGTK ordezkari sindikalen ia % 35 lortu zuela, eta, ondoren, Langile Komisioek (CC.OO) % 29, eta oso urrun sindikaturik ez zutenak (% 19) eta ELA-STVk (% 9).

1970eko hamarkadaren bigarren erdian aldaketa politiko, sozial eta ekonomiko nabarmenak izan ziren. Nahiz eta neurri batean inertzia batzuekin jarraitu zen enpresa berriak sortzeko eta, batez ere, beste gune batzuetara eramateko orduan (industria-pabiloien eremuetara), diktadura pertsonalista batetik demokrazia konstituzionalerako aldaketa politiko sakon baten erdian garatutako krisi ekonomiko larriak bereziki zaildu zuen Trantsizioa eta enpresak egoera berrietara egokitzea.

⁶⁶ ELA-STV, 10. zk., 1978ko otsaila.

⁶⁷ Imigas 1960an sortu zen, Eibarren; sukalde eta berogailuak fabrikatzen zituen, eta Ermura joan zen 1965ean; bertan aritu zen galdaragintzan, erregaien biltegiak egiten, galdak, sukaldeak, egur-su txikiak eta abar. Egia esan, ikusten dugunez, ez zegoen metaletik urrun.

80KO HAMARKADA: KRISIA

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren azken erdia trantsizio-al-di argi gisa ageri da, garapen ekonomikoko garai batetik krisi ekonomiko larri batera, baina baita Francisco Francok 1936tik eratutako diktadura pertsonalista batetik Europako auzokoak homologatu nahi zituen demokraziantz ere.

Izan ere, Franco hil zenean, trantsizio politikoaren aldia hasi zen, eta 1977ko ekainean hauteskundeak izan zituen mugarri. Hauteskunde horietan, argi eta garbi irabazi zuen PSOEk Ermuan, baina boto baliogabe ugari izan ziren (emandako botoen % 14,5).

5 taula. 1977ko ekaineko hauteskunde orokorrak. (Botoak eta %)

Alderdia	Boto-kop.	%
PSE-PSOE	2.078	% 34,5
UCD	1.747	% 29,0
EAJ-PNV	920	% 15,3
PCE-EPK	428	% 7,1
AP	296	% 4,9
EE	126	% 2,1
PSP	96	% 1,6
PASD	72	% 1,2
ESB	66	% 1,1
FUT	65	% 1,1
A.E.T.	46	% 0,8
FDI	36	% 0,6
DCV-EKA	29	% 0,5
EAE /ANV	19	% 0,3
Botoak	6.024	% 100,0
Baliogabeak	1.024	% 14,5
Boto-emaileak	7.064	
Errolda	10.414	

Iturria: Geuk egina, hauteskunde-emaitezak kontuan hartuta (<https://www.euskadi.eus/ab12aAREWar/resultado/maint>)

Bestalde, 1978ko abenduko erreferendumaren ondoren, eta urte horretako Konstituzioa aldarrikatu ondoren, 1979an Euskal Herriko Autonomia Estatutua onartu zen, baina Ermuan ez zen hura hainbeste babestu, abstentzioa oso handia izan baitzen, % 49.

**6 taula. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, 1980.
Hauteskundearen emaitzak Ermuan. (Botoak eta %)**

Alderdia	Botoak	%
PSE-PSOE	1.870	% 31,42
EAJ-PNV	1.323	% 22,23
UCD	714	% 12,00
PCE-EPK	599	% 10,06
HB	457	% 7,68
AP	259	% 4,35
EE	240	% 4,03
EMK-MCE	176	% 2,96
PSOE (H)	71	% 1,19
ESEI	59	% 0,99
PST	51	% 0,86
ORT-PTE	48	% 0,81
EKA	41	% 0,69
LKI-LCR	32	% 0,54
UC	8	% 0,13
FE-JONS	4	% 0,07
Boto-emai- leak	5.952	% 100,00
Abstentzioa:	6.172	% 49,59
Errolda	12.446	

Iturria: aurreko koadroaren bera.

Giro politikoa ez zen izan, ez erraza, ez baketsua. 1959an, EAJren ildo politiko ofizialarekin pozik ez zegoen gazte-talde batek ETA sortu zuen, borroka armatuaren bidez Euskal Herriaren independentzia lortzeko. 1968an lehen atentatu hilgarriak egin zituen, eta lehen helburua Melitón Manzanás Brigada Politiko Sozialeko komisarioa izan zen —Guardia Zibilarekin izandako liskarra alde batera utzita: kontrol batean Rafael Pardinesen heriotza izan zen—. Ermuko ETArekin lehen biktima —Eibarren hil zuten arren— Sotero Mazo ile-apaintzailea izan zen, 1980ko azaroan.

1979ko maiatzean egin ziren lehen udal-hauteskunde demokratikoak 1931tik, eta emaitza estua izan zen EAJ eta PSOEn artean. Azkenean, Julián San Cristobal Iguaran sozialista hautatu zuten alkate, eta gero Bizkaiko gobernadore zibil eta Estatuko Segurtasuneko zuzendari izatera iritsi zen, nahiz eta haren ibilbide politikoa zapuztu egin zen GALen eskandalu eta Estatuko Funtsak gaizki erabiltzearen ondorioz.

Hiribilduaren beharrian handiak, denborarekin larriagotuak, neurri batean “lehertu” egin ziren Trantsizioarekin batera, Ermuan eta leku askotan; izan ere, erakunde demokratiko berriek, udalek eta foru-aldundiek, politika publiko propioak aktibatu behar izan zituzten berehala, Frankismo garaiko udal-kudeaketaren hondamendia zuzentzen saiatzeko, ahal zen neurrian behintzat. Beraz, ez da harritzekoa 1979an Foru Aldundiak ere bere kudeaketa-eredua aldatu zuenean —eta bi urtean Kontzertu Ekonomikoa nola berreskuratzen zen ikusiko zuen—, udalerriaren beharrian⁶⁸ buruzko informazioa eskatzea, Udalak proiektu zaharrak berreskura zitzaiz: saneamendu-sarea berritu edo, udaletxe berria egiteko, Valdespinako Markesaren jauregia⁶⁹ erosi.

Premia horien artean, lehentasunezko zatia jo zen hiri-plangintza —ikusitugua aurretiazko finantziario-eskaerak, askotan bete gabeak—, eta, beraz, 1979ko ekainean, udalbatza berriak bertan behera utzi zuen udalerrian partzelazio- eta eraikuntza-lizentziak ematea, Antolamendurako Plan Orokorra idazteko lehiaketa esleitzeko zain.

⁶⁸ José M^a Makua aldundi nagusi berriaren lehen neurrietako bat izan zen udalerrietako eta foru errepideen sareko ekipamenduak handitzea. Ik. Agirreazkuenaga (2014)

⁶⁹ Ik.. Azcona Pastor (2003), or. 598-599. Lekualdaketa 1985ean egingo zen azkenean.

Horrek enpresak handitzeko proiektuak geldiarazi zituen, baina garaiak aldatzen ari ziren, eta langabeziaren mamua Ermuan zabaldu zen, baina ez Ermuan bakarrik.

7 taula. Enpresa industrialak Ermuan. 1981. (kop.)

Langileak	Enpresa kop.	Langile kop.
3tik 19ra	56	378
20tik 99ra	24	1.079
100etik 499ra	5	1.076
Guztira	85	2.533

Iturria: Gobierno Vasco/Eusko Jaurlaritza. (1983).

8 taula. Ermuan kokatutako hamar langiletik gorako enpresak. 1981.

Enpresa	Ekoizpena	Langile-kop.
Unamuno, S.A.	Motelgailuak	350
Zubizarreta e Iriondo, S.L. (ZUBI ONDO, S.L.)	Esku-erremintak	338
Aguirremezcorta S.A.	Automobiletarako piezak eta osagarriak	150
Precicontrol, S.A. (ZYM)	Metala	125
Cuchillería del Norte, S.A.	Metala	113
Forjas de Ermua, S.A.	Forja	92
T.V.A. S.A.	Errotulak eta direkzio-barrak	92
Industrias Decoletaje Estampación, S.A.	Dekoletajea	90
Arcksel Sociedad Anónima	Soldadura	89
Telleria Altuna, Amaya	Dekoletajea eta mekanizazioa	89
Estampaciones Generales, S.A. Esgesa	Estanpazioak	78
Ardatz Rapid, S.A.	Hariztatzeko ardatzak	70
Trokemetal, S.A. Lehenago, Trokemetal Arin	Metala	67
Teodoro Izarra, S.A.	Forja eta mekanizazioa	64
Manufacturas Ges, S.A.	Bizikletentzako osagarriak	62

Industrias Iru, S.A.	Xafla-piezen estanzazioa	53
Estampaciones metálicas Egui, S.L.	Estanpazioak	46
Fuldain, S.A.	Autoaren osagarriak	35
Urreta, S.A.	Bizikleta-osagarriak	34
Wat direcciones, S.A.	Automobiletarako piezak	34
Imigas, S.A.	Etxetresna elektrikoak	28
Domingo Acha y Cia, S.A. (DOMACO)	Metala	26
Amillategi Larrañaga Donato	Estanpazio metalikoak	23
Microdeco, S.A.	Dekoletajea, erremintak	23
Ogia, S.A.	Ogia	23
Engranajes Ureta, S.A.	Engranajeak	22
Industrias Mallabi, S.A.	Metala	22
Tornillería San Lorenzo, S.A.	Metala	22
Fundiciones Gorospe	Metala	20
Gorrotxategi Elorriaga, Jesus. Manufacturas Ibaiarte	Industriako burdineria	20
Cantera Urko Alde, S.L	Harrobia	18
Industrias Algora, S.A.	Automobilerako piezak	15
Talleres Vizcnos AGGA, S.A.	Mekanika	14
Decoletaje y mecanización, S.A.	Dekoletajea	13
Industrias Zeg, S.L.	Torlojuteria	12
Talleres mecánicos AGGA, S.A. Okin Zuri	Mekanika	12
Industrias Olaiz, S.L. (OLAIZ)	Pieza de kolektatuak	11
Integi, S.A.	Erremintak	11

Iturria: Euskadiko Merkataritza Ganberak. 1982.

Izan ere, hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdeko krisiak Bizkaiko ekonomiaren sektore nagusietan izan zuen eragina: siderometalurgian, ekipo-ondasunetan, ontzioletan, automobiletan eta abarretan. Eskulan intentsiboko enpresak zirenez, langabeziak ikaragarri egin zuen gora, eta, ondorioz, Bizkaiko ekonomia erorketa askean sartu zen 80ko hamarkadaren hasieran. Giro politiko eta sozialak ez zituen gauzak hobetu. Izan ere, oro har, sektore horiei guztiei, jarduera terrorista gehitu zitzaien faktore astungarri gisa.

Ikusi dugunez, Ermuan zeuden enpresa asko Eibarko jarduerarekin eta urrunagoko beste eremu batzuekin lotzen ziren, eta, krisia zabaldu zenean, enpresa txikiek ondorio hau jasan zuten: automobil-piezak edo makina-erreminta edo pieza metalikoak saltzen zituztenen merkatua eraitsi egin zen. Batzuek beste batzuek baino hobeto egin zuten aurrera, kasu batzuetan espezializazioagatik, beste batzuetan esportazioak salmentetan zuen pisu erlatiboagatik, baina urte zailak izan ziren.

Baina, faktore orokor horretaz gain, euskal kasuaren beste bereizgarri bat ere badago: ETA erakundearen jarduera; izan ere, enpresaburuei estortsioa egin zien bere sostengurako baliabide ekonomikoak lortzeko. Zaila da zehaztea ETAn jardueraren eta haren “zerga iraultzailearen” eragin zuzena eta zeharkakoa, baina, ezbairik gabe, desinbertsioak eta deslokalizazioak eragiteaz gain, atentatuen xede ziren enpresaburu batzuek desagertzeak giza kapitala galtzea ekarri zuen, eta giza kapital hori ezin izan zen kontuan hartu industria-jardueretan inbertitzean.

Ekintzak ez ziren estortsiora mugatu (“zerga iraultzailearen” bidez); kasu batzuetan, ETAk esku hartu zuen lan-gatazkak “konpontzeko”. Kasu goiztiarra izan zen, eta Ermuan eragina izan zuen Lorenzo Zabala Suinagaren bahiketak, Motobic-en

sortzaile eta Precicontrol-eko akziodun eta kudeatzailea⁷⁰. 1972ko urtarrilean, bahitu egin zuen ETAk, eta, aske uzteko, Precicontrolekin zuten gatazkagatik kaleratutako langileak berriaz onar zitzala eskatu zion enpresako zuzendaritzari, eskaera guztiak, baita soldata igoera ere. Bahitu eta bi egunera, 1972ko urtarrilaren 21ean, askatu egin zuten enpresaburua, enpresak ETAk ezarritako baldintzak berehala bete ondoren. Handik hilabete batzuetara, erakundeak adierazi zuen Zabala hautatu zutela, ez bakarrik lan-gatazkagatik, baita haren “euskaltasunagatik” ere⁷¹. Lau urte geroago, ETApn-k Angel Berazadi EAJtik hurbil zegoen enpresaburua bahitu zuen. Kasu horretan, dirua lortzeko bahiketa izan zen —ez zen lan-gatazkarik izan tarteko—, eta familiak esan zuenez ez zuela eskatutako zenbatekoa ordaintzeko aukerarik, apirilaren 6an enpresaburuaren gorpua agertu zen Elgoibar inguruan. 1977ko maiatzaren 20an, ETAk Javier de Ybarra y Bergé bahitu zuen, enpresaburu garrantzitsua baina frankismoan ibilbide politiko luzekoa. Hilabete geroago Zeanurin hilik agertu zen. Bizkaiko enpresarien artean garrantzitsuenetako baten aurka egindako atentatu horrek beldurra eragin zuen, eta, hori zela eta, Abrako Itsas Klubeko —enpresaburuaren bilgunerik eta jolas-gunerik tradizionalenetako bat— bazkideen % 30ek baja eman zuten (Alonso Olea, 2002).

Azken batean, zaila da zehaztea terrorismoak zer eragin izan zuen egoera ekonomikoan edo zenbait faktoretan, hala nola ekintzailertzan, baina bistan da eragin zuzena izan zuela giza-kapitalaren galieran edo deslokalizazio-prozesuetan⁷².

⁷⁰ Gertakariaren kazetaritza-kontakizuna, “Secuestro de un directivo de la empresa Precicontrol, en Abadiano (Vizcaya)”, *ABC*, 1972ko urtarrilaren 20a.

⁷¹ ETaren lehen ekintza horiei buruz, enpresa-alorraren aurka, ik. Fernández Soldevilla (2016)

⁷² Hemen landutakoak baino zabalago kontsulta daiteke Ugarte Gastaminza (2018). Bereziki, deslokalizazioari buruz, oso zaila da ETaren jarduerarekin soilik erlazionatzea, Díaz Morlánen (2018).


Beraz, krisi sakon batean murgildutako espazio bati buruz ari gara, eta krisi horrek bereziki eragindako sektoreez. Horri enpresaburuen “prestigio-arazoak” gehitu zitzaizkion; horrez gain, indarkeria-giroa sortu zen, eta enpresaburuak bereziki kaltetu zituen.

Ondorioa fabrikak ixtea izan zen, kasu batzuetan abandonua, edo jarduera edo kudeaketa-modua nahitaez birmoldatzea; adibidez, kooperatiben bidez langileei lagatzea.

Eta arazoak larriagotzeko, gainera, 1983ko abuztuan uholde larriak izan ziren. Uholde horiek lehertu egin zituzten hiribilduaren inguruko ibaien ibilguak; ordu luzez egon zen argirik gabe, eta, jakina, ezin izan zen txorrotako ura erabili egun batzuetan (irailaren 3ra arte).

Baina langabeziak ere gora egin zuen, eta laurogeiko hamarkadaren erdialdean biztanleria aktiboaren laurdena lanik gabe zegoen. Egoera ona ez zela erakusten du, halaber, Ermuko Udalak eskatzea hiribildua Eusko Jaurlaritzaren drogaren aurkako planetan sartzeko⁷³.

7. grafikoa. Ermuko 16 urtetik gorako biztanleen langabezia-tasa (%)



Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren erroldak.

⁷³ Zehazki, 1985eko martxoan. Azcona Pastor (2003), 616. or.

Industria-jarduerarekin pozik ez egoteko beste faktore bat izan zen konturatzea lehen mailako eta hainbat zentzutako kutsatzailerak zela (akustika, ura, airea...) (Azcona Pastor, 2003, 604):

Irtenbidea ez zen berez ixtea, nahiz eta gerta zitekeen, baizik eta industria-jarduera hori hirigunetik “kanporatzea”, baina hori geroago etorriko zen. Laurogeita hamarrekoko hamarkadan, enpresa horietako batzuk pabiloi berrietako eremuetara lekualdatzen hasi ziren, eta etxebizitzek, parkeek edo aparkalekuek bete zuten enpresek utzitako eremua. 1994an, Forjas de Ermua, Forjas Izarra, Tenneco Automotive (Monroe, Unamunoren aurrekoa), 1999. eta 2001. urteen artean; Precicontrol beste enpresa bat izan zen hiribildutik kanpo ezarri zena, 1999. urtean; Fuldain, haren tokian aparkaleku bat jarri zen; Herramientas Ermua edo Ermua Tools (Zubiondo), 2000. urtean; Ardatz eta TVA (gerora, ZF Lemförder TVA), ordurarte Zeharkalen zegoen, eta Trokemetalekin batera (2007an) eta Cuchillería del Norte (egungo Rehabe, Aitor aizto eta labanak egiten ditu), 2001 eta 2004 urte artean lekualdatu ziren; edo Domingo Acha (Domaco), 2003an⁷⁴.

Industria-sarea suntsitzeko prozesuan aurreratua 70eko hamarkadaren amaieran, egiazki 80ko hamarkadan gertatu zen, eta 90eko hamarkadan argi eta garbi ikusten da industria-sektorearen eta bertan lan egiten zuten langileen kopurua gutxitu egin zela. Horren arrazoia ez da industria-jarduera berez murriztea, baizik eta instalazio berrietan jarraitzen duten enpresek ere enplegatu gutxiago behar izatea gauza bera edo gehiago egiteko; beraz, eskulanaren eskaerak behera egin zuen.

Azken bi hamarkadetan, Asiako lehiakortasunak egoera larriagotu besterik ez du egin sektore nagusietan.

⁷⁴ Lasuen, Ainhoa “Ermua traslada 13 empresas del casco urbano en los últimos 15 años”, *El Correo*, 2011ko otsailaren 3a

ZER IZAN ZEN ETA ZER DEN.

Ikusi ditugun enpresa asko desagertu egin dira, eta horrek ez du esan nahi fabrikek ez dutela jarraitzen, beste toki batzuetan eta beste sozietate-izen batzuekin. Hala, ikusi ditugu Zubizarreta eta Iriondo enpresak, esaterako, hogeiko hamarkadan sortu zirela, eta hasierako lokalizazioa Izelaietan kalean zutela (General Mola), eta gaur egun jarduerarekin jarraitzen dute Ermua Tools (Zubi-Ondo) sozietate-izenaren pean, Areitiora doan errepidean.

Beste batzuk ez dira Ermutik etorri, Eibar ingurutik baizik, hala nola Manufacturas GES: 1941ean Eibarren sortua, eta 1970ean Ermura joan zen, Mallabirako errepidean; 1990ean hasi zen zelak eta bizikleta-pedalak egiten, eta gero kaskoak; gaur egun, sektore horretako enpresa nagusietako bat da. Microdeco da eibartar batzuek sortutako beste enpresa bat, baina Ermura lekualdatu zen; 1963an sortua, hiru eibartarren ekimenez (besteak beste, Manuel Iraolagoitia); dekoletaje-piezak egiten ditue, batez ere doitasunekoak, eta garrantzi handikoa automobiletarako piezak fabrikatzean.

Beste kasu bat, jarraipenekoa, Talleres AGGA da; 1958an hasi zen Cardenal Orbe kaleko etxe batean, lau sortzaileen inizialak batuz sortua: Laureano Aramburu, Bonifacio Garitagoitia, Jesús Gorrichategui eta Dionisio Ames. Hasieran, torloju amaigabeak mekanizatzen zituen, eta, gaur egun, planoan oinarritutako piezak edo bezeroak emandako laginak mekanizatzen ditu. 1974an pabiloi berri batera aldatu zen Markinarako errepidean,

eta 1980an sozietate anonimo bihurtu zen, Talleres Mecánicos A.G.G.A. izenarekin, eta bazkide berriak sartu ziren, fundatzailleen ondorengoak.

Beste batzuek beste toki batzuetan jarraitu zuten, hala nola Estampaciones Egui; automobilentzako ihes-hodiak egiten zituen, eta motor-kirolaren babesle nabarmena izan zen.

Egia esan, tamaina txikia eta orografia kontuan hartuta, Ermua enpresa-ekintzailetzari aplikatutako tradizioaren lekuko argia da; izan ere, ingurune zabalago baten zati bat osatzen du, eta Eibarren du erdigunea. Han, Erdi Aroaren amaieratik, enpresa-jardueren segida bat aurkitzen dugu; gerrak, krisiak eragindako aldaketa nabarmenak gaitu ditu; armetatik bizikletetara edo doitasun-mekanikara igaro da, baina argi eta garbi erakusten digu ikasteko eta sortzeko interesa.

